

Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA



**Jose Luis
Alvarez Enparantza,
Txillardegi**
“Altxa itzazu begiak”



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Hegats

AURREKO ZENBAKIETAN

- 34. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Oroimena eta literatura
Elkarrizketa: Xabier Gereño
- 35. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Oroimena eta historia
Elkarrizketa: Txomin Peillen
- 36. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Amodiozko literatura
Elkarrizketa: Arantxa Urretabizkaia
- 37. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Hiriak
Elkarrizketa: Asun Sarobe
- 38. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Memoriak eta egunerokoak
Elkarrizketa: Piarres Xarriton
- 39. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Literatura eta zinea
Elkarrizketa: Anjel Lertxundi
- 40. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Euskal antzerkia
Elkarrizketa: Ander Lipus
- 41. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Cesare Pavese
- 42. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Finlandia
- 43. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Victor Hugo
- 44. zenbakia:**
Erotismoa, haragia eta beste debeku batzuk literaturan
- 45. zenbakia:**
Joxe Azurmendi: “Oso untzi hauskorreko argonautak gara euskaltzaleok”
- 46. zenbakia:**
Kurdistan: herria, kultura, literatura
Elkarrizketa: Helim Yusiv eta Berivan Dosky
- 47. zenbakia:**
Xabier Lete:
sortuz ta sortuz gure aukera
- 48. zenbakia:**
Agosti Xaho, berrehun urte
Elkarrizketa: J.L. Davant

Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA



**Jose Luis
Alvarez Enparantza,
Txillardegi
“Altxa itzazu begiak”**



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Hegats

AURREKO ZENBAKIETAN

- 34. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Oroimena eta literatura
Elkarrizketa: Xabier Gereño
- 35. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Oroimena eta historia
Elkarrizketa: Txomin Peillen
- 36. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Amodiozko literatura
Elkarrizketa: Arantxa Urretabizkaia
- 37. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Hiriak
Elkarrizketa: Asun Sarobe
- 38. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Memoriak eta egunerokoak
Elkarrizketa: Piarres Xarriton
- 39. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Literatura eta zinea
Elkarrizketa: Anjel Lertxundi
- 40. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Euskal antzerkia
Elkarrizketa: Ander Lipus
- 41. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Cesare Pavese
- 42. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Finlandia
- 43. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Victor Hugo
- 44. zenbakia:**
Erotismoa, haragia eta beste debeku batzuk literaturan
- 45. zenbakia:**
Joxe Azurmendi: “Oso untzi hauskorreko argonautak gara euskaltzaleok”
- 46. zenbakia:**
Kurdistan: herria, kultura, literatura
Elkarrizketa: Helim Yusiv eta Berivan Dosky
- 47. zenbakia:**
Xabier Lete:
sortuz ta sortuz gure aukera
- 48. zenbakia:**
Agosti Xaho, berrehun urte
Elkarrizketa: J.L. Davant

Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA



**Jose Luis
Alvarez Enparantza,
Txillardegi**
“Altxa itzazu begiak”



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Hegats

AURREKO ZENBAKIETAN

- 34. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Oroimena eta literatura
Elkarrizketa: Xabier Gereño
- 35. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Oroimena eta historia
Elkarrizketa: Txomin Peillen
- 36. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Amodiozko literatura
Elkarrizketa: Arantxa Urretabizkaia
- 37. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Hiriak
Elkarrizketa: Asun Sarobe
- 38. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Memoriak eta egunerokoak
Elkarrizketa: Piarres Xarriton
- 39. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Literatura eta zinea
Elkarrizketa: Anjel Lertxundi
- 40. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Euskal antzerkia
Elkarrizketa: Ander Lipus
- 41. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Cesare Pavese
- 42. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Finlandia
- 43. zenbakia:**
Txosten monografikoa: Victor Hugo
- 44. zenbakia:**
Erotismoa, haragia eta beste debeku batzuk literaturan
- 45. zenbakia:**
Joxe Azurmendi: “Oso untzi hauskorreko argonautak gara euskaltzaleok”
- 46. zenbakia:**
Kurdistan: herria, kultura, literatura
Elkarrizketa: Helim Yusiv eta Berivan Dosky
- 47. zenbakia:**
Xabier Lete:
sortuz ta sortuz gure aukera
- 48. zenbakia:**
Agosti Xaho, berrehun urte
Elkarrizketa: J.L. Davant



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SALA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza

Idazkuntza Kontseilua

Idazkuntza Kontseiluburua: Igor Estankona
Kontseilukideak: Elena Martinez, Xabier Mendiguren,
Jon Martin, Juan Luis Mugertza.

Azaleko argazkia: Jon Urbe / Argazki Press.
Jakin Aldizkariari, esker onez.

Diseinua eta maketazioa: Bidera zerbitzuak.
Inprimaketa: Gertu Grafikak



Zemoria kalea, 25 behea
20013 Donostia
Tel: 943 27 69 99
Faxa: 943 27 72 88
Posta elektronikoa: eie@idazleak.org

ISSN: 1130-2445
Lege Gordailua: SS-359/90

*Euskal Idazleen Elkarteak ez ditu derrigorrean beregain hartzen
Hegats aldizkariako kolaboratzaileen initzialak.*

Aitzin Solasa	
Joxe Austin Arrieta	9
Txillardegiren kosmodromoan	
Fito Rodriguez	13
Elsa Scheelen eta genero gatazka	
Ander Iturriotz Lauzirika	39
Txillardegi, euskara eta marxismoa	
Alaitz Aizpuru	113
Txillardegi eta Euskara Batua	
Gotzon Aurrekoetxea	
UPV/EHU	137
Txillardegi gazteari elkarriketa	
Jakin, 1960	147

Aitzin Solasa

Joxe Austin Arrieta

Zeinen urrun, zeinen arraro, zeinen «modatik at». Baina aldi berean zeinen gertuko, eder, ausart. Jose Luis Alvarez Enparantzaren hitzok, pornografiaren aurka, 1974an idatziok (ikus «Gertakarien lekuko»-I.Alea, 152. orr.):

«Erotismoa, obratu aurreko amodio-giro berezia, maitasun hozitu berriaren Eros-aldia, baita barne-hutsune soila denean ere, baita olerki-egarri zorrotzaren pizgari bakarra denean ere, baita ez-aren edo ezin-aren dei etsia denean ere, baita egiazko maitasun osotua ez denean ere, Olerki da, eta Edermen, eta Arte-gun, eta gizonaren barne-aberasgarriak gardedena eta zinezkoena. Sendimenduan eta olerkian funtsatutako harremanen askatasunaren alde, berriro ere Marcuserekin batera, esango nukeen guzti-guztia, sendimendutik eta olerkitik at oratutako tximukeria horien aurka esango nuke zinki. Eta tximuek barka nazatela...»

Irakurri bai, irakurriko nuen seguru asko, argitaratu zenean, Maisu Handiaren artikuluak eta liburuak oro irrikaz irakurtzen baintuen. Jaramonik ez, ordea. «Horrelako gauzetan» ezikusiarena, ezentzunarena egitea hobe, aizu: azken finean, «beste belaunaldi batekoa» da Txillardegi, sexu-errepresioaren arketipoak mintzo dira haren ahotik, barneegi errotuak ditugu denok ere, eta berak areago - zaharragoa baita-, erlijio katolikoaren puritanismoak txertatu dizkigun sexuaren -hots, bekatuaren-itzalak, desakraliza ditzagun apur bat amodio-kontuak, jolas bat da, aizu, azken finean, zer du txarrik Parisko Azken Tangoak, zer du txarrik Zintzur Sakonak...«Marcuse?»...Zer dela-eta aipatzen zenigun

Marcuse, Maisu? Zer txantxa-mota dialektikoa zen hori, Txillardegi jauna?...Ez. Ez zen txantxa. Hain zuzen ere, gure belaunaldikoen kultuko totem intelektual nagusiaren ize-nean inarrostean zuten gure modakeria, gure moldakeria. Guk, ordea, edo nik behintzat, jaramonik ez.

«Zinema pornoa, gizonaren sakontasunaren uko zabarra eta zozoa den aldetik, gaurko gizartearen txirogarri nabarmen iruditzen zait. Eta gizasemearen, emakumearen eta maitasunaren beraren txirogarria den aldetik nahi nuke berriro ere eta osoki lerro hauen bitartez gaitzetsi.»

«Goetheren «Werther» eta Hamsum-en «Pan» liburu zoragarrien irakurle liluratua izan naizen hau, zinema porno horrek nardatu egiten nau, jaunak. Benetan. Zu ez ala?» (ibidem, 152.orr.)

Bai, konforme, Jose Luis. Zuzen-zuzenean itura jotzen duzu, pur sang bat izan zara beti. Zuri ezin zaizu inoiz itzulinguru erretorikoz erantzun. Esango nizuke, adibidez, ez dela ideologikoki batere korrektua «gizona» aipatzea «gizaki»ren ordean, etimologikoki berdintsu izan arren; baina 2012an diotsut hau, jakina, 1974an baino errazagoa da, noski... Esango nizuke, esate baterako, aholku zoragarria izan zela Koldo Mitxelenarena, Hamsum-en «Pan» hori euskaratzeko asmoa burutik kendu zizuneko, eta ez autore norvegiar hura filo-nazia omen zelako (zuk dena irakurtzen zenuen, nik ez, aldean aurretik pedigree politikoari erreparatuz errazten diot hautabeharra neure irakurle-alferkeriari), baizik eta, itzulpen hari lotu bazintzaizkio, beharbada ez genukeelako gaur egun «Leturia»rik izango geure letra apalen apalik urrezkoenean. Baina ados, Maisu. Erantzungo dizut, zirt ala zart. Ni ere nardatu izan nau. Beti, edo ia beti. Jakin ez, ordea, zergatik. Nire

hezkuntza puritanoarengatik? Ez, baldinbaitere. Nahiago nuke hala ez balitz behintzat. Arrazoi zenuela uste dut. Barka gaitzate! tximuek, bai. Haiak bezain natural bagina sikiera...

Txillardegiren kosmodromoan

Fito Rodriguez

Kosmos bat izan da Jose Luis Alvarez Enparantza eta, horretan, bere «Kosmodromoak» (1984) narrazio liburu bat izan arren, balio du bere idatz munduari buruzko artikulua izkiri-riatzerakoan izenburua emateko eta, horretaz aritzerakotan, berriz, Jose Luisen saiakeragilearen funtsak sekulako garrantzia hartzen duela azpimarratzeko zeren, berdin narrazioetan edo eleberrigintzan, berdin itzulpenetan edota ikerketa testuetan, Txillardegiren idazkera, ene ustetan, entsegu idazlearena izan da hastapenetatik amaitzeraino. Horregatik, Txillardegiren kosmodromoan testuetarako hurbilketa eskainiz, Jose Luis Alvarez Enparantzarengana iritsi nahi dut, haren bidez, berak biziutako garaia buruzko orduko iritziak agerrarazi eta, ondorioz, Txillardegik utzitako ondarea ulertarazten lagundu. Euskal kulturak asko zor diolako Larresorori, Usako, Harribizketari edota Txillardegiri... Hala literatur arloan nola saiakeragintzan, gogamen filosofiko/politikoan edo, zehazkiago, glotopolitikoan, dialektologian, fonetikan nahiz azentuaz... Honetaz gain, Txillardegiren testuak daude, fikziokoak eta kazetaritzakoak, eleberriak, ipuinak eta itzulpenak, hamaika iruzkin egiteko gure artean betiko utzi dizkigunak. Hala ere, entsegu testuetan oinarritutako Txillardegiren irakurbidea duzue hau, bada, orain hastera doana... Txillardegi izan zen europar kulturaren berri euskal literaturan estreinakoz eman zuena. Literatura berria euskaraz eman zigun idazle urbanoa, laikoa eta iraultzailea. Nazioarteko kultur erreferentzia garaikideak euskal nazio zaharrera ekarri zituen abertzalea. Akademiak maite izan ez zuena nahiz eta berak jakintza

maite. Euskal presoak, erbestera eta errefuxiatua. ETAren fundatzailea eta errefusatzailea. Existenzialista eta polemika zalea. Berak sortutako fikzio pertsonaien parekoa.

Eta, bere Leturiaren, Peruren edo Elsaren antzera, zoriontsu edo ez, idazlea izan da oroz gain, saiakeragintzan, gogamen filosofikoari muzin egiten ez ziona, independentziaren aldeko politikaz arituz...

Poesia izan da bere idazkuntzan agerian landu ez zuen arlo bakarra eta, halere, idazle estimatu hura, gure Gabriel Arestik zioskunez, Txillardegi, musikari guztiak bezala, funtsean, poeta ere bazen.

Txillardegi zenari asko zor zaio, hala euskal kulturak nola euskarak berak, eta euskal literaturak batik bat zorra, eduki, badu berarekin...

Haren saiakera idazkiak lagun, berak zuen idazkuntza estilo berezia, testuz testu aztertuz, zor hura kitatzen lagundu beharko genuke haren emaria ikertzen eta zabaltzen, haren ekarpen literarioa eta intelektuala aztertzen berak idatzitako testuak horretarako erabiliz...

Berak jakin izan zuen bere garaian hizkuntza literarioa proposatzen eta, ondoren, prosodiari buruzko aldarrikapenak egiten. Txillardegiren irudi intelektual eta maisuaren ekarpenak bere ardatzetan kokatu beharra delakoan nago. Ireki beharreko bide hau, ordea, oraindik jorratzeke dago eta, horretarako, bere xumean, testu hauxe, saiakeraren arloa aztertzeke aurre proposamena besterik ezin da izan.

Txillardegi aztertzeke, dagoeneko, ikerketa batzuk plazaratzen joan badira ere, gehienak hizkuntzalaritza, soziolinguistika, literatur narratiboa edota historia dute abiapuntu nahiz helmuga.

Hemen landu nahi dugun bide honetan, berriz, Txillardegiren entsegugintza begirada berezituaz behatu nahi dugu. Hau da, bere hizkuntza literarioaren garapenari so egin nahi diogu berarentzat funtsezkoena izan den saiakeragintzatik bertatik ikusita, alegia.

Horrexegatik hemen eskaintzen dugun Txillardegiri buruzko lanak gehiago joko luke saiakeraren historiaren alde-
ra ohizkoak dauzkagun hurbilketa ideologikoetara baino. Planteamendu berria, beraz, dagoeneko egiten hasiak diren beste zenbait azterketekin erkaturik.

Hala eta guztiz, hutsuneak azaltzen baldin badira, edota zenbait akats nabarmenduko balira... gaiari emandako tratamendu berriagatik izan daitekeelakoan nago eta ez zaio leporatu behar Txillardegiri berari bere ikerlaria naizen honi baino.

I.- Txillardegi/Sartre

Txillardegiren saiakeragintzaz aritzerakoan bere idatz tankeran funtsezkoa izan zitzaion J.P. Sartreren itzalari erreparatu behar diogu...

«Il n'est pas nécessaire de souligner l'importance de la fonction d'une langue standard consistant à affirmer l'identité d'une communauté linguistique c'est en développant sa propre langue standard qu'une communauté parlante, de dialectale, devient linguistique et se distingue d'une autre communauté linguistiquement apparentée et/ou politiquement dominante» zioen Paul Garvinek (1986). Txillardegik horri kasu egin zion euskara batuaren beharra proposatzerakoan eta, 1968a baino lehenago ere, euskara literario berria *avant la lettre* erabili zuen. Honetan ere, eskerrak Txillardegi bezalako pertsonaia historikoak badauden egon, zeintzuk, 2012. urte hone-

tan ulertzen zaila izan arren, Euskal Herriaren zatiketari aurre egiteko baliabideak nahiz gaitasunak metatu dituzten, herri hau egin duten erresistentzia/diferentzia praktikak indartzen lagundu izan dutelarik.

Txillardegiren lanak –euskal hizkuntzaren batasunaren inguruan eta Euskal Herria etimologikoki euskaradunen herrizat hartuta– iraupeneako estrategia desberdinen aukerak zabaltzen nabarmenki lagundu du.

Euskal kultura «kultura kolonizatuztat» definitzea debate askotako eztabaidagai izan bada ere, hemen egiten den aukeraren ildoaren erreferentziatzat har bitez Gisèle Halimiren *Le procès de Burgos* liburuaren (1971, Galimard, collection temoins, Paris) hitzaurreko J.P. Sartreren hitz inola ere ez partzialak ez susmagarriak.

«...*Si colonie il y avait, ce paradoxe que le pays colonisateur serait pauvre et surtout agricole au lieu que le pays colonisé serait riche et qu'il offrirait le profil démographique des sociétés hautement industrialisées*»; paradoxikoki, Euskal Herria «herri kolonizatuen» artean sailkatzeko aukera egiten du, aukera hau hizkuntz/kultur eremuan oinarrituz: «*La majeure partie des millions «rendus» vont aux organes d'oppression (administration espagnole où espagnolisée, armée d'occupation, police, tribunaux. etc...) ou débasquisation (l'université où l'on n'enseigne que la langue et la culture espagnoles.*»

Egoera hau gainditzeko moduari buruz, Sartrek berak ere Albert Memmiren lanetan bilatu zuen euskarria eta, autore honen *Portrait du colonisé* liburutik hara aipu eginenez, honako hau ondorioztatzeko erabili zuen, hots, kolonizazioari buruz kolonizatua bakarrik mintza daitekeela behar bezalako sakontasunez, zeren, beti ere haren argu-

diatzeari jarraituz, kolonizazio kulturala kolonizatzaileek sekula izan ez dezaketen bizi esperientzia delako.

Aurrean esan dudanez, hauxe izan zen Txillardegiren lan-ildo. Eta kasu honetan, ildo honek euskal hizkuntzaren batasunaren gora beherak eta ondorioak azaltzera eraman zuen, euskal kulturaren eta Euskal Herriaren batasunaren bidean funtsezko pausua berau.

Jarrera konprometitu honen atzean egon da, dudarik gabe, J.P. Sartrerekiko atxikimendua. Txillardegik berak aitortu izan du hori bere saiakeretan:

«Lehenengo mailako idazle izan zenak arrasto sakona utzi du zenbait alorretan. «Ecrivain engagé» baten izena eskatuz gero («idazle engaiatu edo konprometitu» euskaraz), askok eta askok Sartre hautatuko lukete Europa osoan.

Baina gure herrian, iruditzen zaidanez, eta beste batzuetan ere erreplikatu dudanez, arrotz dago oraindik, ezezagun. Sartrek Euskal Herrian ahanztura hori besterik mereziko ez balu bezala.»¹

Baina, ausartu nintzateke esatera, euskaldunok ez genuen inongo Sartreren beharrik Txillardegi genuelako, hain zuzen ere. Hau da, Sartrek berak adierazterik ezin zuen «kolonizatu kulturalaren esperientzia» azaldu zigun Jose Luisek euskaraz. Senezko saiakeragile moduan azaldu ere. Txillardegik bere iritzia pertsonala eman digu beti, era argian bezain fundatuan, bere kosmoserako bidea irekiz:

«Neronen iritzia azaldu badut ere, liburu funtsezko batzuen berri ere ematen dut bertan. Batzuetan bibliografi ildoan kokatu naiz, baina ez zait bide hoberik bururatu. Denbora izan banu

¹ Txillardegi (2007) *Horretaz*. 9.or.

bestela egingo nukeen. Baina besterik ezean, hau bederen eskaintzea bururatu zait.

Liburu hau eskaini nahi nieke, beraz, giza arazo nahasiak beren haragi eginik ere, Kosmosaren eskeratasun misteriotsuak pentsakor uzten dituen guztiei.»²

Hala ere, Txillardegik bere testu literario batuzaleak argitaratzen hasi zenean, Espainiako estatuan «gerra zibila» deritzonetik 20 urtera (Euskaltzaindiaren planteamenduak 1956ko Arantzazuko Batzarra) hizkuntz batasunaren premia planteatzetik urrun zeuden. Arantzazun aurkezturiko txosten guztietarik batek bakarrik helduko zion gai honi. Txillardegik eginak hain zuzen,aldi horretan erbestera izan zuen idazlea berau, eta gero, ikusiko dugunez, funtsezko garrantzia izango duena arazo honen konponbidean. Idatzizko sorkuntza modernoak, hala ere, gero eta batasun-premia handiagoa zuen. Horregatik Gabriel Aresti idazle eta poetak, 1958an, hitzartze publiko sonatu bat izan zuen bizkaieraz probokazioz, erregistro dialektalak publikoan eta bereizi gabe erabil-tzeak azaleratzen dituen kontraesanak argitara ateratzeko. 1959an, aitzitik, bere *Maldan Behera* poema publikatu zuen, non bederatzi urte geroago euskara batutzat hitzartu zen euskara-mota aurkitzen dugun.

Lehen aipatu dugun inflexio gunea kultur planteamendu tradizionaletik apurketa batean datza, hots, literaturari dagokionez historikoki erlijio katolikoaren nagusitasun-al-dian eta historikoki Eusko Alderdi Jeltzalearen aitzindari-tzapean izandako planteamendu tradizionalen eta ETAre fenomenoaren inguruan garai honetan agertzen diren na-

² Ibidem 7.or.

zio-askapen eta kultur modernizazioko planteamenduen artean gertatu zen apurketan.

Prozesu honetan, jakina, beste elementu batzuk ere badauden arren, dudarik gabe esan daiteke bertan aurki daitekeela hain fenomeno konplexua ulertzeko modua eskain dezakeen kontraesan nagusia.

1960an gero euskaltzainburu izango zenak, Jean Haritschelarrek, hango kide arrunta izateko kargua hartu zuenean Baigorriin, orduan presidente zen P. Lojendiok gipuzkeraz egin zion ongietorriko hitzaldia. M. Lafontek zubereraz aurkeztu zuen euskaltzain berria, eta sarberriak behe-nafarreraz eman zuen bere lehen maisu-lekzioa. Euskaltzaindiaren jarrera publiko honek, geroago, P. Xarriton eta Txillardegi euskaltzain urgazleen dimisioa eskatzea ekarri zuen.

Hari berean, 1963an, Baionan «Euskal Idazkaritza» zeritzona hasi zen biltzen eta, euskalki guztietako ordezkari osatua, euskal aditza batzeko lan neketsuari heldu zion.

Beste talde eta pertsona batzuek ere erreferentzia gune diferenteetatik fin esku hartu zuten euskaldun guztien premia honi aterabidea emateko proiektuan. Azpimarratu beharrekoak dira Mirande eta Peillenen arestian aipatu lanak Parisen, X. Kintana, G. Aresti eta I. Berriatua-renak Bizkaian, eta halaber *Jakin* entsegu aldizkariarena Gipuzkoan eta jeneralistagoa zen *Anaitasuna*rena Bizkaian.

Talde berri hauek guztiek nazionalismo tradizionalaren hegemonia arriskuan jartzeak hizkuntz batasunaren kontrako erreakzioa eragin zuen. Batasun honen azterketa, nahiz eta egiten hasia eta aurreratua, oraindik egiteke zegoen, baina, azkenean, Baionako batzar teknikoan emaitza

kontsentsuz onartu zen hiri hartan abuztuaren 29 eta 30ean egin zen batzarrean. L. Mitxelena euskaltzain eta itzal handiko hizkuntzalariak bere gain hartu zituen oinarritzko akordioak, Euskaltzaindiari aurkezteko (*Euskera* '1968', 139, 205, 206 eta 216 or.).

Baina erabakiak atzeratuz zihoazen eta euskal literatura berriaren ordezkari ezagunenak Ermuan batu beharra izan zuten 1968ko 28, 29 eta 30ean, eta literatur hizkuntza komunaren alde «zin egin» beharra izan zuten.

Euskaltzaindiaren «urrezko ezteien» ospakizunaren inguruan heldu zitzaion behin-betiko gaiari. Honen ondorioz, 68ko udazkenean erabaki ziren hizkuntz batasunerako oinarriak, abiagunetzat L. Mitxelenaren lana hartuz. Honek Baionako akordioak (1964) eta Ermuko arrazoiak (1968) jasotzen zituen.

Gorago esan bezala, nazionalismoko talde tradizionalen presioa, lokalismoaren ordezkari nazio-kontzeptu modernoak zekarren hizkuntz batasunaren kontra zegoen.

Espainiar eta frantses «inteligentsiak» ez zuten sekula begi onez ikusi Estatu bietan mintzatzen zen hizkuntzaren batasuna.

Eta honek ekarri zuen «euskara batua» hasiera batean erdeinatua eta jazarria izatea, kultur ezarrera handiko planteamendu zenbaiten aldetik. Urte horietan euskaltzainburu izan zen M. Lekuonak berak ere ez zituen betetzen Euskal Akademiak batasunari buruz jarritako arauak, honek gatazka franko zekarrelarik. Presioak hain izan ziren handiak, non Euskaltzaindiaren bilera batean (Bergara, 1978) lehenago hartutako erabaki batzuei kontra egiteraino heldu zen, era honetan horretarako lan egin zutenengan ondoeza sortuz, baina nazionalismo tradizionala konforme utzita, nahiz eta

honek, hala eta guzti ere, batuaren kontrako bere borrokan segitu zuen.

Dena den, bi lan izan dira erreakzio horiek nahi zuten ondoriorik ez izatea lortu dutenak. Aurka egite horiek eta polemikak oraintsukoak diren arren, euskara batua errealitate eztabaida ezina da. Horretarako ekarpen handia egin dute alde batetik 68az geroztik buruturiko helduentzako literatur lanak eta, bestetik, testugintza pedagogikoaren garapenak.

Kasu biotan gizarte-mugimendu indartsuak aurkitzen ditugu, nazionalismo tradizionalak jarritako trabak gainditzen jakin izan dutenak, hala eremu ideologiko/linguistikoa, hemen azaldu den bezala, nola instituzioen aldetiko traben eremuan.

Ezin daiteke uler ez eztabaida linguistikoa ez euskara batua egun duen sustraitzea, baldin nazio-kontzeptu modernoaren inguruan bildurik erregistro dialektalen erabilera publikoa abolitu/gainditu duen presio sozialarekiko erreferentzia saihesten bada. Asko dugu oraindik egiteko, baina Euskal Herriko zazpi lurralde historikoetan erabiltzen den hizkuntza, normalkuntzarako joeraz literatura sortzen duen hizkuntza da. Pirinioez haraindiko eta hemendiko euskal hiztunek literatura bera dugu geure hizkuntza³ eta, bide horretan, Txillardegiren jarrera aitzindaria izan da .

2.- Hizkuntza literarioaren aldarrikapenetik praktikara

«Euskal soziolinguistikaren lehen urratsak berak eman zituen. Uste dut euskararen beharretik ekarpenak egiten zituen gizona izan zela Txillardegi, marketin instituzionalaz harago. Adorea zuen, bai horixe, baina bere adorea ez zen bulegoan geratzen

³ Txillardegi (1978) *Euskal Herritik erdal herrietara*

zen horietakoa, kalera ere irteten baitzen, salatu behar zenean salatzeo, baina beti modu eraikitzailean.»

Juan Mari Torrealdaik, liburuen soziologoak, *Jakin* aldizkariko zuzendariak eta euskaltzainak adierazitakoaren arabera, gainerako euskal saiakeragileok Jose Luis Alvarezek irekitako bidea segitzea besterik ez dugu egin :

«Txillardegi gauza asko izan da eta gauza berri askoren abiapuntua izan da: Euskal Herri berriaren abiapuntuan egon da, euskaltzaletasunean, herriaren abiapuntuan... eta gero nobelagintzan eta euskara batuaren abiapuntuan ere. Hitz batean zaila da laburbiltzea zer izan den, baina esango nuke distantziarekin bere irudia handituko zaigula. Nik beti izan dut etxeko anaia zahar bat izango balitz bezala, beti aitzindari; guk beti bere ildotik jarraitu dugu.» (Gara, 2012/01/16).

Makina bat saiakera eskaini zion euskararen gizarte «statusa» aztertzeari: *Hizkuntza eta pentsakera* (1972), *Sustrai bila*. Zenbait euskal koropilo (1970), *Euskal Herritik erdal herrietara* (1978), *Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981* (1984), *Soziolinguistika matematikoa* (1994) eta, bereziki *Euskararen aldeko borrokan* (2004).

Ez zituen bakarrik euskara batuaren aldeko proposamenak egin. Ez zuen bakarrik hizkuntza literarioari kontsentsuko bidea eskaintzeko borroka egin Euskaltzaindiaren barruan eta kanpoan. Euskararen erabilerarako eredu izan zen bere eguneroko praktiketan. Tokian tokiko historia entseguak idazterakoan, adibidez *Antigua 1900* (1991) eta *Santa Klara, gure uharte ezezaguna* (2004), euskara ere erabili zuen.

3.- Entsegu literarioa

1965ean *Huntaz eta hartaz* argitaratzean aurrerakada nabarmena eman zion Txillardegik euskal saiakerari, euskara

gai guztiez aritzeko baliagarria zela frogatzerakoan. *Horretaz* (2007) kaleratzearekin bere Jean Paul Sartrearekiko lotura eta Galiziari eta Rosalía de Castrori, agian lehendabiziko poeta existentzialistari, zion maitasunaren berri ere eman zigun.

Horretaz gain, inperialismoak Ameriketako burututako kultur genozidioa, giza aberearen eboluzioa, jainkoaren eta antropozentrismoaren kritikak eskaini zituen saiakera estiloan... Hona hemen lagintxo bat:

«Nondik etorri da gizakia? Norat ari da gizadia? Zein izan dira gure arbasoak?

Nork ez dizkio bere buruari galdera hauek egin? Edota antzekoak? Nik neuk ere bai. Noski. Eta neure entsegu bilduma xume honetan zerbait kontatzea iruditu zait bidezko.

Zerbait irakurri dut alor horretan aspaldidanik.

Baina, liburu honetako gainerako ataletan bezala, kanpotik begiratzen duen lekuko jakinmina besterik ez naiz izango.

Nire mezuak lekukotza dakar, eta kezka ere eragingo du, agian. Sakondu nahi duenak espezialistetara jotzea dauka. Puntuak jartzea dagokit bakarrik. Bertsoa... bestek burutuko.»⁴

Parragrafo honek, bere saiakera guztiek bezala, ikuspegi existentzialista barraitu zuen euskal letretara. *Leturiaren egunkari ezkutuan*, Unamunoren itzala eta orduko europar jite ideologikoak etorri ziren gure literaturara, Txillardegiren bitartez.

Peru Leartzakok (1960), bigarren eleberria izanik, ez zuen *Leturiaren egunkari ezkutuak* besteko osperik erdietsi baina badu, eduki, goian aipatutako kultur giro europarraren isla ere:

⁴ Txillardegi (2007) *Horretaz*. 107.or.

«Kanposantuan sartu nintzan. Kristaurik etzan han. Hillarriak errenkada luzetan. Hango pakea urragarri zitzaidan: Han-hemenka, hillarrien tarteetan, belar-izpi batzuk. Hezea zegoen hura oraindik, negarrari utzi berria balitz bezela. «Emen datza»...«Emen datza»...«Emen datza»...Ahaztuta han.Are gehiago:jendeak alde eginda.»

Heriotzari buruzko kezka, budismoaren berri ematea e.a., euskal literaturan geroztik gero eta gehiago agertu diren gaiak izan badira ere,Txillardegirengan dute abiapuntua.

Elsa Scheelen (1969): «Irratia anartean berriak ematen hasia zan:«...Viet Nam'en ikaragarrizko inkontrua gertatu da atzo Mekong'eko ibaiartean:

382 vietnamdar gertatu dira hillik; eta, beste aldetik, 17 amerikar. Orain arte ez zan horrelako hilkintzarik ikusi Viet Nam'en egun bakar batean; eta, jakin danez...»

Vietnamgo gerratea, laizismoa eta batez ere marxismoa agertzen dira lehenbizikoz euskal narrazio batean. Egun, orduko orriak berriz irakurrita, euskara batuaren aurreko idazkera batua sumatzeaz gain, idazkuntza erabat moderno antzematen diogu testuari.

Eta gero, *Haizeaz bestaldetik (1979)* dator non, istorioak gora-beher, Txillardegi bera den azalarazten zaigun pertsonaia nagusia.

Ez dugu ahanzi behar, normalki fikzio lanen artekotzat jotzen dela *Kosmodromo (1984)* ipuin-liburua. Baina, aurretantzean frogatzen saiatuko naizen moduan, hauek guztiak saiakerak dira berez.

4.-Txillardegi saiakeragilea:

Saiakeren idazleak, pertsonaia literarioa bailitzan, kemena behar du entsegugintzan aritzeko.

Kuraia behar baita norberaren iritzia idazketaren bidez finkatzeko, azaltzeko eta defendatzeko.

Halere, saiakeren idazleak, dogmatismotik ahalik eta urrunen, ez du bere idazkia monologo gisa garatzen, azalezko hurbilketa batean kontrakoa iruditzen arren. Horrela izan da Txillardegiren jarrera literaturan, politikan zein bizitzan. Akademiaren aurrean edo Estatuaren kontra, salaketa garaian edota proposamenak gauatzeko orduan.

Saiakerak, J. Derridak deitzen zuen «bestearen monolinguisismoa»⁵ apurtzen laguntzen du. Ezaguerak, berez, partekaturik behar baitu izan, eta saiakerak, idazkera polemikoaren bidez, irakurlearekiko elkarrizketa bilatzen du, kementsu eta bipila. Ausardia behar baita idazkera monologikoak berak bakarrik ez duela gogoetarako aukerarik ematen onartzeko. Era berean, pentsamendu askea sortzeko, Akademiatik kanpoko eztabaidak eta saiakerak, idazketak eta irakurketa zaharrak modu berrian berreskuratu behar ditugu, eta idatziz hori guztia defendatzeko atrebenztzia beharrezkoa da.

Bide batez, pentsatzeko erabili ohi ditugun hitzak ez direla gureak jakin arren.

Gure hizkuntza ez dela orain aldiko bakarrik dakigunetik, esanahi bakoitzak bere historia duela jabetzen gara. Beraz, gure esanak, lehenaldikoak bezain orainaldikoak diren neurrian, bizi behar dugun oraina ulertzeko balio behar dute, une eta toki guztietarako, nonahirako eta noiznahirako, balio ez duelako, hain justu.

Saiakera iritzi duina dela esan berri dugu, «duintasun» kontzeptuak grekozko dokein (itxura) eta doxa (iritzia)

⁵ Derrida, J. (1996) *Le Monolinguisisme de L'autre ou La Prothese D'origine*. Galilée

batu egiten baititu. Hau da, iritzia emateko euskarria (guri dagokigunez, hizkuntzak) itxurazkoa izan behar duen hein berean, funtsezkoa izaten da irizpidea plazaratzeko kemena ere. Aburu polemikoak eta norberaren usteak dira saiakera egokien oinarri eta. Edozein gizataldean, edonon, edonork, egin dezakeena baina, bakar batzuk, Txillardegik kasu, egiten ausartzen direnak.

Hau da, bere testuen ikerketatik abiatu, mundua aztertzeko modu duin bezain pertsonala aurkitzen dugu, eta bereziki, literaturaren bidez, giza bizitza ulertarazten lagunduko digun ekimena.

Illo horretan Txillardegiren saiakeren irakurketak, haren idazketa ezagutzeak zein hari buruzko testu iruzkinak, bide berria lantzeko aukera irekiko du euskal eskolan.

Eta entsegu testuak sortzeko, berriz, norberaren eskarmentutik eratorritako iritzia behar bezala azaltzeko, gogoetagaia da funtsezkoena. Hori, eta duintasunari muzin egin gabe, berau garatu ahal izateko taxuzko hizkuntzari kasu egitea ere, horretan Txillardegik bera eredu izan dela.

Gogoeta sortzeko sistema horixe dugu, nonbait, Montaignek berak *Entseguak* idazteko erabili izan zuena. Izan ere, horrek kutsatu zuen okzitaniarra eszeptikoen leloaz —«zer dakit nik» (Que sais-je?)— eta bultzatu zuen bere hausnarketak izkiriatzera, berrirakurtzera eta, haien gainean, iruzkinak eranstera. Hauxe izan da, gurean, Txillardegik erakutsitako aldartea eta landutako estiloa, non saiakera literarioa ere berritzen duen. *Huntaz eta hartaz* (1965) argitaratuz geroztik mota guztietako bideak hartu zituen entsegugintzan baina, batik bat, Jean Paul Sartre, Edgar Morin eta Bertrand Russell pentsalarien itzala nabarmentzen da bere ekarpenean. *Hizkuntza eta pentsa-*

kerakera (1972) ez da saiakera literarioa, gogomenari buruzkoa baizik eta, gaur egungo planteamenduetatik behintzat, aski gaudituta dagoena. Hala ere goian aipatutako gaurkotasuna nahiz ausardia erakutsi zituen. Gauza bera *Euskal Herritik erdal herrietara* (1978) liburuan, zeinean aldezturik aurretiko izkribuak bildu arren, orduko erreferentzi ideologikoen berri eman zigun.

Filologia Parisen ikasi ondoren Bartzelonako Unibertsitatean burutu zuen Doktoregoa eta AEBetan egonalditxo bat egin. Ikasketa/ikerketak haien ondorioak dira *Euskara batua zertan den* (1974), *Oinarri bila* (1977), *Euskal gramatika* (1978), *Euskal Fonologia* (1980), *Euskal Dialektologia* (1983) eta *Euskal azentuaz* (1984) zeinetan hogeitun urte lehenago euskara literarioaren baterakuntzan erakutsitako adorea eta jakinduria euskara mintzatuaren erronkaren aurrean berriro ere azaldu zituen.

Frankismoan, halere, eta hasieran euskaltzainburua zen Azkueren itzalpean, Federiko Krutwigek (1921-1998) irauli zuen ordura arteko euskal pentsaera eta, Txillardegirekin eztabaidan betiere, euskal gogamen berria sortu zutela esan daiteke. Krutwigek Bilbon, Bonnen eta Parisen ikasi zuen. Larramendiren, eta batik bat Mogelen, miresiriko kultura naturalistaren alde ibili beharrean, bide berriak ireki zituen euskal izaerari buruzko hausnarketetan. Mogelen iturri hartatik (Peru Abarkaren irakaspeneetatik...) edan zuten apologistek, euskaltzaleek eta nazionalistek, Krutwig eta Txillardegi agertu arte behintzat. Hauek metropolien aurkako XX. mendeko deskolonizazioaren teorikoak ezagutuko zituzten (Memmi, Sengor, Lumumba, Gevara...) eta kultura menperatzailearen eta menperatuaren arteko dialektika modu berri bat ekarri

euskal gogoetara. Euskal Herria ulertzeko hausnarketa berri honek *Vasconia* (1963) liburua zuen erreferentzia garai hartan.

Federiko Krutwig ez zen naturalista ez eta populista ere, euskal kultur elitearen premia aldarrikatu zuena baizik. Euskaltzaindian onartua izateko eliza katolikoren jarrera atzerakoia kritikatu egin zuen sarrera hitzaldiagatik joan behar izan zuen erbestera 1952an. Hizkuntz batasunaren irizpideak finkatzeko egindako saioetan (1968) ez zuen onartu nahi izan garbizaleen bidea (Aranaren aldeko ikuspegi nazionalista), ez eta Azkueren antzera gipuzkera osatua proposatzen zuen pragmatismoarena ere (geroago Txillardegik defendatuko zuena). Lapurtera literarioaren alde borrokatu zen beti. Bere ibilbide intelektuala gizarteratu nahian hamaika liburu, saiakera, prentsa artikulua eta elkarrizketa kaleratu zituen: *Praktikaz* (1968), *Garaldea* (1978), *Ekhaitza* (1980), *Mystagintza zaharra* (1982), *Jakintza baitha* (1982)...

Ildo honetatik baina, era berean, Krutwigekiko lehian dago Jose Luis Alvarez Enparantzaren pentsaera. Baina Txillardegik ez du, Krutwigek bezala, euskal kultura nekazal kulturarekin inola ere parekatu nahi izan. Aitzitik, Unamunoren antzera, existentzialismoaren ikusmoldea erabili izan du euskal izaeraz pentsatzeko. Bere lehenengo idazlanetan bizitzan egin beharreko hautuez, denboraren joan-etorriaz edo irtenbidea aurkitzerik ez daukaten pertsonaiez ari da (*Leturiaren egunkari ezkutua*, *Peru Leartzako*, *Elsa Schellen*, *Haizeaz bestaldetik*). Heldutasunean eskematismo politiko hertsiago batez aritu izan bada ere (*Exkixu*, 1988; *Putzu*, 1998; *Lapartzari agur*, 2005...) haren ekarpen guztietan sinbologia berriak eta estilo modernoak etengabe eskaini ditu.

Hizkuntzalaritzaz zein kulturaz ere aritu izan da (*Sustrai bila*, 1970; *Hizkuntza eta Gertakarien lekuko*, 1985...) eta denak politizatu egin dizkigu euskal intelektual gisa. Jarrera hori zabaldu nahian, gainera, kultur eragile nekagaitza izan dugu. *Branka* aldizkariaren sustatzaile bezala eta Udako Euskal Unibertsitatearen kide gisa, euskal pentsamenduaren garapenean funtsezko uztarria izan zen.

Euskal heziketaren mundura Txillardegik egindako ekarpena ezin da, beraz, jakintza-arlo berezietara (hala fonetikara nola soziolinguistikara) soilik mugatu. Aitzitik, Txillardegi hezitzaile gisa zer den konturazteko, hezkuntza-arloan bertan intelektual modura aztertu behar dugu, ezinbestean. Irakaskuntzari buruzko proposamen garaikideak teknikariaren irudia hobesten du, irakasleria-
ren gizarte-inplikazioa baztertuz. Txillardegik, berriz, hezkuntza eta hizkuntza politizatu egin dizkigu, intelektual gisa. Horra hor bere funtsezko ekarpena hezkuntza-harremanen mundura.

Izaera kaleidoskopikoa izan du Jose Luis Alvarez Enparantzak. Joan Man Irigoienek famatu zituen poliedroen hostoen antzera, hamaika aurpegi dituen pertsonaia da. Liburu honetan haietariko batzuk azalarazten direnez, aberriaren aldarrikapenarekin loturik daudenak agertzea suertatu zait. Politikagintzan edo ideologian, eleberrigintzan nahiz literaturan oro bar, hizkuntzalaritzan edota soziolinguistikan bereziki... berak erein, hazi eta hedaturiko uztak nabarmenak ditugu oso. Pedagogiaz, ordea, ez du gauza handirik idatzi nahiz eta Deuston, Udako Euskal Unibertsitatean, UPV/EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, BAT soziolinguistika aldizkariaren zuzendaritzan edota Euskal Herrian zehar emandako hamaika eskoletan bere irakasle gaitasuna ederki

erakutsi. Hala ere, gauza pare bat azpimarratu nahiko nuke nik Txillardegi eta pedagogia elkarrekin lotzerakoan.

Alde batetik, bere izaeran eta historian euskal intelektualaren ezaugarriak nabarmentzen diren legez, eskola emateko garaian ere hezitzailearen rola intelektualaren ereduarekin lotu izan du beti, niretzat egun jada ahaztua baina funtsezkoa zai-gun hezkuntza-jarrera erakutsiz eta, *de facto* edota errealitatean, intelektualaren irudia aldarrikatuz heziketan.

Bestetik, hizkuntzalaria eta fonologoa izanik, maisutza-lanetan kasu egin dio aspaldidanik kezkatu nauen arazoari: ahozkotasanaren eta heziketaren arteko binomioari.

Izan ere, Txillardegiren nortasun publikoaz aritzerakoan bi ardatz dauden arren (bizierak eta idatziak), eta bereziki bigarrenagatik ezaguna bada ere, bere bizipenek baldintzaturiko idazkiak ditugu bizitza osoan zehar berak izkiriaturakoak. Euskaltzaindiko liburuzaina den Pruden Gartzia oñatiarrak bildutako Txillardegiren milaka artikulua, ehunka saiakera eta dozenaka liburu haien atzean, Jose Luisen bizitza dugu beti, eta, nabarmenki, ezkutatu gabeko bere hautu politiko eta intelektualak. Horixe da ekoitzitako literaturaren sorburua, berea izan baita euskal letretan besteengan nekez aurki daitekeen literatura modernoaren aitzindaritza.

Berak borrokatu du gurean, agian, inork baino gehiago etnozentrismoaren eraginaren kontra, horretan eredu izanik. Idatzitako guztian, genero literarioa edozein izanda ere, idazkera «diferentearen» jabe izan da beti.

Différance latinezko «differre»-tik eratorritako hitza du-gu eta desadostasuna (polemos/diferentzia) ulertarazteko baliagarria da. Idazketa polemikoetan eta iritzietan egunerokotasunak sortu ezin dituen eztabaidak plazaratzen dizkigu, saiakera duinen bidez. Idazketa horiek, oinarrian, idazle ba-

koitzaren biziperekin (bizipen literarioak barne) lotuta doazen proposamenak dira. Idaztea, norbanakoaren bizipena azaltzea den neurrian, ezin da denbora-pasa izan, bizitzarako prestakuntza baizik⁶.

Baina literaturak⁷, arteek bezala, ez du soilik arrazonomendua erabiltzen. Arteak eta literaturak lortzen baitu, nonbait, lotura linbiko atsegina garunaren bi hemisferio ezberdinetan dauden sentimenduak eta arrazoibideak elkartuz⁸. Eta entsegu testuak sortzeko, berriz, norberaren eskarmen-tutik eratorritako iritzia behar bezala azaltzeko, gogoetagaia da funtsezkoena. Hori, eta duintasunari muzin egin gabe, berau garatu ahal izateko taxuzko hizkuntzari kasu egitea.

Arestian esan bezala, saiakerak ez du akademikoa izan behar. Jurgi Kintana historialariak idatziriko «*Urre urdinaren lurrina*» saiakera da, baina bere esperientzia pertsonaletik sorturiko hausnarketa sasi fikzionatu labur eta zorrotza. Saiakera da, oro bat, Tere Irastortzaren «*Izendaezinaz*»¹⁰. Izan ere, Irastortzak, gure literaturako poeta jorietako bat izan arren, izendapenen gaia jorratu zuen, akademizismotik at, bere hizkuntza-jarioari mugarik ezarri gabe eta, gainera, horretarako emaniko datuen aurrean inoiz makurtu gabe. Ildo berekoa dugu Imanol Galfarsoro ikerlariaren «*Kultura eta identitate erbesteratuak*»¹¹ edo Joxe Azurmendi filosofo-

⁶ B.B.A.A. (1958) *Les intellectuels/ la pensée anticipatrice*, in *Arguments*. 9.

⁷ Changeux, J.P. (1994) *Raison et plaisir*. Jacob.

⁸ Changeux, J.P. (2008) *Du vrai, du beau, du bien: une nouvelle approche neuronale*. Jacob.

⁹ Kintana, J. (2008) *Urre urdinaren lurrina*. Pamiela.

¹⁰ Irastortza, T. (2008) *Izendaezinaz*. Pamiela.

¹¹ Galfarsoro, I. (2004) *Kultura eta identitate erbesteratuak*. Pamiela.

aren «*Espainolak eta euskaldunak*»¹². Izan ere, filosofia edo ikerketa sistematikoa baino gehiago, entsegu literario sakon eta bortitzak dira aipatu horiek guztiak.

Badira, ordea, euskal letretan, saiakeragile peto-peto izan direnak¹³. Aldizkarietan, ohi bezala, loratu da gehien haien emana, hala nola *Jakinen*, *Eganen*, *Brankan*... Txillardegirena barne.

5.-Saiakeraegilearen ezaugarriak

Zeintzuk dira, zehatz-mehatz, aipatu testu horiek idazteko ezinbestekoak? Hona hemen: ideia, forma, egitura, estiloa eta trebezia.

5.1.- Ideia

Saiakeraren muina eta bizigaia diren ideiak ez zituen Txillardegik ezkututzen eta, horregatik hain zuzen ere, izan ohi da berak sortutako literatura oro saiakera.

Beste ildo batetik, baina filosofiaren arloan, hura argitu nahian aritu ziren M. Foucault¹⁴, J. Derrida¹⁵ eta G. Deleuze¹⁶. Ideien idazkuntza ikertu zuten, hain justu. Ideiak ez baitira asmakizunak ezta aurkikuntzak ere. Ideia ez da egiaren sinonimoa, zeren norbanakoren hautematetik datorren esperientzia paradoxala dugu ideien iturburua. Paradoxa, jakina den bezala, aurreiritzia, saiakerarako abiapuntua da.

¹² Azurmendi, J. (1992) *Espainolak eta euskaldunak*. Elkar.

¹³ Rodriguez, F. (2005) *Saiakeran saiatzeko gida*. EIE. Euskal saiakeraz hitz bi. 65/100 orr.

¹⁴ Foucault, M. (1986) *La pensée du dehors*. Éditions fata morgana.

¹⁵ Derrida, J. (1979) *L'Écriture et la Différence*. Seuil

¹⁶ Deleuze, G. (1997) *Différence et Répétition*. Puf

Kontzeptuak, ordea, Gilles Deleuzek zioenaren ildotik, gauzak, arloak, mugak, koloreak edo abiadurak izan daitezke. Ez daude inoren buruan, filosofian baizik.

Aitzitik, ideia arazoaren muina dugu: buruhaustea bera. Hura oinarritzat hartzea da ezagutza helburu duen literaturaren egitekoa, «insight» arazoei bide ematea. Idazkera eza-gueraren bidetzat hartzea.

5.2.- Forma edo Generoa

Txillardegiren antzera egin izan dute Dostoievskik edo Saragom literaturan, eta baita Saussurek edo Benvenistek hizkuntzalaritzan: literaturak berak erakutsi ohi duen joeraz gogoeta. Ariketa literarioak, zientziak ez bezala, mundua ulertzeko erabiltzen dugun hizkuntzaren bidezko esanahien berezko bikoiztasunaren berri ematen baitigu (Jakobsonek *shifter-a* deitu zuena).

Honetaz aritu zen Roland Barthes testu literarioaren aldarrikapena eaginez, zientziaren ikuspegiari aurre egin nahian. Pentsamenduak ezin baitira adierazi adierazteaz pentsatu ezean eta, ondorioz, nahi dena iragarri ahal izateko, idazketaren garrantziari ere, adierazteari buruzko gogamena garatzeko balio duen neurrian, kasu egin behar zaio.

Beraz, idazten duenaren eta idazlea den gizakiaren arteko bikoiztasuna eta distantziamendua lantzen duen «ariketa aliterarioa» saiakera da.

Idazketaren forma berezi honek, hala «niaren osagarriez» nola «bestearen gehigarriaz» hurbilketa linguistikopedagogikoa egin ahal izateko balio digu¹⁷.

¹⁷ Aebly, S. (2010) *La figure de l'autre dans les régulations locales*, in Scheneuwly&Dolz. *Des objets enseignés en classe de français*. Pur. 175-185.orr.

Baina ez da ahaztu behar, linguistikoki bederen, edukirik gabeko literatur formak gauzatzerik badago ere (Flaubert zenak horixe egin nahi zuen hain zuzen ere), formarik gabeko edukiak besterenganatzerik ez dagoela¹⁸.

Jakin badakigu literatur generoak¹⁹, testuen sailkapenen araberako diskurtso mota ezberdinak besterik ez direla, eskolak²⁰ landutako eredu didaktikoak finean.

Horregatik idazle bakoitzak hartu beharko lituzke bere idazkiak beste norbaiten izkribuak balira bezala, erabiltzeko, aipatzeko edota berregiteko.

Literaturari buruzko gogoetak esanahien sistemaz hausnartzea eskatzen du, ezinbestean, hizkuntza baita, beti, gogoetagai dena. Eta halaxe izan da, bistan denez, Txillardegirengan.

5.3.- Egitura

Saiakeraren idazkuntza, berez, irakurketa esanguratsuaren eragilea da. Zentzu berriaren bila esanahia aldatuz doan testua dugu entseguaren egitura.

Eguneroko bizitzak edonori etengabe eskatu ohi dion iritzia duina idatziz adieraztea da entseguaren funtsa. Arestian esan bezala, askotan, saiakera filosofiarekin bide beretik badoa ere, ezin esan daiteke filosofiarekin guztiz bateragarria denik.

¹⁸ Sloterdijk, P. (2010) Si tant est que, s'il peut exister une forme sans contenu, on ne peut imaginer en revanche de contenu sans forme, in *Le Magazine Littéraire*. 496. 99. or.

¹⁹ Bakhtine, M. (1984). Les genres du discours, in *Esthétique de la création verbale* (265-308. orr.) (A. Aucouturieren itzulpena.), Paris, Gallimard. (jatorrizkoa 1979koa)

²⁰ Philippe G. et Piat, J. (dir.) (2009). *La langue littéraire. Une histoire de la prose en France de Gustave Flaubert à Claude Simon*. Fayard.

Denizot, N. (2009). Des «textes anciens» aux «textes fondateurs» en classe de sixième: enjeux socioculturels d'un corpus scolaire, in B. Daunay, J. Delcambre et Y. Reuter (dir.), *Didactique du français. Le socioculturel en question* (85-96 orr). Presses du Septentrion.

Ikerketa filosofikoak, besteak beste, xedea edo ikergaia argi eta garbi mugatuta eduki behar du. Horren arabera, ezinbestekoa da zeregin horretarako erabili beharreko metodoak ere guztiz zehazturik egotea. Eta gainera, premiazkoa izaten da ondorioak orain arte zientziek emaniko emaitzekin alderatzea ere, ondorio horiek ontzat eman ahal izateko²¹ ibilbide epistemologikoa agertaraztea.

Saiakeraren ezaugarriak, berriz, guztiz bestelakoak dira. Filosofiaren idazkerak zehaztasuna eskatzen du helburu zein metodologian; eta, aldiz, entseguak malgutasuna nahiag du²²: esanahien etengabeko aldaketa, goian esan bezala. Txillardegi irakurri duenak badaki zertaz ari garen.

5.4.- Adierazteko modua

Gutxi dira, Txillardegiren modura, idazle bihurtzen duten idatz grinaren bidezidorra aztertzeko bere literaturaren esparrua eskaini izan dutenak. Berak erakutsitakoa baliagarri suertatu zaigu, esate baterako, azaldu ahal izateko zeren bidez ikas daitekeen idazkuntza literarioa eta, ikastekotan, zeintzuk lirartekeen horretako ereduak eta ibilbideak (*Huntaz eta hartaz* zein *Horretaz* saiakerak).

Jakin, badakigu, gauzak ez ditugula ontza jo gustuz ederrak edo onak direlako, alderantziz baizik. Hau da, gustagarritzat hartzen ditugun neurrian eder bihurtzen ditugula. Eta halaxe da etikan eta estetikan. Beraz, bizitzan gustatzen zaigunaren irudia da estetika. Ez dugu, bada, jakintzaren arlo soltea, etikarekin batera doan jarrera baizik. Nolabait adie-

²¹ Ikus Bengoetxea, J.B & Txapartegi, E. (2004) Idazlan akadedemikoa: aholku metodologikokak, in *Filosofiako Gida*, op.cit.

²² Bruner J. (1991) *Actos de significado. Más allá de la revolución cognitiva*. Alianza. Madrid

razia, ona denak ederra behar du. Baina, alderantziz ere esan genezakeen: bikaintasunak ez duela zerikusirik morallarekin, aitzitik, inor gustagarria izan daiteke eta, era berean, gaiztoa izan oso.

Baina, aldiz, ezer irakatsi behar ez dela esatea ez da zilegi. Besteak beste, hori ere ez baita posible, bizitzan ezin delako bizi ezer ikasi gabe. Areago, gehienetan, konturatzeko ikasten ari gara etengabe. Korapilo honen berri ematen digu Txillarrek bere eskaintza literarioan.

Derridak *Le monolinguisme de l'autre* argitaratu zue-nean (1996an) telebista eta psikoanalisi kritikatu zuen modu bertsuan, hizkuntzan betidanik eta betirako aurkitu daitekeen betiereko esanahiaz trufatu zen, idazteko norberaren estiloaren alde azalduz.

Entsegugilea izanik, idazten hasiz gero soilik ez da inor idazle bihurtzen, baina ustezko berdintasun hori, idazlea *versus* irakaslea, azaleko kontraesana besterik ez da. Galderak, bada, beste bat izan beharko luke: sortzaile izateko nola ulertu beharra dago idazketaren ikaskuntza?

Idazten ikasteko eredurik ez badago ere, eta bakoitzaren berrikuntza zertan datzan jakiteko norberaren ikerketa egitea ezinbestekoa izan arren, Txillardegik ahalik eta ondoen idazteko desira eta idazkeran saiatzeko nondik norakoak erakutsi dizkigu. Ekarpen literarioa zein ezagutzarena ez dago gogamen teorikoaren azalpenaren baitan, idazkeraren praktikan oinarritutako adierazpenean baizik.

Ch.F. Ramuz suitzarrak zioenaren antzera:

«J'aie essayé de me servir d'une langue-geste qui continuât à être celle dont on servait autour de moi, non de la langue-signe qui était dans les livres.»

Testu literario guztiek, eta saiakerak bereziki, gertuko hizkuntza bezain beste distantziazko ikuspegia eskatzen dute, errealitateaz jabetu ahal izateko, errealitatearekin hausteko eta, finean, errealitatearen balizko ereduak antzemateko...²³

Hizkuntza pertsonal hori estiloa da, eta horrek ez du esan nahi idazteko ohiko zurruntasun akademikoa erabili behar denik, aitzitik, hizkuntzaren erabilera arrunta baztertzea eskatzen du. Ezin da estiloa irakatsi, baina norberaren adierazpideak askatzen saiatu bai. Hori da erronka eta bide bakarra.²⁴

5.5.- Trebezia

Berriro diot, estiloari buruz adierazitakoa berriz errepikatuz, idaztankera irakasterik ez badago ere, idazten trebatzea eta norberaren idazkera bilatzen laguntzeko ereduak proposatzea, eta erreferentziak aurkitzen ahalegindu beharra dago. Txillardegi hizkuntza literario modernoaren adibide gardena da. Saiatu zen idazten euskara literarioa bera onartua izan aurretik eta, bere idazkuntza lan trebeetan, euskal saiakeragilearen eredu bihurtu zaigu honez gero.

²³ Ricoeur, P (1986) *Du texte à l'action*. Seuil.

²⁴ Philippe, G. (2004) *Flaubert savait-il écrire? Une querelle grammaticale de la littérature française, 1890-1940*

Elsa Scheelen eta genero gatazka

Ander Iturriotz Lauzirika

Modernitatearen soziologia zehatza egiten du Txillardegik *Elsa Scheelen* nobelan. Hain kritika txarrak, hain kritika gra-tuitoak izan zituen literatur sorkuntza horretan, kristautasunaren krisia argudiatzearekin batera, lau borroka garaikide aurkezten baitzaizkigu hari bakar batean: klase borroka, nazio borroka, hizkuntza borroka eta genero borroka.

Gizonen eta emakumeen arteko harremanak kutsatzen dituen genero bereizgoa interesatzen zaigu orain.

Elsa da nobela honetako protagonista nagusia, protagonista bakarra, agian —bigarren protagonista, Pierre, neurri batean, artefaktu bat baino ez baita Elsaren mendeku gogo-arentzat—. Emakumea, Elsa, gizonen gizartearen zampaketa jasaten duen emakumea.

Txillardegiren nobelagintzan agertzen den protagonista femenino nagusi bakarra da Elsa, bestalde, Leturia, Peru, Antton Ezkizunekoa, Putzu, Antton Labartzakoa... Txillardegiren *alter egoa* ez den pertsonaia bakarra, agian¹. Iturria ere exogenoa da: Belgikako erbeste-aldian ezagutu zuen lankide baten istorio pertsonaletik edan zuen autoreak².

Beste emakumerik agertzen da protagonista maskulino nagusien inguruan, noski, baina beti bigarren mailakoak, ia entitaterik lortzen ez dutenak. Agertzen dira, protagonistaren maitasuna sortarazi duten emakumeak, Miren, *Amaia*

¹ Txillardegiren lehen nobelari buruz Mitxelena esandakoa baieztatu egiten da, gure ustez, gainerako nobeletan. Markos Zapiain ez dator bat horrekin, halere (Ikus, *ETAkideen ametsak*, Elkar, Donostia, 2011, 105-106).

² Txillardegi, in Agirre, J.: *Hitza hitz. Txillardegirekin solasean*, Elkar, Donostia, 1996, 146. or.

(edo Axun), Alazne, Garazi, eta, batez ere, protagonisten en-gaiamendu politikoarekin konplize ezinbestekoak diren Ant-ton Ezkizunekoaren izeba eta Antton Labartzakoaren ama-arrebak. Baina, tradizionalak ez ezik, oso paper subsidiarioak dira. *Haizeaz bestaldetik* nobelan hauek ez bezalako emakume indartsu bat agertzen den arren, giro sinbolistik jaten ditu haren ezaugarriak, gorpuztu baino gehiago, irado-ki egiten da.

Elsarekin, ordea, mundua ulertzeko beste ikuspegi bat da-rabil Txillardegik. Existenzialismoak zizelkatu dizkion oina-rrizko kategoriak ez ditu utziko oraindik, baina ezberdinak izango dira baldintzagarriak nobela horretan. *Leturiaren egunkari ezkutua*-n, jainkorik behar ez duen giza aberearen itolarria islatzen duten konstanteak izango dira denbora jo-anorra, bakardadea, aukeratu beharra, nahikunde aseezina-ri, une berean, aurre eta men egin beharra, etsipena... *Peru Leartza'koa*-n, berriz, kapitalismoak dakarren hertsapen produktibistak sortzen duen larritasuna gehitu behar zaio, berez zorabiagarria, eutsiezina bilakatu den giza abere moder-noaren existentzia sakonari. Elsarekin, ordea, kategoria horiek guztiak unibertso femenino bati lotuko zaizkio, eta eraldatu egingo da haien logika: esaterako, Leturia eta Perurentzat den-bora azkar badoa joan, Elsarentzat geldo dabil, ibili, bizitzaren erreka barea —batzuetan behera, beste batzuetan gora—.

Gizonen munduan hertsatuta bizi den emakume horren itolarri *sui generis* hori aztertu nahi dudanez, aurreko nobe-letan garatzen diren kategoria nagusiak ekarri beharko di-tut, lehendabizi —modu mugatuan, beti ere, emakume baten itolarria ulertzeko emakume izan beharko bailuke batek; generoaren antropologiatik, gorpuztaren bizipene-netatik erdietsi, ikuspegi femenino hori—.

Asko aztertu du kritikak existentzialismoak Txillardegiren lehen nobelagintzan izan zuen eragina³. Areago, kritikak horixe aztertu du, bereziki, Txillardegiren nobelagintzan. Esan nahi baita, bestelako nobelagintzak ez duela piztu beharko lukeen arreta literatur adituen artean, autorearen ekarpena existentzialismoarekin amaituko balitz bezala⁴. Dena den, Elsa Scheelenen nortasuna eta bizitza esperientzia osatzeko, ezinbestekoa zaigu jadanik ongi esanda dagoena errepikatzea, labur, ahal izanik.

I. Existentzialismoa gizonen munduan

Europa osoan indarrean zegoen giro existentzialistan erabat baitaraturik⁵, Txillardegiren lehenengo bi nobeletan deskribatzen den mundua, gizon buru-jabe, gizon sortzaileen mundua da. Ilustrazioaren helburu zaharra eramango baitu azken bururaino existentzialismoak: *sapere aude*, har-

³ Ikus, jatorriz erdaraz idatzi bazen ere, itzuli ostean, euskal kritikak bidegile izan den, Otegi, K.: *Pertsonaia euskal nobelagintzan*, Gero, Bilbo, 1976. Euskaltzaindiak ale berezia eskaini zion *Letuariaren egunkari ezkutua* nobelari (Euskaltzaindia, *Euskara*, Bilbo, 2007, 2). Ikus, halaber, UEUK Txillardegiri egin zion omenaldiaren barruan, Azurmedi, J.: «Kierkegaard-en 'egunkari ezkutua'», in, *Txillardegi lagun-giroan*, UEU, Bilbo, 2000, 116-135. or.

⁴ Ikus, adibidez, Olaziregi, M.J.: *Euskal elaberriaren historia*, Labayru, Bilbo, 2002; Kortazar, J.: *Euskal Literatura XX. mendea*, Prames, Zaragoza, 2003; Aldekoa, I.: *Euskal literaturaren historia*, Erein, Donostia, 2008.

⁵ Azurmendik jaso du ongi existentzialismoak Euskal Herrian izan zuen eragina: «Existentzialismoa elizan, modan, kulturen, Juan San Martin«Otsalar» edo Mikel Lasaren poesian, Xalbador Garmendia-ren teatroan, Txillardegiren saioan, edononatsu aurki daiteke gerrondoko Euskal Herrian. Seguruena, gaur beste ismo bat gehiago da guretzat. Aspaldiko kontu bat. Bere garaian, Europa gaiztotik izarria bezala zetorren uholde gaizto bat zen euskaldun zintzoentzat (eta ia euskaldun denak ziren zintzoak orduan)» (Azurmendi, J.: «Kierkegaard-en 'egunkari ezkutua'», in, *Txillardegi lagun-giroan*, *op. cit.*, 120. or.). Existentzialismoarekin hasi baitzen garai hartako Euskal Herrian paradigma berri bat: «Kultura zahar horren ihesi, existentzialismoak —Espainian debekatua egotean erakusten zuen erakarmenaz gain — mintzaira bat eskaintzen zuen, paradigma bat, unibertso bat, globalki aurreko guztiarekin hausteko (erlijioarekin, politikarekin) eta salto batetik mundu berri batean paratzeko» (Azurmendi, J.: *Oraingo gazte eroak*, Enbolike, Irun, 1998, 128. or.).

tzazu burua ezagutzeko ausardia, hartzazu zuregain gizaki izateko, gizaki egiteko helburua⁶. Delfosko orakulutik hartzen du ideia hori Kierkegaardek: *νοθι σαυτον*⁷.

Nitasun heroiko edo estetiko baten aurrean jartzen gaitu existentzialismoak, bihotzaren bulkada erabiliz⁸, gai dena jainkoari lekua lehiatzeko unibertsoan, gai dena gizarte bizitza arautuari uko egiteko soziologia politikoan. Bere bidea egin behar baitu giza abereak, inork erraztuko ez dizkion erabakiak hartu, inork gidatuko ez dizkion urratsen bidez egin, bidea:

Gizonak bere baitan arkitu bear dik bidea⁹.

Zer aurkitzen du, ordea, bere baitara biltzen denak? Existentzia partikularra, gauzarik handiena eta beldurgarriena¹⁰. Eta bakardade existentziala, bakardade estalezina aurkitzen du batek bere baitan. Ikusten du, bizitza bakar-dadea dela, banakotasun erradikala dela bizitza, Unamunok dionez¹¹.

Baina gizon heroikoak, Elsak ez bezala, ez dio beldurrik bakardade horri, sortzailea baita, askatzailea baita bakar-dadea, etikoki bete, antropologikoki asea.

⁶ Kant, I.: «Respuesta a la pregunta: ¿Qué es la Ilustración», in, Askoren artean, *¿Qué es la Ilustración?*, Tecnos, Madrid, 1993, 17. or.

⁷ Kierkegaard, S.: *El concepto de la angustia*, Espasa-Calpe, Madrid, 1982, 100. or.

⁸ Kierkegaard, S.: *Temor y Temblor*, Tecnos, Madrid, 1987, 38. or. Unamunoren ustez, pentsatu ezezik, izan egin behar du gizakiak «con todo el cuerpo y toda el alma, con la sangre, con el tuétano de los huesos, con el corazón, con los pulmones, con el vientre, con la vida» (*Del sentimiento trágico de la vida*, Espasa-Calpe, Madrid, 1985, 36. or.)

⁹ Txillardegui: *Peru Leartza'ko*, Elkar, Donostia, 1979, 112. or.

¹⁰ Kierkegaard, S.: *Temor y Temblor*, op. cit., 1987, 63. or.

¹¹ Unamuno, M.: *La agonía del cristianismo*, Alianza, Madrid, 1992, 73, 79. or.

Bakardadea

Ez gaitu harrituko, beraz, Txillardegik giza aberearen bakardadea aurkeztea idatzi zuen *Leturiaren egunkari ezkutua* estreinako nobelaren aurreneko lerroetan, bakardadearen aitortza hasiera-hasieratik, lehendabiziko hitzetatik:

Bakarrik nago«Zerubide»n.

Baña ez nitzaz urrikaldu, naita etorri naiz-eta bakarrik egotera¹².

Hautua du bakardadea Leturiak.

Bakardadea baita giza abereak bere burua aurkitzeko, bere burua osatzeko daukan laborategi nagusia: bertan nahi beharko ditu elementu existentzialak. Bakardadetik, bere baitatik egin behar du giza abereak *giza abere*, hazi, hezi, nahimenarekin, indibidualtasunarekin adostu.

Eredurik ezin du erabili kanpotik, beste batzuen bidetik ezin du ikasi¹³: denentzat baliagarria denarekin, mugimendu arautuarekin, ohitura adostuarekin ez luke egingo biderik¹⁴. Jantziko duen alkandora bere neurrira beharko du josi, Kierkegaardek dionez¹⁵, partikularitasuna bere partikularitasunarekin irabazi¹⁶. Guztientzako araupetzen duen lurralde horretatik kanpo ibili beharko du partikularrak, jakinik, ez duela inor aurkituko ondoan¹⁷.

¹² Txillardegik: *Leturiaren egunkari ezkutua*, op. cit., 21. or.

¹³ Kierkegaard, S.: *Temor y Temblor*, op. cit., 103. or.

¹⁴ *Ibidem.*, 45. or.

¹⁵ *Ibidem.*, 37. or.

¹⁶ *Ibidem.*, 45. or.

¹⁷ *Ibidem.*, 63. or.

Beste batek egindakoa errepikatuko du, halabeharrez, bizitzak aurrez aurre jarriko dizkion bidegurutzetan, baina inoiz errepikatu gabe besteek egindakoa. Besteek egindakoa errepikatuz gero, bestetasuna izango baikinateke, eta ez gutasuna. Gizanabako bakoitza besteek urratutako bidean hasten da baina beti modu berrian¹⁸. Bizitzan, beti baita originala errepikapena¹⁹.

Nitasuna

Hezi, hazi, denaren gainetik nitasun konkretua eraiki²⁰. Burua jaurtiki existentziara²¹. Bizitzera baikatuz bizitzara, errealizatzeraz²².

Norberekoikerian erori behar badu, erori. Peruren larrian jarri:

Gizadi guzia sakonki begiratu, etzaidak neri ajolarik batere. Neri neure burua zaidak inporta: besterik exertxo ere ez²³.

Peru da mundua, mundua ez da ezer bera gabe:

Ezpaia mundurik ni gabe... mundua ez da ezer ni gabe... bada zerbait, bai; badakit. Baña ez da²⁴. Mundua, nerekoiko, «neure» mundua da, besterik ez ...

¹⁸ Kierkegaard, S.: *El concepto de la angustia*, op. cit., 52. or.

¹⁹ *Ibidem.*, 174. or.

²⁰ Unamuno, M.: *Del sentimiento trágico de la vida*, Espasa-Calpe, Madrid, 1985, 35 or. (Ikus, euskaraz, *Bizitzaren sentimendu tragikoaz*, Klasikoak, Bilbo, 1994)

²¹ Kierkegaard, S.: *Temor y Temblor*, op. cit., 28. or.; *El concepto de angustia*, op. cit., 128. or.

²² Unamuno, M.: *Del sentimiento trágico de la vida*, op. cit., 34, 119. or.

²³ Txillardeggi: *Peru Leartza'ko*, Elkar, Donostia, 1979, 112. or.; ikus, halaber, 119. or.

²⁴ *Ibidem.*, 118. or.

Banakotasuna (ego-tasuna) egoista baita definizioz²⁵.

Grina zapuztu duen garai batean²⁶, gizon heroikoak gizar-tearen gaintik behar du egon, gizar-tearen aurka, eskatzen zaionean. Borroka horrek edertzen du giza aberea²⁷. Behar badu gizar-te otzana gorrotatu, azken bateraino gorrotatu.

Kontraesaneraino eramango du Peru Leartzakoak gorroto hori, neurrigabetasuneraino. Gaixotu egin da halako batean, hogeit egun pasa ditu ohean eta, gizar-tetik ezkutatu-ta bizi denez, ez zaio inor etorri ikustera. Berak gizar-tearekin darabilen zabarkeria zaputza onartu gabe, gizar-teak berekin zor bat duela, gizar-teak berekin arbuioa darabilela sentitu du, eta min hartu du, mendeku gogoia sortu zaio *bide zabalean*²⁸ doan gizar-tearekin:

Baña, mendekatu egin bearra zegoen neri egindako burla; eta, berriz ere, sekulan baiño tinkoago, iñorekin ez ateratzea erabaki nuen. Gizadia gorroto nuen; etsai zitzaizkidan danak, eta etsaitzat artu bear nituen.

Eta orixe egin: arrezkero, beti atera izan naiz bakarrik (...).

Ez itzik, ez lagunik... Neure burua, eta kitto²⁹.

²⁵ Kierkegaard, S.: *El concepto de la angustia*, op. cit., 81, 98. or.

²⁶ Kierkegaard, S.: *Temor y Temblor*, op. cit., 6, 34. or.; *El concepto de angustia*, op. cit., 144. or.

²⁷ Kierkegaard, S.: *Diario de un seductor*, Destino, Bartzelona, 1988, 120. or. (Euskaraz, *Seduzitzailearen egunkaria*, Klasikoak, Bilbo, 1994); *Temor y Temblor*, op. cit., 130. or.; Unamuno, M.: *Del sentimiento trágico de la vida*, op. cit., 65, 107, 221. or.

²⁸ Kierkegaard, S.: *El concepto de la angustia*, op. cit., 130. or.

²⁹ Txillardegui: *Peru Leartza'ko*, op. cit., 120. or.

Gorroto estetiko horren aldean, ikusiko dugunez, Elsak giza abere ahul eta konkretu bat baino ezingo du gorrotatu, hartaz maitemindu den Pierre langile-apaiz inozoa, hain zuzen.

Sasi-bizitza

Masa gizartea sortu zenetik, teoria soziologikoak hain sakonki aztertu duen kultura estandarizatu eta homogeneizatu batean³⁰, nortasuna indartu nahi duenak bestetasun masifikatua ukatu behar du derrigorrez. Hitzontzikeria, fribolitatea ekidin; jendetasunaren jai nasaiak utzi; distrakzio-bideei, galbideei itzuri³¹.

Leturia ezkondu egin da Mirenekin, familia bat osatzeko bidean jarri da, gizarte burgesak agintzen duenez, baina, udara labur baten ostean, berehala utzi ditu ezkontzaren lokarriak eta, halaber, ezkontzaren lokarriak irudikatzen duen gizarte bizitza konbentzionala, gizarte ituna, egin-beharra, araudia, ohitura... guztientzat balio duen eredia, alegia. Gehiago hazi behar zuen bere nortasunak.

Peruren kasua erradikalagoa da, hein batean. Mitxelenak antzeman zuen ongi, Peruren begiek kanpoan dakusaten guztia dela sasizkoa, alegia, bizitza tradizionalaren ukapena absolutua dela: sasi absolutuak antzematen ditu gizarte bizi-tzan, sasi-helburuak, sasi-kezkak, sasi-bakeak³² ..., dena zaio sasizkoa konbentzioen barruan.

³⁰ Ikus, adibidez, masaren sorrera modernoan, Kracauer, S.: *La fotografía y otros ensayos. El ornamento de la masa I* [1927], Gedisa, Bartzelona, 2008; *Los empleados* [1930], Gedisa, Bartzelona, 2008; *Construcciones y perspectivas. El ornamento de la masa II* [1927], Gedisa, Bartzelona, 2009. Garapen garaikideagoetarako, Ritzer, G.: *La McDonalización de la sociedad*, Ariel, Bartzelona, 1996; Bégout, B.: *Zerópolis*, Anagrama, Bartzelona, 2007; *Lugar común. El motel americano*, Anagrama, Bartzelona, 2008.

³¹ Kierkegaard, S.: *El concepto de la angustia*, op. cit., 144. or.

³² Mitxelena, K.: *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, Etor, Bilbo, 1072, 337. or.

Arrakasta ere ezagutu du, industria bat antolatu eta aberastu eginda. Baina muzin egingo dio gizarte burgesaren oinarri eta ardatz den diruari berari: Aurrezki Kutxan diru mordoan duen arren, diruak sasi-bake higuigarria besterik ez dio eskaintzen³³. Beretzat nahi ez duen gizarte antolaketan modernoarekin, dirua bihurtu baita absolutua, dirua, guztiaren gakoa, hasiera eta amaia³⁴, alegia, sasi-beharra³⁵.

Sasizkoa den horri guztiari uko egitea ez da hain erraza, noski. Inork urratu ez duen bidea da. Lagun batekin erdibana antolatu duen entrepresaren partaidetza saldu eta lan egiteari utzi dionean, ez daki nola baliatu lehen ongi arautua izan duenaz: burua osatzeko, nitasuna elikatzekeo denbora osoa duen arren, sasi-eginkizunei lotu zaio³⁶. Baina kaos hori berak aukeratu du, bederen.

Elsa Scheelen ez da konturatuko gizartearen hertsape-nak ezarri dizkion arau eta jokabide aizunez, harik eta senarraren arbuioa jaso arte. Handik aurrera, bai, lehenago onartzen zuen guztia bilakatuko zaio sasizko. Baina modu subsidiario batez, modu puntualki eragin batez. Handik aurrera, ezkontzak eskaini dion bizitza sasi-bizitza izango da³⁷. Senarrarekin partekatu duen etxe burgesa ez da etxea izango, sasi-ostatua izango da, sasi-zuloa³⁸, bakardadearen habia hotza. Jende aberatsak eraiki duen luxu eta

³³ Txillardeggi, *Peru Leartza'ko*, op. cit., 90. or.

³⁴ *Ibidem.*, 91. or.

³⁵ *Ibidem.*, 100. or.

³⁶ *Ibidem.*, 101. or.

³⁷ Txillardeggi: *Elsa Scheelen*, op. cit., 141. or.

³⁸ *Ibidem.*, 57. or.

diseinuzko mundu burgesa sasi-zuloa irudituko zaio, halaber³⁹; jende aberatsak eraiki duen *habitat* eroso sasi-paradisua izango da⁴⁰.

Leturia eta sexismoa

Ezkontza-lotura hautsi eta Parisera joan ostean, Leturia damutu egingo da eta Mirenen ondora itzuliko. Honek, noski, porrota besterik ez du erakusten, Leturiak erruaren sentipen kristaua onartzen duela, bidenabar. Bere buruarentzat zeukan proiektuan huts egiteak ez du zalantzan jartzen, inola ere, proiektuaren beraren zuzentasuna, aitzitik, agerian jartzen ditu bizimodu heroikoa burutu nahi izateak bere baitan dituen zailtasunak.

Izan ere, Mirenen ondora itzultzean, Leturiak emaztearekin gaizki jokatu duela aitortu du, eta erabat modu konbentzionalean ulertu du gaizki jokatu izana: ezkontza-beharrak hautsi izanari egotzen dio errua. Zeren eta ezkontza-lotura horiek lausotu eta askatasuna lortu izatean ez baitago batere jarrera gaitzesgarririk. Erabaki horrek izan dituen ondorio latzak ukaezinak badira ere, Mirenen ezinegona eta gaixotasuna Mireni bakarrik egotz dakizkioke, Mirenen heldutasun psiko-sozial eskasari, alegia, inola ere ez Peruri, sinatu zuen erantzukizun berberaz indargabetu baitu ezkontza-ituna —nahiz eta, agian, argiago, zuzenago adierazi behar zuen zeukan egitasmoa—.

Peruren aldetik jarrera gaitzesgarriren bat ikustekotan, emaztea mendean hartzeko balio izan dionez, sinbolikoki oso esanguratsua den zaplaztekoan ikusi beharko litza-

³⁹ *Ibidem.*, 123. or.

⁴⁰ *Ibidem.*, 128. or.

teke⁴¹ —geroago, amets batean, emaztea bere eskuekin itotzeko erakusten duen gogoan, orobat—. Eta, are gehiago, Leturiak emakumeaz eraiki duen irudi idealizatuan, kultura burges kristauak genero femeninoarentzat moldatu duen emazte-ama arketipo betegintzarrekoa bere egitean, hain zuzen⁴². Genero-distortsio kultural nagusitu horrek eragin du zaplaztekoa, eragiten du, oro har, genero-bortizkeria.

Leturiaren laguna den Jonen bidez salatzen du Txillardegik idealizazio horren arriskua, emakumea, emakumeak, ezkontza baino lehenago ezagutu beharra aldarrikatzen duenean:

Akats bat arkitzen zioat ezkontzari : aurretik ezin probatzea. Nai dutena esango ditek oni buruz « txintxoak » eta ortodosoak » ; baña beti izango duk au milla okerren iturburua. Ta, dirudienez, zuzendu eziñezko okerburua duk⁴³.

Leturiak berak ezingo du izango Jonen hitzak ukatzeko beharrik:

Zerbait erantzuteko zorian egon nai, bañan ez dut tutik esan : zerbait otu arren, ez nuen ikusten esatekoa⁴⁴.

Nazka

Leturia bezala, Peru Leartzakoa bezala, sasi-bizitzari ihesi bizi den giza abere estetikoak nazka sentitzen du konben-

⁴¹ Retolaza, I.: «Leturiaren egunkari ezkutua: gizon eta emakume irudiak», in, Euskaltzaindia, Euskera, 2007, 2, op. cit., 668-669, 688-689. or.; Zapiain, M.: *Txillardegi eta ziminoa*, Susa, Donostia, 2007, 43-44. or.

⁴² Retolaza, I.: *op. cit.*, 687. or.

⁴³ Txillardegi: *Leturiaren egunkari ezkutua*, op. cit., 83. or.

⁴⁴ *Ibidem*.

tziozko arau eta jokamolde bakoitzaren aurrean. Beste gai topiko bat da nazkarena existentzialistentzat. Sartrek idatzi zuen *La náusee* nobelan, esaterako, lehen aldiz higuina sentitu zuenetik, higuin hori bere buruaz nola jabetu den kontatzen digu gizon batek egunkari ezkutu baten bidez⁴⁵. Eta, dakigunez, Txillardegik Sartre izan zuen beti oso ondoan⁴⁶.

Leturiak nazka sentitzen du, itxuraz, oso modu partikularrean, bere emaztearen aurrean. Jakina, ikuspegi soziologiko batetik, emaztearen bidez, ezkontzak irudikatzen duen bizi moduari dio nazka. Baina oraindik ez da guztiz garatu filosofikoki, kontraesanak ditu. Izan ere, emaztearen *gorpuztasunak*⁴⁷ higuina sortzen badio absolutua —egia, ongia, betegintzarrea... hitz batean, ideien paradigma platonikoa— lehenesten jarraitzen duelako da. Hori izango da, hain zuzen, Leturiaren porrotaren erantzulezako bat, dogmatismoa, Txillardegik, modu sistematikoan, bere obra guztian salatuko duen dogmatismoa.

Bizitza molde *zabal* eta arautuak sortarazten dio nazka Peruri⁴⁸. Nazkaren horditze batek bizi du⁴⁹. Nazka, higuina, okaztadura, goragalea... oso hiztegi aberatsa eskaintzen dio ukatu nahi duen munduak⁵⁰. Gero eta sakonagoa da nazka, matiz berriak, zertzelada pisutsuagoak hartzen ditu nazkak,

⁴⁵ Sartre, *La náusee*, Alianza, Madril, 2011, 40. or. Irakurri gabe neukan nobela hori eta Txillardegiren bilakuntzak eraman nau ikerketa paralelo horretara.

⁴⁶ Txillardegi: *Horretaz. Zazpi saiakera labur*, Elkar, Donostia, 2007, 9. or.

⁴⁷ Txillardegi: *Leturiaren egunkari ezkutua*, op. cit., 90. or.

⁴⁸ Txillardegi: *Peru Leartza'ko*, op. cit., 3. or.

⁴⁹ *Ibidem*, 35.

⁵⁰ *Ibidem*, 62, 70, 86, 90, 103, 104.

denborarekin. Hasieran, pragmatikoak, krematistikoak ditu oinarriak: dirurik gabe dabil, beti zorretan; lan aspergarria du bulego batean⁵¹. Baina, ikasketa prozesuan barrena, intelektualizatu, absolutizatu egingo da nazkaren sorrarazlea.

Areago, giza abereak berak emango dio nazka eta goragalea Peruri: giza aberearen animaliatasunak emango dio goragalea, hain zuzen⁵². Gizon burusoil bat ikusi du, halako batean, eta ezin izan du jasan ikuskizunaren itsusia: ile asko ez, baina gutxi duen animalia ikusi du, aurpegi eta kasko hinguigarriak dituena⁵³.

Mundua bera ezabatu duenean, ezerezaren filosofia edo mistikarekin saiatu baita sasi-bizitzari ihes egiten, hutsunea perturbatzen duena oro zaio goragale iturri: bere burua, giza abereak, animaliak, denbora eta espazioa... betegarri izan beharke lukeen ezereza ilunak berak goragalea ematen dio⁵⁴.

Elsa Scheelenek ez du Leturiak edo Peruk baino nazka gutxiago sentitzen. Nazka hori, ordea, Leturiak eta Peruk partekatzen duten gizonen gizarteak inposatzen dion guztiarekikoa da. Nazka berezia da Elsarena, nazka femeninoa, nazka feminizatua, agian.

Denbora igarokorra

Dena aldatu nahi du giza abere heroikoak, baina horretarako denbora laburra duela ohartzen da: arinegi doakion denbora ere borrokatu behar du, hortaz.

⁵¹ *Ibidem*, 3. or.

⁵² *Ibidem*, 143. or.

⁵³ *Ibidem*, 103-104. or.

⁵⁴ *Ibidem*, 118-119. or.

Denboraren igarokortasuna geldiarazi nahi duela aitortzen digu Leturiak,⁵⁵ konturatzen baita, besteak beste, denbora doanez, joan, denbora joankor hori alferrik xahutu besterik ez duela egiten giza abereak⁵⁶.

Azurmendik esan zigunez, Leturia aukeratu beharrak durduzutzen badu, batez ere, Peru Leartzakoa iragankortasunaren oinazeak erdibitzen du⁵⁷. Perurekin zentrala bihurtuko da denboraren igarokortasuna: denbora aurrera doan bitartean, paradoxikoki, atzera egiten baitu haren poztasunak⁵⁸. Hori da giza bizitzak dakarren arazorik lehena, bestelako behar gogor eta morroiekin ere nekez ezkutatuko dena:

Lanegin bearra zigor bat da; baña ez lanagatik beragatik, geure burua eta geure egiazko prolema izkutatzen digulako baizik. Eta, zein da au ba? Onatx emen: denboraren igesa⁵⁹.

Abiadura gera ezinean doakio Peru Leartzakoari denbora, oso azkar, aurrera eta aurrera: berehala doazkio sei egun, eta urte bat, eta bi, eta joango zaizkio berrogei⁶⁰. Hogeita zazpi urte besterik ez duen arren, gaztaroa huskeriatan agortu zaiola sentitzen du:

Agian nik aukerarik izan ba nu, zerbaitetara iritx nindekan. Baña, uskeriatan akabatu zaidak gaztaroa.

⁵⁵ Txillardeggi, *Leturiaren egunkari ezkutua*, op. cit., 132.

⁵⁶ *Ibidem*, 134. or.

⁵⁷ Azurmendi, J.: «ltzaurre», in *Peru Leartza'ko*, op. cit., VIII.

⁵⁸ Txillardeggi, *Peru Leartza'ko*, op. cit., 16. or.

⁵⁹ *Ibidem*, 98. or.

⁶⁰ *Ibidem*, 22. or.

Orain, hogei ta zazpi urterekin, berandu duk edozer-
tarako⁶¹ .

Denbora joankorrarena eritasun harrigarria da: gero eta urrutiago, gero eta iristezinago jartzen dizkio dauzkan helburuak Peruri⁶² . Tristatu egiten du denboratasunak. Gorroto du denboratasuna:

Askok uste duenez, bein iltzen gaitu denborak: erioztan. Baña ori ez da egia: egunero, beti, eten gabe iltzen gaitu. Ez gu bakarrik gañera: gure «nitasunik» ez da, eta gauzetan ere ez dago ezer dirauenik. Denboratasunak irauten du bakarrik: dana itzaltzen da, berak dana egiten du igarokor eta ilkor⁶³ .

Denborak hiltzen gaitu, batez ere, orijinala izan behar den jauziaren errepikapen pertsonalean ohituran, ohikerian jausten bagara⁶⁴ , Peru Leartzakoa bezala:

Badator berriz eguneroko zurrunbilloa: jaiki, lanera, bazkaldu, lanera, gaua eta berriz ere dana. Beti bat. Goizean esnatu, eta arratsaldeko zazprietan gogoa; egun guzian bizi ezbaña irauin eta itxoegin. Eta zazprietan, berriz, bereala aspertu, zer egin jakin gabe askotan. Eta berdin ere biaramunean. Bein eta berriz eta milla bider berdin. Astean bein atsedenaldira: bat; igandekoa. Segundu motz bat; eta mende bat gero Olejua eramaten, paperak kopiatzen, txatxukeriak entzuten... geroz eta zakarrago zijozkidan egunak.

⁶¹ *Ibidem*, 45. or.

⁶² *Ibidem*, 102. or.

⁶³ *Ibidem*.

⁶⁴ Kierkegaard, S.: *El concepto de la angustia*, op. cit., 174. or.

Biziera jiraka ari dan kurpil ero bat iruditu zatzaidan goiz artan, geroz eta ariñago dabillen zirimola bat⁶⁵.

Denbora iheskorra delako sentipen horren atzetik, proiektu bat burutu nahi duen giza aberea dago; edo, aitzitik, gizarte-bizitzak inposatu dion sasi-proiektuari itzuri egin nahi diona. Peru Leartzakoak, esaterako, lana utziko du, aberastu duen entrepresa salduko du, beste denboratasun abegitsuago batean baitaratuko delakoan.

Zein proiektu du, ordea, Elsa Scheelenek? Proiekturik gabeko emakumea da. Proiektutzat emaztetasuna agindu dion gizarte batean banatu egin da, senarraren grinei erantzuten jakin ez duelako; edo, gordinago, senar grinatsuak bere beharrak beste emakume batzuekin ase ditzan onartu ez duelako, banatu ere. Proiektutzat amatasuna esleitu dion gizarte batean antzua da, bestalde: antzutasun horri zor dio bitziza osoan pairatuko duen bakardadea. Horregatik joango zaio geldo, aspergarri arraioa, denbora.

Nahikunde aseezina

Grinari men egin, bihozka den taupaden erritmoari egokitu, instantea bizi, preziorik altuena ordaindu instante bakoitzean⁶⁶ ... : horra giza abere sortzailearen proiektuak hartu behar duen metodologia. Baina, instante batean eta hurrengoan, egoera batetik bestera eramango gaituen jautzian⁶⁷, goiburua estetiko hori ez da hain betegarria, hain lasaigarria. Besteak beste, arras aseezinak direlako giza nahikundeak, Leturiak ongi asko ikasi duenez:

⁶⁵ Txillardeggi, Peru Leartza'ko, *op. cit.*, 20-21. or.

⁶⁶ Kierkegaard, S.: *Temor y Temblor*, *op. cit.*, 32. or.

⁶⁷ Kierkegaard, S.: *El concepto de la angustia*, *op. cit.*, 49, 100. or.

Naikundeak eskatzen duena lortzen ez bada, naikundearen almena edo joera gelditzen da erre eta gogotsu. Baña desira lortu ezkerro, izate osoa, nortasun osoa gelditzen da egarri bizian, osotara etsita, nora jo ez dakiela⁶⁸.

Antzeko gogoeta egiten du Peruk, Xabier lagunarekin daukan elkarrizketa batean:

Egarri duk bizia, ezin asezko egarri legorra. Egarraren egarri. Gure eztarri egartsua asetzeko, ondar kiskalgarri bat daukagu ernalgarriztat: bizi-naia. Bizitzen segitzeko nai diagu bizi. Baña bizi gareño, aspertu egiten gaituk, edo larritu. Beraz, etzekiagu zertarako bizi geran; baña bazekiagu larrimiñetik ez dagoela iges-egiterik. Horrela, oitura atsekabe bat egiten duk biziera⁶⁹.

Leturiak kontraesan estalezin hori jasango du, hain zuzen, modu praktikoago batean, Mirenekin ezkontzen denean, alegia, partikularitasuna utzirik, jeneralera iragaten denean. Kierkegaardekin esango dugu, jauzi enpatiko bat eginez:

Ezkon zaitez eta damutu egingo zara; ez ezkondu, eta damutu egingo zara halaber; ezkon zaitez edo ez zaitez ezkondu, biez damutuko zara; ezkondu ez ezkondu, damutu egingo zara⁷⁰.

⁶⁸ Txillardeggi: *Leturiaren egunkari ezkutua*, op. cit., 102. or.

⁶⁹ Txillardeggi: *Peru Leartza'ko*, op. cit., 25. or.

⁷⁰ Kierkegaard, S.: *Diapsalmata*, EHU, Bilbo, 2007, 49-50 or. Eta jarriatzen du Kierkegaardek: «Barre egizu munduaren erokeriez, eta damutu egingo zara; haietaz negar egin, eta damutuko zara halaber; munduaren ergelkeriez barre egin edo negar egin, bietaz damutuko zara; munduaren ergelkeriez barre edo negar egin, damutu egingo zara (...). Zeure burua urka ezazu, eta damutu egingo zara; ez urkatu, eta damutu egingo zara halaber; zeure buru urka ezazu edo ez ezazu urka, bietaz damutuko zara; zeure burua urkatu ez urkatu, damutu egingo zara. Hauxe da, jaunok, bizi jakinduria orearen esentzia».

Elsaren nortasuna oso bestelakoa da, ikusiko dugunez: Elsak ez du inoiz nahikundearen eraso jasaten, nahikunde propioei ihes egingo balie bezala bizi da, edo, lazgarriagoa dena, emaztetasunetik eta amatasunetik harago, nahikunderik garatu ez balu bezala.

Nahikunderik ez daukan emakumeak, bestalde, desiratzten duten gizonen nahikundeak ukatu besterik ez du egiten. Ukazioak itotzen dio nahikundeak. Batzuetan ematen du jauzi egin nahi duela, nahikunde batzuk elikatu nahi dituela, bakkarkako sexua, adibidez. Baina hori ere ezin du. Beste emakume batekin sexu-harremanak eduki nahiko zituzkeela aitortzen duenean, esaterako, berehala zapuzten du ideia hori. Gatibu du gorputza, gatibu du bihotza.

Arrazoiaren bide etsipengarria

Denbora iragankorraren aurka, nahikunde aseeginaren aurka... existentziaren itsasoa ez da, gainera, bare-barea; aitzitik, burua bertara jaurtitzen duenak zorabioa irabazten du, maiz, itolarria: zalantzak ditu, kontraesanak ditu. Etsipena ere irabazten du.

Egiarekin borrokatzera ausartu da Leturia, adibidez, eta ez du lorpen handirik izan langintza horretan:

Etsita nago (...); egiaren billa aurrerago joan, eta illunago dut guztia⁷¹.

Eta geroago, Diogenes zinikoarena errepikatuz:

Ortaz, zer ari naiz ni, ero au, argizari bat eskuan oian izugarrian billaka? Denbora alperrik xautu besterik egingo ez dut, orain arte aurreko guziak galdu duten bezela, ta ez dut aiek baño geixeago ikusiko egiari buruz⁷².

⁷¹ Txillardeggi: *Leturiaren egunkari ezkutua*, op. cit., 122. or.

⁷² *Ibidem*, 134. or.

Adimenak ez du aurrera bultzatu Leturia, aitzitik, norabait eraman badu, bere ezina adieraztera eraman du Leturia adimenak⁷³. Sinesgarri egin zaizkio absolutuak, betetasuna, osotasuna, gelditasuna, bake egiazkoa, egia hutsa... eta, ezkontzarekin ongi asko ikasi duenez, mugadun sorkariak nekez bete du mugarik ez duena⁷⁴.

Munduak nekez bete ditzake giza aberearen gabezia eta hutsuneak⁷⁵. Ibili behar du baina ez daki nora, ez daki nola:

Illunpe batetik illunpe batera dijoan itsua naiz⁷⁶.

Ibili behar du, bidea lehenetsirik⁷⁷, agian:

Ibilli gaitezen elbururantz; onela bizi gaitezke zoriontsu xamar behintzat. Eta ibilli aal izateko, urritira ditzagun jomugak. Onela jokatzuz, betirako izango dugu nundik ibilli ta noruntz joan, eta amaigabeko bideetan zear gordeko ditugu lillurak eta zorio-esperoak⁷⁸.

Amildegia, eroriak inguratzen du, gainera, ibiltaria. Instantean erabaki behar duenak, dantzari batek bezala jauzia prestatu behar duenak, huts egiteko aukera ere bai baitu⁷⁹.

Leturiak ez du asmatu, Peru erotu egin da eta, Elsak porrota ezagutuko du ezertan asmatzen saiatu gabe ere. Dirudenez, Antton Ezkizunekoarekin, Putzurekin eta Antton Labartzakoarekin, proiektu kolektibo kritiko bati lotu eze-

⁷³ *Ibidem*, 136. or.

⁷⁴ *Ibidem*, 117. or.

⁷⁵ *Ibidem*, 124. or.

⁷⁶ *Ibidem*, 132. or.

⁷⁷ «Método es camino», zioen Unamunok, in *La agonía del cristianismo*, op. cit., 31. or.

⁷⁸ Txillardegi: *Leturiaren egunkari ezkutua*, op. cit., 118-119. or. Ikus, halaber, 120, 121. or.

⁷⁹ Kierkegaard, S.: *Diario de un seductor*, op. cit., 255. or.

an ez dago sendabiderik. Leturiaren ustekabeko birakuntzak iragarri digu hori.

Itolarria

Giza aberea ito egiten da munduan, errealitatea ezagutzuz doan heinean. Itotasun hori partekatzen dute, neurri batean, Txillardegiren pertsonaia guztiek, Leturiak eta Peruk bezala, Antton Ezkizunekoak, Putzuk, Antton Labartzakoak eta, salbuespenik gabe, Elsak.

Sentipen larritasun hori, arnasestu eta ezinegon hori adierazteko, oso metafora sotila eta, bidenabar, ederra, eskaintzen zaigu *Peru Leartza'koa* nobelan. Mozkorti atsekabetu batek esplikatzten digu nola garatu zuen klaustrofobia, gerra garaian, itsaso azaletik jartikitzen zituzten leherkariei ihes egin ezinik zihoan, zebilen, urpekontzi batean barruan:

Urpeko ontzi edo sumariñoan pasa omen zituen iru urte t'erdi eta Walcheren'go batalla, berak ikusitako azkena, etzitzaion beñere ahaztu (...)

Bere ontzia urpetik omen zijoan. Ondorago jetxi bear omen zutela, ba omen zekiten danak: oartuak zitzaizkion alemanak, eta pittin bat deskuidatu ezkero, sakon-bonbaka asi, eta kitto (...)

Ortan zeudela, dunbada izugarri batek. Danak zerral-do erori omen dira. Oartuak dira alemanak dudarik gabe. Eta eskapatu egin bear da urpetik eta egiñale-tan. Ura ito-bearra! Ezin bizi, ezin arnasa ar, ezin zutik segi (...) Bera ez asieran, zionez; baña alako ordubete itolarrian pasa ondoren, asi omen da ere arnasa ezin artuz, eta itotzeko zorian bezela. Il pentsatu omen zuen irmo. Arnasa bear omen zuen, aidea, aide bolada fresku bat... Baña ezin...

Atera omen ziran bizirik. Baña ordutik onuntz ezin omen zezakean ordu erdi batez iraun toki itxi batean, kanpora atera bear omen zuen nai ta naiez; ala il⁸⁰.

Marinel horren klaustrofobia, noski, orokorra da Txillardegiren pertsonaietan, munduak sortzen die klaustrofobia:

Oso gutxi baitira itsaso egiazkoan ondoratzen diranak; danok, berriz, ondoratu oi gera geure barne-itsasoan⁸¹.

Horregatik behar dute irten, ibili, zirkulatu, Txillardegiren pertsonaiek, itsasoaren ertzera joan, belardietan etzan, amildegietara gerturatu..., goroldirik ez egin. Bizi nahi dute oraindik, munduak eskaintzen dien bizitoki jasagarri horietan.

Inguruabar horretan, harrigarria da Peru Leartzakoak aukeratzeko duen sendabidea. Munduak sortzen dion itolarriari ihes egiteko babesten da Peru nitasunean. Beste batzuentzat itolarriaren eragile izan daitekeen espazio itxia bera bilakatzen du askatasun-esparru. Itolarria bizimodu bilakatzen du, neurri batean. Peruk, Elsak ez bezala, nahiago izango du etxe-barru kirastu batean egon, kanpokoarekin harremanean sartzea baino:

Lau pareta itxi aiek etzitzaizkidan atsegin. Atea idekita uzteko esaten zidan etxeko andreak asmo gaistokorik iñor etzegoela ta; baña nik naiago nuen arnasarik gabez il, nere burua agirian utzi baño. Eta usai txarra ba zan ere, naiago nuen alare ate bakar ura kisketaz itxi.

⁸⁰ Txillardegi, *Peru Leartza'ko*, op. cit., 30-31. or.

⁸¹ *Ibidem*, 34. or.

Orregatik, barruan era artara egon bear nuelako alegia, zearo ase ninduen kanpotik ezer ikusi gabe bizitzeak⁸² .

Lau hormen artean ere ibil daiteke bat, barru-barrura ibili, eta, une berean kanpora.

Nahiz eta, filosofikoki ikasbidea izan zitekeen zirkulazio zentripetoa⁸³ , erokeriaren sintomekin nahasten hasia den Perurentzat.

Buru-hilketa

Norberaren bidea aurkitzeko ahalegin zail horretan, oso litekeena da zorabioaren menpean jaustea eta onera ezin itzulirik geratzea: Peru, adibidez, gaixotu egin da, burua galdu du. Erabakiaren atzetik baitator erabakia, erabaki-behar beti berria, itolarriaren atzetik baitator itolarria⁸⁴ . Eroriko zara eta, altxatu orduko, berriro eroriko zara.

Giza abere guztiek, ordea, ezin diote aukeraketaren eta erabakiaren dialektika zorrotz horri eutsi bizitza osoan barrera, eta gertagarria da norbaitek burua hiltzea, buruaz beste egitea⁸⁵ .

Lehen pertsonaia gatazkatsuetan⁸⁶ ez ezik, konstantea da buru-hilketaren irudia Txillardegiren nobelagintzan: Leturiak burua botako du amildegi batean behera⁸⁷ , Peru burua

⁸² *Ibidem*, 138. or.

⁸³ Kierkegaard, *El concepto de la angustia*, *op. cit.*, 181-184. or.

⁸⁴ *Ibidem*, 138. or.

⁸⁵ *Ibidem*, 185. or.

⁸⁶ Otegi, K.: *op. cit.*, 119. or.

⁸⁷ Txillardegi: *Leturia-ren egunkari ezkutua*, *op. cit.*, 145. or.

botatzen saiatuko da Leturiaren amildegi berean⁸⁸, *Itsasoaz bestaldetik* nobelako protagonista Peru eta Leturiaren amildegi beretik eroriko da⁸⁹, Antton Labartzakoa erortzeko zorian egongo da⁹⁰, *Kosmodromoa* ipuinean erritua suizida kolektibo bat irudikatzen da amildegi berean⁹¹ ... Denetan, zorabioa, itsaso beltz absolutuaren aurrean.

Amildegia erakarmen tragiko hau ongi deskribatzen da, itolarria modurik zaugarrienean jasaten duen Peruren kasuan. Bizitzak zentzua galdu du beretzat:

Itzeko gogo nabaitu nuen; il eta dana akaba... Zertarako bizi? Irauteko? Irauteko irau? Bestetango ideiak bein eta berriz bururatzen zitzaizkidan⁹² ...

Burua botatzeko ideia ez du kenduko gogotik Peruk, aurretzean. Bizitzak ez dio eskainiko ideia hori baztertzeko aitzakiarik.

Idea burutzerara doalarik, bizitzari eusteko azken aukera bat aurkeztuko zaio, halere, motibagarri edo kitzikagarri hori arinegia izango bada, egia esan. Neska pinpirin bat igaro da, halako batean, Peruren aurretik eta piztu egin du haren liraintasunak eta ibilera arinak, ia altxatzeko zorian egon da, une batez, bederen, bizitzen jarraitzeko zorian, alegia. Baina sendo erabakita dago:

Zertarako ordea? Bizitzeko tentazioa berriz (...)
Ederra zan, bai, giroa bezela, eta bere aurrean eskier-

⁸⁸ Txillardeggi, *Peru Leartza'ko*, op. cit., 65. or.

⁸⁹ Txillardeggi: *Haizxeaz bestaldetik*, Itxaropenan autoeditatua, Zarautz, 1979, 158, 207, 211. or.

⁹⁰ Txillardeggi: *Labartzari agur*, Elkar, Donostia, 2005, 149-151. or.

⁹¹ Txillardeggi: «Kosmodromoa», in, www.idazleak.org.

⁹² Txillardeggi, *Peru Leartza'ko*, op. cit., 65. or.

ki itzegiten ere ahaztuko litzaidake lillura utsean.
Baña, zer? Nere gorputzak joan nai zuen, ez nik; ni ez-
painaiz nere gorputza⁹³ .

Berehala saiatuko da Peru, amildegitik behera, burua itsaso-
ra botatzen:

Nere burua iltzea pentsatu nuen (...).

Eriotza bear nuen (...)

Itsaso aldera begiratu nuen: beltza. Azkeneko aldiz...

Baninjoan ni ere ilunpe beltz batera (...).

«Kemen izan» esan nion ahapeka nere buruari. «Se-
gundu bat duk, eta akabo. Eta geroztik ez duk nabai-
tuko ez penarik, ez goragalerik, ez bitasunik, ez
kezkarik, ez ezer. Jaio aurreko pake berbera inguratu-
ko duk berriz (...).

Eta jaiki egin nintzen, eta atzera joan, abiadura artze-
ko. Ariñago asi zitzaidan biotza lehertzera bailioan
(...)⁹⁴ .

Atzetik etorrita, ordea, guardia batek hartuko du gogor eta
atxilo eramango.

Elsa Scheelenek gertutik ezagutuko du grina buru-hil-
tzaile hori, hain zuzen, etxera bidean, senarrarekin batera
kotxez doan batean. Bizitzeko gogo gutxi du Luc-ek, gizarte
garaikideetan indartu den bulimia hedonista eta nartzisis-
taz dago eri⁹⁵ , atseginetan murgildurik egonagatik ere, beti
gehiagoren bila baitabil. Eta, halako batean, burua hiltzeko

⁹³ *Ibidem*, 139. or.

⁹⁴ *Ibidem*, 150. or.

⁹⁵ Saiakera ugari argitaratu da aspaldi honetan, gai hau landurik. Ikus, esaterako, Lipovetsky, G.: *La felicidad paradójica*, Anagrama, Bartzelona, 2007; Bruckner, P.: *La euforia perpétua*, Tusquets, Bartzelona, 2001; Atxabal, J.: *Narziso berriaz gogoetak*, UEU, Bilbo, 1994.

saiakera batean lotuko du Elsa nahigabea, kotxea abiadura geldiezin jarririk:

—... Zuhaitz horiek ikusten dituzu, bide ertzetik haraxeago?

Berebilaren markagailuak 140 Km/o.

—Bai. Zer ba?

—Zergatik ez beretara jo? Eta kitto!.

(...) Eta gu biok geure buruengandik libro! ⁹⁶

Elsa berekin daramala aintzat hartu gabe, senarrak burutu egiten du bere nahia: kotxea desbideratzen du autopista bazterraren aurka. Dezimetro batzuen gora behera izan da zuhaitzak ez jotzea.

Huts egin ostean, luzera osoan erreproduzitu ezin dugun elkarrizketan, Luc-ek azaldu egiten dizkio Elsari bere nekeak:

—Zertarako bizi gara gu? (...) Ni neu aspertu egiten naiz; gero eta sakonkiago (...).

—Bai. Azkar ibiltzeak baretu egingo nau, hiltzeko arriskuak areago. Hiltzeak arras egingo ninduke... (...).

—Heriotzak bizi gaitu, Elsa (...).

—Haragia? Laister iraungitzen den atsegin-gerra ⁹⁷.

Elsa Scheelenen erokeria huts iritzi dio, noski, senarraren ideiarri. Ezkondu-bizitzak ase egiten du eta ez du ulertzen berarentzat asegarrria dena etsigarria izan daitekeela senarrarentzat. Senarrak daraman bizitza tolesduratsuz ere ez daki ezer.

Halere, berehala, jakingo du senarra ez zaiola fidela, berehala banatuko da eta senarrak izan duen neke berbera hasi-

⁹⁶ Txillardeggi: *Elsa Scheelen, op. cit.*, 68-69. or.

⁹⁷ *Ibidem*, 69-70. or.

ko da jasaten: burua botatzeko gogoak hartuko du, kalitatezko alde batekin, ez da ausartuko azken urratsa ematen eta, hilko bada, istripuz bezala hilko da, pilula gaindosi batekin. Itzuliko gara horretara.

Gizarte arauen sendabidea

Zer egin dezake, baina, giza abereak hainbat nazkatzen eta etsiarazten duen munduaren aurrean? Biderik errazena, gizarte legea onartzea da, egokitzapenerako prestatzea: ikasi, lan egin, ezkondu, haurrak eduki... Ongi azaltzen dio lagun batek Peruri integrazioaren mekanika:

Ik, Peru, ezkondu egin bear duk. Ezkondu artean beti ibilliko aiz ire ortan: umore ospindua, sasi-kezakak, eta abar. Nere ustez auxe falta duk ik: familia bat, emazte gozo bat, seme-alabak; eta orduan nik agintzen, eure zentroa arkituko ukek, eta zorakeria guztiai utziko ⁹⁸.

Eta gaineratzen du lagun horrek, legetasunaren zama azpimarraturik:

... naturalezak ori eskatzen dik, eta ik ordaindu artean ez aiz ire bidean jarriko ⁹⁹.

Lehen hiru nobeletako pertsonaiak ezkontzaren tenkadura sinbolikoaren inguruan uztartzea ez da ustekabea Txillardegirentzat: muga jarri nahi gaitu, mugatik ikusi nahi ditu ezkontzaren barruko soziologia eta kanpokoak.

Txillardegiren hautua ere argia da: ezin du onartu gizarte arauaren bidea, inkonformista bat da eta gizartearen topikoan aurka altxatzen ditu bere pertsonaia guztiak. Geroago

⁹⁸ Txillardegi, *Peru Leartza'ko*, op. cit., 110. or.

⁹⁹ *Ibidem*.

etorriko diren pertsonaiekin, Antton Ezkizunekoa, Putzu eta Antton Labartzakoarekin, are nabarmenago.

Leturiaren konbertsioa

Haurrentzako euskal abesti bateko artista bezala, ezkontza hautsi ostean aterpe izan duen Paristik datorren bigarren Leturiaren kasua da salbuespena, konbertsioa bilakatzen baita harentzat sendabide, etsipen guztientzat. Existentzialismoak aldarrikatzen zuen *egoa* zaintzeko egoismo heroikoa¹⁰⁰ alde batera utzirik, ikuspegi etiko unibertsal bat harturik, giza aberearen berekoikeriaz konturatu da, Mirenekin doilor jokatu duenaz, alegia:

Maite? Bai, Miren; oraindik ere maite zaitut.

Dollorra izan nintzan zurekin (...).

Ni, ni, ni, Onatx korapilloa: neu nintzan kontutan euki bear zan bakarra¹⁰¹.

Eta, etxera itzulita, Miren gaisorik aurkitu duenean: Erruduna naiz, bai. Neugatik gaizkitu da bearbada bere orretaraño; nere ankerkeriak il du agian¹⁰².

Sinesgabea izan dena ere, Jainkoari hasi zaio eske:

Bildur naiz. Otoitz egin naiko nuke. Nori ordea, fedegabe gogor onek? (...).

Jainkoa: etzaitut nik zu beñere ukatu. Lagun zakizkit nere larrialdi onetan (...)

Senda zazu Miren, eta il nazazu ni¹⁰³.

¹⁰⁰ Kierkegaard, S: *El concepto de la angustia*, op. cit., 81, 98. or.

¹⁰¹ Txillardegi, *Leturiaren egunkari ezkutua*, op. cit., 136. or.

¹⁰² *Ibidem*, 141. or.

¹⁰³ *Ibidem*, 142. or.

Amildegiairen ertzean dago, sinesten ez duen konbertsio bat nahiko luke. Baina horretan ere huts egingo du, burua botako du, bigarren aldiz egingo du porrot existentzialki, bidean abiatu zena ez baita inoiz itzultzen abiatu zeneko leku berera.

Hordigarrien laborategia

Gerraren ostean, sakoneko kargez bonbakatzen ari ziren urpekontzi baten barruan klaustrofobia-sentipen uxa ezina garatu duen marinelak bizitza edariaren bidez arindu nahi izan duen bezalaxe, Txillardegiren pertsonaia agonikoek behin eta berriro erakusten dute hordigarrien beharra.

Leturiak goraipatu egiten du itolarriari ihes egiteko ardoak duen indarra:

Orain ni, mozkorra nagoela, argitasun berri batek naragi; ta iñoiz ez bezin garbiro ikusten ditut nere ktramillak¹⁰⁴.

Peruri berdin-berdin gertatzen zaio, noski:

Beste koktel bi edan nituen. Eztatxia sua zan. Burua zearo nahastuta. Lortua nuen: enintzan nere buruaren jabe. Ametsetan bezela konturatzen nintzan gauzez; eta ametsetan bezelaxe, erdizka konturatu bai, egunez baño zorrozkiago agian¹⁰⁵.

Eta, aurrerago:

Mozkortzen astea gustatzen zitzaidan (...) Dana ahantz, nere egiazko biziera alde batera utz, lillurak berriz senti, gezurrezkoak ba ziran ere; bizitzeko alaitasuna berriz nabari¹⁰⁶ ...

¹⁰⁴ Txillardegi: *Leturiaren egunkari ezkutua*, op. cit., 95. or.

¹⁰⁵ Txillardegi, *Peru Leartza'ko*, op. cit., 19-20. or.

¹⁰⁶ *Ibidem*, 29. or.

Zaletasun-kontua baino zerbait gehiago da, jakina: behar gorria. Urpe-ontziko marinela, lehorrean egonagatik, ezin du itolarriaren sentipena ekidin, eta, behin eta berriro errepikatzen zaion klaustrofobia sendatzeko edaten du:

Edatea beharrezkoa omen zuen. Ez, hala ere, trabena batean gelditzeko: ez horixe. Edateko behar aña irauten omen zuen bakarrik barruan. Gero, kalera, egurastera, larritasuna as baiño lehenago¹⁰⁷.

Ametsa amaitzen denean bezala, ordea, mozkorraldiaren osteko biharamuna datorrenean, eguneroko zurrunbilo jasanezina hasten da; bidenabar, aurrez aurre agertzen zaio edaleari denbora joankorraren gupil zoroa, lehen baino indar handiagoaz azaltzen zaio errealitatearen larritasuna. Perururen gau bateko esperientziarekin laburbilduko dugu gertakari hau:

Biaramunean gaizki, oso gaizki nintzan. Gaixorik edo, pentsa liteke. Sekulako errita Loren nere etxeokandreak; eta etzan arritzeko: oka-egiñaz pasa bide nuen gaua. Lekuko iguingarritzat nere maindireak (...).

Urrengo astelehenean nekez jaiki nintzan (...)

(...) Begiratu nueneko zortziak eta hogeita bost, eta ofiziñara joateko bazegoen kilometro bat. Beraz, errieta Olejua'kin. Aginduta.

Badator berriz eguneroko zurrunbilloa: jaiki, lanera, bazkaldu, lanera, gaua eta berriz ere dana. Beti bat. Goizean esnatu, eta arratsaldeko zazpitan gogoa; egun guzian bizi ezbaña iraun eta itxoegin. Eta zazpitan, berriz, bereala aspertu, zer egin jakin gabe askotan. Eta berdin ere biaramunean. Bein eta berriz eta

¹⁰⁷ *Ibidem*, 31. or.

milla bider berdin. Astean bein atsedenalditxo bat: igandekoa. Segundu motz bat; eta mende bat gero Olejua eramaten, paperak kopiatzen, txatxukeriak entzuten... geroz eta zakarrago zijoazkidan egunak. Biziera jiraka ari dan kurpil ero bat iruditu zatzaidan goiz artan, geroz eta ariñago dabillen zirimola bat¹⁰⁸.

Elsa Scheelen ere zaletu egingo da hordigarrietara. Edaria-rekin batera, edaria baino usuago, estimulagarri arras feminizatu bat erabiliko du, halere: pilulak hartuko ditu, batez ere. Agian, gizarte burgesak gaizki ikusten duelako edaten duen emakumea. Edatea gizonen denbora pasa eta sozializazio-tresna orokortua delako, agian. Pilulen gehiegikeria batez hilko da, azkenean.

Ekimena denboratasunaren aurka

Gizartearen araudia onartzen ez dutelako —jende katoliko otzanak, aldez eta moldez onartzen zuen franquismo gorrian gaude, Azurmendik behin eta berriro errepikatu duenez¹⁰⁹—, Txillardegiren lehendabiziko nobela existentzialistetan ibili beharrak, ibilian aukeratu beharrak sendatzen du pertsonaien ezinegona:

Eta gizonari bidea eta zer-egiña ukatzen dizkionak bere izaera bera ukatzen dio, ibilli bearra bai-da gizonaren mamia, ta ez besterik¹¹⁰.

Ibili beharra da bizitza, ekintza-bide bat:

Ibillketa bat da, ortaz, bizitza¹¹¹.

¹⁰⁸ Txillardegi, *Peru Leartza'ko*, op. cit., 20-21. or.

¹⁰⁹ Azurmendi, J.: «Kierkegaard-en 'egunkari ezkutua'», op. cit., 120. or.

¹¹⁰ Txillardegi: *Leturiaren egunkari ezkutua*, op. cit., 121. or.

¹¹¹ *Ibidem*.

Ibili, bidea erraza izango ez den arren. Ibili, etsi gabe. Bidea, *bide*, norberak egin beharko badu ere:

Ibilli egin bear da, bai; ez dago beste soluziorik. Baña, noruntz ibilli? Bideak bear dirala-ta, egia da; alabaña, nora daramate bearrezko bide oriek? Iñora ez ala? Bidea bear dugula esaten ba dut (baña nora dijoan ¹¹² jakin bage) atzipe berria besterik ez da nere irteera .

Ibili, lainoaren artean, maiz. Ibili, itsututa, argia amets:

Ibilli egin bear da, ibiltzeak berak beteko ez gaituela jakinda ere; eta itsuka ibilli bear da, artutako bidea«aposteriori» baietsi ditekkelako konsolabide bakarrean ¹¹³ .

Leturiaren irakaspena

Ibili, norberaren nortasunaren bila. Baina, halaber, ibili, besteekiko konpromisoa bidelagun hartuta. Horra Leturiaren porrotak dakarren azken ondorio paradoxikoa.

Parisera eraman zuen askatasun eta nitasun egarria ukaturik, Mirenen beharrari erantzun behar diola, Mirenen zerbitzari izan behar duela aitortzen du Leturiak, oso modu tradizional kristauan:

Miren'ek bear nau ¹¹⁴ .

Eta, ondoren:

Ortaz, bear nauenaren serbitzari naiz ni. Nolatan bear nauen ez du ajolik: dena dela, gaur eta emen, ni bear ba nau, zorretan nago arekiko, ta nere laguntza eskeñi bear diot ¹¹⁵ .

¹¹² *Ibidem*, 122. or..

¹¹³ *Ibidem*, 127. or.

¹¹⁴ *Ibidem*, 139. or.

¹¹⁵ *Ibidem*, 138. or.

Dena normaltasunaren alde. Bide zabalera itzuli da Leturia. Artaldetasuna du xede¹¹⁶.

Baina, bat-batean, Mirenekiko aitortzarekin batera dator irakurlea asaldatzen duen efektu-ukaldia:

Nere aberriak bear nau; nereak bear naute, Berena naiz, eta berak gabe ezer ez naiz.

Orain, nere onetan, aientzat bizi bear dut. Nerez nora jo bearke nuken ez dakit.«Nerez» esan al diteke? Aroak egin nautena naiz, ez beste. Gaur, eta ezin atzeruntz joan berriz, aiek naukate ni, ta aientzat jaio naizela esan diteke.

Ta nere«gaur», nere«atzo», ta nere«emen» gabe, ni ez naiz ezer, asmaketa farregarri ta itsa baizik.

Bost ajola neri nola edo zein bidetatik biurtu naizen naizena. Au naiz, berena naiz, eta berengana noa egiñale-tan¹¹⁷.

Ni ez naiz ni, niretasunik ez dago: aroak egiten nau; hemen naiz naizena; iraganak osatzen du nire oraina, iragana eta oraina nire etorkizuna osatzen ari dira, jadanik. Hurkoa zerbitzatzeak beste zentzu bat hartu du, ondorioz:

Serbitzari naiz jaiotzaz. Ez naiz gañera serbitzari astratua, ondo konkretua baizik, nereen serbitzaria bai-naiz. Eta, nortzuk dira«nere» oriek? Jainkoak nere ondoan jarri zizkidanak¹¹⁸.

Giza abere konkretua naiz, nire denboran, nire lekuan, hezur eta mamizkoa¹¹⁹. Miren naiz, baina Mirenekin batera, Xa-

¹¹⁶ Azurmendi, J.:«Kierkegaard-en 'egunkari ezkutua'», op. cit., 120. or.

¹¹⁷ Txillardeggi: *Leturiaren egunkari ezkutua*, op. cit., 139. or.

¹¹⁸ *Ibidem*, 138. or.

¹¹⁹ Azurmendi, J.:«Kierkegaard-en 'egunkari ezkutua'», op. cit., 121. or.

bier, eta Axun, eta Antton... , horiek guztiak naiz, alegia, gure herria.

Beraz, maila pertsonalean porrot egin duen proiektu existentzialistak maila kolektiboan irabazten du: besteei begira, herriari begira bete daiteke bakarrik giza abereren proiektua. Txillardegik hurrengo nobeletan garatuko dituen pertsonaien haziak hemen hasi dira sustraitzen¹²⁰ : nazio-askapenarekin engaiaturik, ETAn militatuko dute Antton Ezkizinekoak eta Antton Labartzakoak; karlismo abertzalearekin¹²¹ batera borrokatuko da *Putzu*.

Elsa Scheelen ere ibiltzen ahaleginduko da, gizarte burges patriarkalak emakume bati ibiltzeko eskaintzen dion xedera mehe bakarrean, agian: maitasunaren bila ibiliko da, alferrik.

Itzuri egingo die, hain zuzen, bere inguru historiko konkretuan dauden auziei: aita politikoki engaiaturiko langilea du, engaiatuak dira, halaber, haren bi lagun gazteak, troskita bata eta, Pierre, sinesteari utzi dion langile-apaiza, bigarrena; Flandria eta Waloniaren arteko gatazka nazionala ez da arrotza izan bere egunerokotasunean, senarraren familia flandiarra da eta berea waloniarra —flandiarrak sistematikoki gaitzesten ditu Elsaren aitak—. Pierrek berak konzientzia nazional argia du, frantsesak itotzen duen Brusela inguruko herri flandriar batean jaioa da eta bihotzarekin bizi du bere jatorrizko hizkuntza. Baina Elsa ez da inoiz gai horietan nahastuko, iritziak ere oso-oso gutxitan eskainiko ditu.

¹²⁰ *Ibidem*, 130, 132. or.

¹²¹ Horrela definitu du Txillardegiren karlismoa Markos Zapiainek (Zapiain, M.: *Txillardegi eta ziminoa*, Susa, Donostia, 2007, 86. or.)

Emakume kontzientzia hartzen ari dela ematen du baina, horrek ere ez darama jarrera militante batera.

Sartre eta engaiamendua

Existenzialismo engaiatu hori Sartreren laguntzarekin garatu zuen Txillardegik. Filosofo horrek sortu zion erakarmena aitortua du, batean eta bestean¹²². Russelekin batera, agian, idazle engaiatu edo konprometituaren eredia izan da Sartre Txillardegirentzat¹²³:

Gauza ezaguna da Sartre, xuxen ala oker, bere garai-ko borroka garrantzitsu guztietan lazkatu eta inplikatu zela buru-belarri¹²⁴.

Sartreren bizitza garden eta egiatia miresten du, tolesdurarik gabetasuna: dohain handia zeukan asaldatzen zuten kez-
kak bururaino eramateko, justizia egarri handia zuen¹²⁵. Arrazoi historiko zehatzagoak ez zaizkio ahanzi Txillardegiri: inperialismoaren etsai eta herri kolonizatuen aldeko; estalinismoaren gainbehera iragartzen jakin zuen; Burgosko epaiketan, euskal militanteen defentsan borrokatu zen¹²⁶.

Ideologikoki oso kritikoa izan zen Sartre: ia anarkista. Gizarte erakunde guztiak gorroto zituen: unibertitate tradizionala, hauteskunde sistema..., Nobel sariari ere muzin

¹²² Hain zuzen, 2007an argitaratu zuen *Horretaz. Zazpi saiakera labor* liburuan (Elkar, Donostia, 2007) lehen kapitulua eskaintzen dio Txillardegik. Ikus, halaber, in, Agirre, J., *op. cit.*, 12, 118-119. or. Russell buruz: *ibidem*, 117. or.

¹²³ Txillardegi: *Horretaz. Zazpi saiakera labor*, *op. cit.*, 9. or. Viet Nam-go gerraren salaketan, Russell Tribunalen izan zuen zeregina goraiatzan du Txillardegik, esaterako (*Ibidem*, 29-33. or.)

¹²⁴ *Ibidem*, 12. or.

¹²⁵ *Ibidem*, 17. or.

¹²⁶ *Ibidem*, 21. or.

egin zion kritikoki¹²⁷. Eta, kritika horren jomuga tematsu bat, ezkontza; Txillardegiren hiru lehen nobeletan narrazioaren haria bilakatuko zena, hain zuzen¹²⁸.

Sartrearen bidez iritsi zen Txillardegi idazle engaiatuaren kontzeptziora, halaber. Gregorio Marañón medikuaren saiakera baten bidez ezagutu zuen hamazazpi mila orrialde zeuzkan *egunkari ezkutu bat* idatzi zuela Amieiek, argitaratua izateko asmorik gabe, bere buruaren lasaigarri modura¹²⁹. Sartre irakurri zion, gero, *Qu'est-ce que la Littérature?* izeneko liburua eta, Amielen joeraren aurka, han ikasi zuen literaturak gizartean eragiteko helburua izan behar zuela:

Alegia: besterentzat idatzi behar dugula aldarrikatzen zuen Sartrek; inguruan eragiteko tresna zela luma.

Eta horrek bizkortu egin ninduen neure xedeetan¹³⁰.

Ekintza eragiteko bidetzat hartu zuen idazketa, literatura hutsaren kontzeptua bazterturik, bidenabar¹³¹. Idazleak ere hautatu egin behar du: estetika metafisikoari lotuko zaio, edo giza abereen arazo praktikoei, bestela¹³². Marxismoarekin gora-behera handiak izan baditu ere —beronen aplikazio historikoekin, oso nabarmen—, beronen ekarpenei ez

¹²⁷ *Ibidem*, 27-29. or.

¹²⁸ *Ibidem*, 26. or. Sartrek Simone de Beauvoir-ekin izan zuen harreman gatazkatsu eta aurrerakoa egiazkotasunez betea ikusten du Txillardegik (*ibidem*, 14-20. or.).

¹²⁹ Franquismoak ahalbidetzen zituen irakurketa gutxien artean, Gregorio Marañón medikua interesatu zitzaion Txillardegiri eta hark esplikatzen zuen, Amieie suitzarrari buruzko saiakera batean, nola idatzi zuen hainbeste orrialde zeuzkan *egunkari ezkutu* (*Ibidem*, 23. or.).

¹³⁰ *Ibidem*, 23. or.

¹³¹ *Ibidem*, 24. or. Kontzeptualizazio honetan dautza, hain zuzen, Txillardegiren literaturak izan zituen kritika desmasiatuetako asko.

¹³² *Ibidem*, 24-25. or.

die muzin egingo: mundua esplikat duen idazleak mundua eraldatu behar du, orain.

2. Existentzia emakumeen munduan

Esan dugunez, protagonistatzat emakume bat aukeratzen du Txillardegik bere nobelagintzan lehen —eta azken— aldiz: bera ez den protagonista bat aukeratzen du, alegia, lehen pertsonan hitz egin ezin duena —horrexegatik darabil, agian, lehen eta azken aldiz erabili ere, atzerapausotzat hartu zen kontalari orojakilearen ahotsa klasikoa¹³³ —. Elsa da protagonista hori, Bruselara ezkondu den waloniar gaztea.

Oinarri-oinarrian, ezkontzaren erakundeak aurreko nobleetan zeukan balio berbera dauka Txillardegiren hirugarren nobela horretan: gizartearen arauen onarpena, bide zabalaren onarpena. Baina emakume baten ikuspegia harturik, gizonak nozituko ez dituen kontraesan batzuk azalaraziko dira. Ezkontza burgesa hertsigarria baita errol menperatua jokatu behar duen emakumearentzat. Inguruabar horretatik hasten da disekzionatzen Txillardegi, izugarri begirada aurrerakoiarekin, gizonen eta emakumeen arteko botere-harreman ez-orekatuak.

Emakume ezkondu baten bakardadea

Ezkondata egon arren, ezkontza burgesak proposatu dion ituna sinatu duelako, hain zuzen, Elsa Scheelen bakarrik dago munduan; baina ez, modu heroikoan, aurreko noble-tako protagonistak bezala: bakardadearen hutsunea jasan ezina zaio, jasan ezina izan zaio ezkondata eman dituen zazpi urteetan zehar:

¹³³ Sarasola, I.: «Elsa Scheelen», in *Txillardegi eta Saizarbitoriaren nobelagintza*, www.idazleak.org, 2. or.; Urkizu, P.: *Literatura eta kritika*, Lur, Donostia, 1970, 146-147. or.

Non ote zen Luc? Bakardade hura eraman-ezina zitziaion (...). Nahi-ta-ezko bakardade harekiko gero eta minberatuago eta sendiberago igartzen zuen bere burua¹³⁴.

Ez du aukeratu berak bakardadea, ez da izan bere nortasuna baietsi nahi izan duenaren hautu kreatzaile bat. Aitzitik, bakardade bortxatua da emakumearentzat, senarrak gero eta gutxiago betetzen duen etxean aurkitzen duen bakardadea, lana baitu senarrak, gizarte bizitza, amoranteak baititu senarrak:

Hemen dudana ez da bakea: hau eritegiko ezintasun bakarti etsia baizik ez da. Hemen zai nago ni, egunero, egun guztian barrena, landerretxeetako agure eta atsoak bezalaxe¹³⁵.

Handiegia egiten zitzaion ezkontzeko hartu zuten etxetzarra. Eta, Elsak hala eskatuta, etxex aldatu, eta txikiago batean bizitzen jarri badira ere, ez dute aldatu etxearen eredu soziologikoa. Ondorioz, bigarren etxean ere, bakarrik iraungo du emakumeak, senarraren zain emango ditu orduak eta orduak¹³⁶. Gizon heroikoak asaldatzen dituen existentzia erraldoiaz kezkatuta bainoago, etxeko horma txikiak, etxeko horma konkretuak bete ezinik dabil Elsa, munduan bakarrik bainoago, senarrik gabe bakarrik, senarririk gabeko emazte:

Elkarriketarik ez, berotasunik ez, ezkontza har-emanik ez, senar-emaztearen artean hormazko pareta lodi bat sortu zen gero eta gotorragoa¹³⁷.

¹³⁴ Txillardegi: *Elsa Scheelen, op. cit.*, 15. or.

¹³⁵ *Ibidem*, 31. or.

¹³⁶ *Ibidem*, 32. or.

¹³⁷ *Ibidem*, 35. or.

Umerik izan balu, sikiera! Haur bihurriak izango balitu asaldatzen korridoreak eta egongela! Baina Elsa antzua da. Ez du bete gizarte burgesak esleitu dion ama izan beharra.

Ezkonduen arteko harremana argitu denean, maite ez duela eta beste emakume batzuekin dabilela aitortu baitio senarrak, Luc-en hutsune erdiragarria sentitzen jarraitzen du Elsak:

Nola sinetsi ote nuen nik ezer ostiralean? Esan egin zidan, gainera, maite ez nauena, nigana ez duela ikusten atsegina gaztetan ezagutarazi ziona baizik, gure artean ez dagoela zalantzaren bizigarrik, ahal izanak ihartu duela honen grina... Eta larunbat eta igandean han utzi nau. Berriz ere zai, berriz ere alferrik zai, ametsak berriz ere hauts bihurtuz. Enea da errua. Garbi esan zidan-eta beregan ez sinesteko ¹³⁸ ...

Ezkontza hautsi

Nobelaren haria ezkontzaren antzerkia, ezkontzaren hipokresia agertarazten duen gertakari baten bidez abiarazten da, hain zuzen: Elsak zazpi urte daramatza Luc senarrarekin ezkontuta eta, gau batean, beste emakume bati zuzendutako maitasun eskutitz grinatsu bat antze-man du senarraren arroparen poltsiko batean. Dena ulertuko du handik aurrera, gizonek emakumeak zertarako erabiltzen dituzten ulertuko du, bat-batean, senarrari aitortuko dionez:

Zuk maindire baten azpian besarkaturik behar bide nauzu, bestela pozgarri ez banintzaizu bezala ¹³⁹ .

¹³⁸ *Ibidem*, 73-74. or.

¹³⁹ *Ibidem*, 24. or.

Aurrerantzean, objektiboki, inoiz baino gehiago, subjektiboki, inoiz baino argiago jasango ditu ezkontza burgesaren lotura eta morrontza guztiak, gatibu egongo da etxean¹⁴⁰, aspertu egingo da, betirako geratzeko etorri den denbora geldo batean, igarotzen ez den denbora zornetu batean.

Gainera, Elsari bi aldiz egin dio huts ezkontza burgesak, senarrarekin ongi adostu ez delako ez ezik, agorra denez, ezin izan duelako haurrik izan. Alegia, ez da jabetu familia patriarkal tradizionalak emakumeari esleitzen dion baliorik nagusienaz¹⁴¹.

Inguruabar horretatik egin beharko dio uko ezkontzaren erakundeari. Baina borroka zaila izango du, etsipen handia izango du saritzat: askatasunik ez du lortuko, zapuztura sentituko du, Leturiak edo Peruk ez bezala, izan duen heziketa lokarri baten ondorioz, betirako maitasunean eta familia tradizionalan sinesten jarraitzen duen heinean.

Peru Leartzakoak, ordea, ezkontzaz eta betirako maitasunaz ez du ezer jakin nahi izan. Leturiak ezkontza-ituna hautsi du, bere bidearen bila, Parisera joaterakoan, geroztik, damutu eta ezkontzaren barrura itzuli bada, ez da izan ezkontzan sinesten duelako, lege kristauan, lehen bezain gutxi maite duen Mirenez errukitu delako baizik.

Emakume banandu baten bakartasuna

Pentsa liteke, senarraz banatzea erabaki duenean, bere nitasuna garatzeko ausardia hartu duenean, bizitza berria hastera doala Elsa. Balirudike denboraren jabe bilakatuko dela aurrerantzean. Lagunak egingo dituela, edo bidaiatu —es-

¹⁴⁰ *Ibidem*, 55. or.

¹⁴¹ *Ibidem*, 26. or.

painola ikasten hasi baita akademia baten—, Brusela utzi... Baina, aurreko lotura guztiak sendoegiak izango zaizkio eta ezingo du mendean hartu bakartasuna, ezingo du bakardade sortzaile baten jabe izan.

Maitemindu ere, maiteminduko da hizkuntza-akademian ezagutu duen Vanden Broeck ikaskide abegikor eta zintzoarekin. Baina, senarraren esperientzia zaputzetik ezer gutxi ikasi izan balu bezala, Vanden Broeck maitatua galdu duenean, nora esan gabe, joan eta desagertu baitzaio, inoizko bakardaderik lazgarriena sentitu du:

Orain, benetan, zinez, bakardadean leize ondoraino amildu naizela esan dezaket¹⁴².

Ez da ongi moldatzen. Ez daki bakardadeari aurre egiten. Ez du autonomia eskaintzen duen heziketa jaso, seguruenik.

Komunikazio arazoak dauzka jendearekin. Sartreren pertsonaia bat bezala, bakarrik bizi da, erabat bakarrik; ia ez du inorekin hitz egiten; ez du besteengandik ezer jasotzen, ez du besteengana ezer ematen¹⁴³.

Bakardadea uxatzeko estrategia berriak erabiltzen ere ez du asmatzen. Katua erosten du, esaterako, bakardadea hautsi nahi duenean¹⁴⁴, giza abereen hutsunea giza abere ez den animalia batek estal balezake bezala.

Baina ez da hain erraza bakardadeari ihes egitea:

Bakardadea, aste-bukaeretan, bakardadea gau-minean, bakardadea Neuve-kaleko eskaparate jendetsuen beren aurrean¹⁴⁵.

¹⁴² *Ibidem*, 108. or.

¹⁴³ Sartre, J-P.: *op. cit.*, 21. or.

¹⁴⁴ Txillardeggi: *Elsa Scheelen, op. cit.*, 132. or.

¹⁴⁵ *Ibidem*, 134. or.

Artefaktu beroagoak, artefaktu humanoagoak behar ditu: beti gizonak. Emakumea da, eta, gizarte burges garaikidean, emakume batek, senarraz banatu denean ere, gizonezko baten laguntasuna behar du, nolabait beteko badu bakardadearen zuloa.

Umerik izan balu, sikiera! Baina Elsa antzua da. Ez du bete gizarte burgesak esleitu dion amatasunaren agindua.

Berunezko laino batek bezala estaltzen duen sare trinko horretan, gero eta sakonagoa du bakardadea, gero eta gehiago dirudi gaixotasuna, sendatu ezin duen kultur zauria:

Elsa-ren mundua, eritasun luze eta larrietan bezala, estutu egiten zitzaion egunetik egunera. Gero eta izaki gutxiago maite zuen; eta maite zituen haiekiko berekiko, epeldu egiten zela iruditzen zitzaion, ezariezarian erreparatzen baitzuen ez inondik eta ez ezertarik bete zezakeenik etorriko zitzaiola. Gero eta jende gutxiagorekin hitz egiten zuen¹⁴⁶.

Peru lagunetatik eta familiatik desatxekitzera eraman duen zabarkeria berbera da. Leturia Parisera eraman duen bulkada *agoniko*¹⁴⁷ berbera da. Baina arras arruntagoa, arras monotonoagoa, bere patuaren jabe bihurtu ezin duen emakume lotu bati dagokiona.

Hegelen dialektikan, emakume morroi batek ezin baitu berdindu ugazaba-gizon aristokratikoaren gorentasuna.

Etxean preso

Etxea esleitu zaio Elsari egon-toki, izan-toki. Hor beharko luke garatu bere subjektibitate femeninoa. Baina preso bizi

¹⁴⁶ *Ibidem*, 154. or.

¹⁴⁷ Unamunok bezala, *borroka* zentzuarekin erabiliz *αγων* sustrai grekoa.

da lau hormen artean, kartzelan preso bizi direnekin alde-
ratzen du bere burua, bere denbora:

Gartzelan luzarorako dauden presoek gertatu ohi
zaien bezala, Elsa-ri tema bakar bat nagusitu zitzaion:
denbora nola arinago pasaraziko ¹⁴⁸ .

Waloniako inguru txiro batetik etorria, hiriburuko gizarte
burges aberatsean luxuzko etxea ezagutu du Elsak, aisialdi
arina, orobat, baina konturatu da urrezko kartzela batean
bizi denaz.

Antoine Vanhamme gizon aberatsak haren etxera gonbi-
datu duenean, bestalde, luxu eta nasaikeria gorenagoak eza-
gutu ditu:

Bostak eta bistetan Jaguar-sport gorri ditziratsu ba-
tetik klaxona joa zuen bi aldiz Vanhamme-k (...).

Kalexka baketsu batean (...), eta muino leun baten
kaskoan, xalet zoragarri bat agertu zen.«Ma Chau-
mière» bera ez zen haren mailakoa.

—Hori duzu«Les Acacias» —esan zuen Vanhamme-k.

Uztai antzeko atari batetik gora abiatu zen Jaguar-a,
arinki. Berebilaren motorra isildu zen.

Hura bakea! Aurretik zuhazti trinko bat ageri zen, eta
han-hemenka, baina ez elkargainka metaturik Ver-
viers-ko bazterretan zuhaitz-mordoak bezalatsu, xa-
let batzu, jauregi batzu hobe,«Les Acacias»tikako
musika epelean lozorroan igeri. Arbelezko teilatua,
gailurra zorrotz, eta sahetsean pizina urdin-urdin bat,
trapolina zaindari.

Xaleta estaia bakarrekoa zen (...). Tximene bitxi luze
bat gailen etxearen zelatari, leiho zabalak alde guztie-

¹⁴⁸ Txillardegik: *Elsa Scheelen, op. cit.*, 153. or.

tara; zenbait pago eder atzeko aldetik, enborrak naras lizundurik. Eta aurrean, atariaz gain, agiriko harritz eraikitako hesi bat, estalpe menditar bat erdian, eta parkin-ean bostpasei berebil. Elsa-k ez zuen espanturik egin nahi, baina liluratua zegoen arras¹⁴⁹.

Elsak, ordea, erdeinatu egin ditu bertako luxuak oro: horiek guztiak, ez baitira autentikoak, ez baitira sasi-etxe bati dagozkion apaingarri distiratsuak baizik:

Zertako, ordea —pentsatu zuen Elsa-k— jauregirik ederrena, barruan zorian izpirik ez dagoenean?¹⁵⁰

Asperdura

Bakardade sortzaile eta estetikoak denbora irensten duen bezala, ez baitu giza abereak bizitza nahikorik bizitzeko, proiekturik ez daukanarentzat asperdura dakar bakardadeak. Elsak argitasun txundigarritz darakus jende gehienaren egoera dela hori, masa gizartean jenderik gehiena bizi delako proiekturik gabe:

Jendea aspertu egiten da —zioen Elsa-k berekiko—. Ni neu ere aspertu egiten naiz; baina Pâquerettes-era etorri arte ez nekien. Orduan Luc falta zitzaidan, haurrak falta zitzaizkidan, gauza askoren gabea nabaitzen nuen¹⁵¹.

Denborarekin gauzak ez zaizkio hobetu askorik:

Gaur aldiz, dena sobera zait, mundu osoa zait gehiegizko eta larregi¹⁵².

¹⁴⁹ *Ibidem*, 112-113. or.

¹⁵⁰ *Ibidem*, 113. or.

¹⁵¹ *Ibidem*, 144. or.

¹⁵² *Ibidem*, 144. or.

Hain zuzen, jendeak egiten dituenak orok, kulturak eraikitzen dituenak oro, asperdura gailenezin hori uxatzeko ahalgin alferrak dira beretzat:

Gure aspertzea izkutatu: horra hor mundu honetan lortu nahi den bakarra ¹⁵³ ...

Masa gizartea zuzenean kritikatzan du Txillardegik Elsaren bidez, atomo anomiko eta ordezkagarri bihurtzen gaituen homogeneizaioa, automatizazioa, errutinizazioa... *Ford* ko-txeak katean ekoizteko sortu zen mekanika taylorizatua gizakietara aplikatu duen kultura da gurea ¹⁵⁴.

Oro har, aspertuta bizi den jende integratu horrek beste gauza batzuk egiten ditu, ordea. Batzuk aberastu egiten dira, Elsak senarraren familian ezagutu duenaren arabera; beste batzuk morrontza lan-egoerari oldartuko zaizkio, klase-borrokari lotuko, bere aitaren eta bere aitaren lagunen eredura; beste batzuek, nazioa sentituko dute, beraz maiteminduko den Pierre, waloniar langile-apaiak bezala. Baina Elsak ez dauka zereginik: ezkondata egon denean ezkondata egon delako eta, banatu denean, banatu delako, asperdura gailenezina dabilkio ondoan beti.

Denbora geldo jasanezina

Txillardegiren aurreko nobeletan denboraren azkartasuna eta iragankortasuna bazen protagonisten kezka nagusia, ezin baitzuten bititza-proiektua osorik burutu hain arin zihoakien ibaian, Elsaren kasuan astuna da denbora, politikiegi igarotzen da, asperdura darama denborak bere esentzian:

¹⁵³ *Ibidem*, 143. or.

¹⁵⁴ Ikus, Kracauer, 30. oinpeko oharrean.

Gartzelan luzarorako dauden presoei gertatu ohi
zaien bezala, Elsa-ri tema bakar bat nagusitu zitzaion:
denbora nola arinago pasaraziko¹⁵⁵ .

Bere kartzelan, bere etxeo horma estuan artean, denbora-
tasunaren arrazionalizazioa ere egin dauka emakumeak,
Leturiak eta Peruk egin zezaketenaren oso bestela egin,
hain zuzen:

Ez du gizadia denboraren isuri etengabeak izutzen.
Areago lazten gaitu denbora huts aspergarri hau
bete behar hertsia. Denbora polikiegi igarotzen da:
horra kaka¹⁵⁶ .

Hain zuzen, asperdura mozorrotzeko eragin du giza abere-
ak kultura, asperdura estaltzeko asmatu ditu giza jolas eta
jarduera guztiak:

Beste horien jokoak, Coca-Colak eta ekintzak; sasi
ezkertarren erreboluzio-nahia eta kabaretak, mis-
tika eta ordikeria, funtsean orobat, katramila izkutu
berberaren ondorio dira: denboraren igaroaren ito
behar isila eta aitortu-ezina uko egiteko moduak¹⁵⁷ .

Freuden tesi ezagun bat gogoratzen digu honek: giza instin-
tua arautzeko modu zaputza da kultura¹⁵⁸ . Beti aitortu du
Txillardegik, Marxek ez bezala¹⁵⁹ , Nietzschekin
batera, «zorabioa» sortu ziola Freudek.

¹⁵⁵ Txillardegi: *Elsa Scheelen*, op. cit., 153. or.

¹⁵⁶ *Ibidem*, 144. or.

¹⁵⁷ *Ibidem*.

¹⁵⁸ Batez ere, in, Freud, S.: *El malestar en la cultura*, Alianza, Madril, 1980. Ikus, Zapiain, M.:
Txillardegi eta ziminoia, op. cit., 18. or.

¹⁵⁹ Txillardegi: *Euskal Herria helburu*, op. cit., 285 or.

Dena da bete-lana gizarte bizitzan, egiazki asetzen ez gaituen lan alferra:

Hutsunea nekez mukurru daiteke hutsez. Hutsunea, aitzitik, hutsa erantsiz, handiago egiten da, sakonago, gorriago, hutsago¹⁶⁰.

Katramilazko gertakari horiei buruzko hausnarketa gortzen ari denean, une batez, esperientzia partikularretik izaera jeneralera egiten du jauzi Elsak, jende guztiak partekatzen duen bakardadea da berea:

Nire bakardadea nabarmena da; besteena itxuretan diximulatua. Funtsean biak gauza bera¹⁶¹.

Gogoeta hauetan ukatzaile heroikoaren lekuan jartzen da Elsa, Leturi eta Peru Leartzakoaren pare. Baina, ematen duenez, ezin du erabat garatu jarrera hori, ezin zaio lotu bizitza estetiko bati.

Arinegi zihoanean, arinegi zihoalako, lehen, Leturia eta Perurekin; geldoegi doanean, geldoegi doalako, orain, Elsarentzat: denbora beti da arazo giza aberearentzat. Ez diogu neurririk aurkituko hain erraz.

Egiazki, denbora ez baitoa edo etorri. Geu baikara goazenak eta gatozenak. Geu gara gabiltzanak, batzuetan arinegi, beste batzuetan geldoegi, geure erritmoa egokitu ezinik.

Edaria eta pilulak

Denboraren zuloa izugarri handitu zaio Elsari, etsipena ere areagotzen ari zaio, ezin duenez bakardadea estali gizarte-jolasen bidez —mistika edo iraultza besarkaturik, adibi-

¹⁶⁰ Txillardegi: *Elsa Scheelen, op. cit.*, 144. or.

¹⁶¹ *Ibidem.*

dez ¹⁶² —, eta ihesbideak aurkitu beharko ditu. Eta, ihesbideen artean, ihesbidetik gutxi duen bat aurkitu du, are isolamendu larriago batera eramango duen jolas bakarti bati lotu zaio: estimulanteak hartzen hasi da Elsa. Zeremonia konpultsiboak abiaraziko ditu, gero eta sarriago, gurpil zentripeto baten bultzadaz.

Batzuetan, edariari emango dio, aseezina duen alkoholegarri bati men eginez:

«Martini» gorri botila pare bat erosi zuen, mozkor«demas» eta oso bat harrapatzeko delibero irmoan (...).

Eta«Martini»ari eman zion: baso bat, eta beste bat, eta hirugarren bat, hirurak gainezka beterik. Irratia piztu zuen, eta dantzan hasi zen. Musika alaia zitzaion:«rock» asko, beharrik; baina tristura ilun bat gairitzen hasi zitzaion. Hau garaitu nahiz, ekin egin zion edateari, eta berotasun eramangaitzez bete zen ¹⁶³.

Eta, edaria ez denean, pilulak hartzen ditu. Lorik egin ezin duenean, hasieran; lorik egin nahi ez duenean, geroago.

Arazoak baitauzka loarekin, esnari dagoenean, lo dagoenean:

Gero eta goizago oheratzen zen, goizago loak hartu nahian. Zortzi t'erdietako egoten zen maiz ohean.

Baina gero eta zailago lotan hastea, gero eta ugariago barbiturikoak ¹⁶⁴.

¹⁶² Dogmatismo erlijiosoa eta dogmatismo politikoa, dogmatismo guztiak kritikatu ditu Txillardegik beti, koherentziaz betea, bizitzan bezala, bigarren bizitza bat izan zuen literaturan. Helburu horrekin idatziko du, berehala, *Haizeaz bestaldetik* nobela esperimentalak.

¹⁶³ Txillardegi: *Elsa Scheelen*, *op. cit.*, 59. or.

¹⁶⁴ *Ibidem*, 136. or.

Eta pilulak irensten ditu loak hartu ezin duenean, gero eta dosi handiagoetan, gero eta gehiago, kokteletan, marka ezberdinak nahastuta. Pilulak, ustekabe txikiena ere sortarazten zaionean. Bere nahiaren aurka, Pierre-rekin geratu delako, adibidez:

Gaueko hamaikak jo zuten. Logalerik batere ez Elsa-k. Ostiralero bezala«Bellergal» pare bat hartu behar-ko, edo gehiago; edo-ta«Bellergal» bat eta bi«Valium». Bestela ezin lorik egin ¹⁶⁵.

Edozein aitzakia izango da ona pilulak hartzeko. Oso modu adierazgarrian, pilulak behar-ko ditu, senarrarengandik banatu ostean, Vanden Broeck, inor ez bezala maitatuko duen gizona, ondotik desagertuko zaionean ¹⁶⁶. *Bellergal* pilulak hartzen hasten da, beraz, Elsa ¹⁶⁷, eta nobelan zehar behin eta berriro eroriko da dependentzia horretan ¹⁶⁸.

Izan ere, benetan, bizitzarekin dauzka arazoak, bizi osoa dauka haizez eta dolorez betetzeko ¹⁶⁹. Eta Peru alkohol-orgia batean amildu den bezalaxe, Elsa pilula oturuntza bulimiko batean amilduko da, gero eta sarriago:

Gero eta goizago oheratzen zen. Askotan negu minean batez ere, zortzietarako ohean zen. Baina, noski, ez baitzen ezertxo ere nekatu egunean barrena, logalerik ez zuen; eta, loak hartu beharrez, gero eta barbituriko ugariago irentsi behar izaten zuen. Ohitu

¹⁶⁵ *Ibidem*, 237. or.

¹⁶⁶ *Ibidem*, 106. or.

¹⁶⁷ *Ibidem*, 34. or.

¹⁶⁸ *Ibidem*, 54. or.

¹⁶⁹ *Ibidem*, 138. or.

ala, bestalde, emendatu-egin behar pastila-araua, eta mota aldatu behar: «Bellergal», Librium», «Valium», eta abar. Gero eta beharrago, gero eta ahulago eragina. Elsa-ren gau-mahaiak farmazia txiki bat zirudien: botilatxo ñimiñoak eta koxkorrak, horiskak eta gorriskak, botilatzar urdin hura erdian ¹⁷⁰ ...

Estimulagarririk gabe ezin du bizi, ezin du bititza jasan.

Oso feminizatua dagoen lasaigarrien ohitura da, mende-baldeko gizarte euforikoak ¹⁷¹ ekarri duen pilulen kultura ¹⁷², berehala, istripu batez, gain-dosi batez, heriotzara eramango duena.

Bakarkako sexua

Estrategia asegarriagorik aurkitu du, halere, Elsak, bakarkako atseginari lotu zaio, dardararaziko duen gizon aktiboaren zain egoteari utzi eta, une berean, gizonentzako sexu-jostailu bat izateaz nekatuta:

Sexuaren aldetik ere buru-haustea konponduta zeukan erdipurdi. Barekeria bakartitan atsedetea aspal-didanik burutu zitzaion: burutu, eta eginez obratu. Luc-en hiruzur lotsagabeak gertatze berean eroria

¹⁷⁰ *Ibidem*, 153. or.

¹⁷¹ Ikus, Bruckner, P.: *La euforia perpetua*, Tusquets, Bartzelona, 2008.

¹⁷² Estatu Batuetan 1930etik aurrera hasi ziren komertzializatzen dexedrina, benzedrina eta methedrina (anfetamina eta speed-a, guretzat) eta, kimika harekin sendatu nahi ziren sintoma asko eta asko garai hartako emakumeen munduarekin estu lotuta zeuden: nekea arintzen zien, etsipena jasanarazten eta, gainera, argaltzeko ere balio omen zuten, alegia, etxeko andreen estereotipo kulturala elikatzen zuten, senarrak beti nahi baitzuen etxean, neskame langilea ezezik, emakume alaia eta liraina (ikus, Preciado, B.: *Pornotopia. Arquitectura y sexualidad en Playboy durante la guerra fría*, Anagrama, Bartzelona, 2010, 160-161. or.). Emakumeak gazte mantentzeko balio omen duten pilulak asmatzera iritsi da, horrela, farmakoen industria: DHEA (dehidroepiandrosterona) deitzen dira pilula miragarri horiek (ikus, Lipovetsky, G.: *La felicidad paradójica*, Anagrama, Bartzelona, 2007, 262. or.).

zen haietara lehenengo aldiz, arnasa gogotik lipar batez hartu nahiz; eta gero eta maizago ondoko urteetan. Sexu-atseginez hilarazi nahi zuen tristura bizi ezin-zorrotzago hura; baina sexuaz bestaldera joan ezin zitekeela laister ulertu ere. Halere, hotzean, gizon baten berotasuna kilikagarriegi agertu bezain laister, teknika ilun eta aitortu ezinezko haietan ematen zen Elsa, eta sexuaren beharra bakarrean agortzen zuen, bihotzaren bakea, alde horretatik bederen segurtatuz ¹⁷³ .

Garai hartarako Euskal Herritik begiratuta, oso aurrerakoia da hau. Izan ere, franquismo gorrian, euskal emakume batek izan zezakeen sexu-heziketa eta esperientzia urriaren aldean oso aberatsa da Elsaren gorputza. Garai horretakoak dira, hain zuzen, narratzaileak darabiltzan bakarkako atseginarenean erdipurdikotasuna, erori aitortu ezinaren metafora, edo narritadura-teknikaren iluntasuna.

Alderatu Elsaren bitzta sexuala, esaterako, *Exkixu* nobelaren protagonista maskulinoaren bizipen kastratuekin, gaez, ohean, Kontxako baraderatik ikusi dituen emakumeak gogoratzen dituela:

«Eztitek barkaziorik!... Gorantz begira... Baina ederrak zeudek, alajainkoa! Izter luze beltzaran haiek...»
Atsegin bala iheskor batzuk inarrosi naute, eta barekeria ez-tian lasaitu naiz.

Berehala, ordea, tristura eta damua jabetu dira nitaz. ¹⁷⁴
Eta izen bat ahoskatu dute nire ezpainenek: «Gurutze» .

¹⁷³ *Ibidem*, 238. or.

¹⁷⁴ Txillardegik: *Exkixu*, Elkar, Donostia, 2003, 76. or.

Elsak esparru publikoan, gizonen esparruan, espiritu sortzaile maskulinorik ez badu, ez badu izan nahi eduki, agian, esparru intimoan, menderatu egiten du debekatuta izan duen gorputzaren antropologia.

Sexua, agian, beste emakume batekin

Sexu harremanak izateko gizonik ez du aurkitu Elsak, Vanden Broeck desiratuaren salbuespen puntualarekin, ez du ase zezakeen gizonik ezagutu. Areago, nazka ere eragin diote gizonik gehienek. Nazka eta higuina sentitzen du, adibidez, Pierreren eskuez pentsatze hutsarekin:

Eskua luzatu egiten da ikaragarri nirea bilduz; eta maite ez nauten gizonek baino gehixeago estutzen dit bere ahur bero horretan¹⁷⁵.

Baina bere sexu bulkada ez da desagertu horregatik: bakar-kako sexua hasi da praktikatzen, sarri, arestian ikusi dugunez. Sexu bizi horrek betetzen du, segurtatzen dio bakea bihotzean, hein batean besterik ez, ordea:

Sexu-atseginez hilarazi nahi zuen tristura bizi ezin-zorrotzago hura; baina sexuaz bestaldera joan ezin zitekeela laister ulertu ere¹⁷⁶.

Nora nahi du joan, ordea, sexuz bestaldera? Afektibitatea behar al du sexuarekin batera? Beste giza abere batek baino eman ezin diezaiokeen maitasun hunkibera behar al du? Haragia haragiarekin sentitu, dardarka, epel, lizun, busti?

Buruan darabiltzan irudien mekanikak bultzaturik, une batez, nahi gabe bezala, ordura arte ez bezala, gizon baten-

¹⁷⁵ Txillardegi: *Elsa Scheelen, op. cit.*, 237. or.

¹⁷⁶ *Ibidem*, 238. or.

gan pentsatu beharrean, Elsak beste emakume baten beharra sentitzen duela dirudi:

Zergatik ez dena aitortu emakume bati? Areago (eta ez zuen pentsatu nahi honetaz), behin edo bitan ez ote zuen nabaitu emakume harekiko gozotasun leun berri bat?¹⁷⁷

Irrika homosexual edo lesbiano hori, urrats bat gehiago izan daiteke bere izaeraz, bere femeninitasunaz kontzientzia hartzen ari den emakume honen kasuan.

Inspirazio lesbiano hori sakonago garatzen ez bada ere, iradokizun ustekabe horrek ongi azaltzen du nolako mundu ikuspegi zabala zeukan Txillardegik: apaizen kultura zurrurenaren erdian —ortodoxia politikoa bera ez zen askoz irekiagoa—, libre, aurreiritzien etsai ageri da.

Edertasun estereotipatuaren ajea

Elsaren subjektibitate femeninoa gorputzetik bertatik hasten da esnatzen, bere baitatik ez ezik, bere baitaren berme fisikotik, eta ez kanpotik, gizonen begietatik jasotzen duen irudiarekin. Izan ere, begirada maskulinoak azpimarratzen dion edertasunak ezinegona besterik ez baitio ekarri.

Ederra da Elsa, zinez, mendebaldeko kulturak emakume bati goستن dizkion ezaugarri guztiak ditu: gizonak erakartzen ditu fatalki, ar gosetien grina pizten du animaliatasunez, arrak erakartzeko funtzioa baitu edertasunak, gainerako animalien artean bezala, maitasun platonikoaren azpitik, gizonen eta emakumeen arteko harremanak oso gutxi humanizatu dituen gizarte burgesean. Baina, zoriona gabe, edertasun horrek zorigaitza dakarkio Elsari. Gizonek bere gorputza bilatzen duten heinean, jopu bizi da Elsa berea ez

¹⁷⁷ *Ibidem*, 238-239. or.

den gorputz batean, ezin du gailendu besteen desiragarritasunaren biologia sistematikoa.

Senarrak aitortu dio, zintzotasuna eta ankerkeria maila berean nahasiz, haren gorputza baino ez duela inoiz desiratu, maindireen azpian besarkatzeko baino ez duela behar izan¹⁷⁸; areago, emaztetzat, gaztetan zuen gorputzagatik hartu zuela aitortu dio, sexurako artefaktu guri baten jabe zelako, besterik gabe¹⁷⁹. Antoine Vanhaumme arkitekto aberatsak ere, haren gorputzaz kapritxoa hartu duelako gonbidatu du etxean egin duen luxuzko jaira eta, gero, haragiaren sari lizuna lortu ezin izan duenean, indarrez hartu ezin izan duenean, botata utzi du emakumearen etxeko atariaren aurrean. Elsaren amorrua berez etorri da:

—Ez diot sekula barkatuko! —esaten zuen ahapeka—. Zer uste zuen urde harroputz horrek? Beharbada, bere eroaldian, eta irudimenez, bere pizinan ikusi nahi nau, biluzik, berari irribarrez so¹⁸⁰ ...

Kontzientzia osoa du Elsak zorigaitzera eraman duen edertasun horrez. Eta bizitzak, aurrera doan heinean, uste hori indartu besterik ez dio egingo:

Edertasunak zoritxarrekoago egiten gaitu¹⁸¹.

Madarikatu ere egiten du bere edertasuna, gizartearen ispi-luak, gizonen ispilu estereotipatuak duen irudia erakusten dionean:

¹⁷⁸ *Ibidem*, 24. or.

¹⁷⁹ *Ibidem*, 74. or.

¹⁸⁰ *Ibidem*, 123. or.

¹⁸¹ *Ibidem*, 113. or.

Egokia zitzaidan gaztetan emakume ederra izatea.
Baina gaur madarikatu egiten ditut neure liraintasuna
eta neure begi nabar ilunak¹⁸².

Edertasuna eta antzutasuna

Bi aldiz zaio gorrotagarri edertasuna Elsari, bere gorputzaren edertasuna erdeinatzeko arrazoi gehigarria du, ederra izanik, antzua baita, ederra bezain antzua, antzua bezain ederra. Izan ere, gizonen gizarteak lehenetsi duen arrazionalitate biologikoak indargabetu, ahuldu, ilundu egiten dio gorputzaren baliabide estetikoak. Ezkontza eta familia ardatz nagusi dituen gizonen gizartean, edertasunaren gainetik, haurgintza ezartzen baitzaio helburutzat emakumeari: hor ditzake bere xede guztiak ase, ama izanik, seme-alabak gobernatuz, etxeko andere izanik¹⁸³. Ondorioz, Luc-ekin ez-konkudenta egon den bitartean, antzua den Elsari nabarmenago geratu zaio edertasunaren alferra.

Haurrik izan ezin zuela jakin zuenean, intuizio handiz, edertasunari egotzi zion, hain zuzen, antzutasuna:

Zertarako ote dira maila guztietan eta maiz xamar
edertasuna eta antzutasuna elkarrekin egokitzen?¹⁸⁴

Naturak berak determinatzen bide du egokitzapen hori.
Naturari buruzko begirada kulturala dela iragarri gabe,
Belgikako paraje jakin bi erkatzen baititu Elsak, metafora

¹⁸² *Ibidem*, 129. or.

¹⁸³ Gizateriaren historia osoan zehar elikatu diren amatasunaren eta emankortasunaren mito zein estereotipo guztiei buruz adibideak biltzea ez da batere zaila. Txillardegiren iturri esistentzialista aztertzeko erabili dugun Kierkegaardek egiten du bere historia hori guztia, esaterako: «etikoki hartuta, ugalketarekin lortzen du emakumeak gorentasuna» (*El concepto de la angustia*, op. cit., 86. or.). Halere, gizonari bezala, gizarteak erabakitzen duen esparru etiko horrez kanpo esparru estetiko bat ere onartzen bide dio emakumeari.

¹⁸⁴ Txillardegi: *Elsa Scheelen*, op. cit., 39. or.

naturalista eta determinista bat osaturik, edertasunaren eta antzutasunaren arteko uztardura zaputza nabarmentzeko:

Zertarako ote dira maila guztietan eta maiz xamar edertasuna eta antzutasuna elkarrekin egokitzen? Zergatik elkarren ekarle? Ardenak ederrak dira; baina hustu egiten dira, jendea han bertan ezin bizi izanik. Ardenak antzu dira, baina eder. Luc-ek maite duen Antwerpe-ko kaietako tegiak, ordea, itsusiak diren neurrian, itsusiak direlako itxura denez, jendea erakartzen dute. Antwerpen emankorra da, baina itsusi. Beti bat, beraz¹⁸⁵.

Emakume antzuaren gaia berriro aterako du Txillardegik *Putzu* nobelan. Gerra karlista eta erbestealdi luzeak nozitu ostean, bizitza zoriontsua antolatu du protagonistak, ezkontidetzat hartu duen Milafrangako Garazi emaztearen ondoan. Baina, halako batean, haurrik izango ez duela esan dio sendagileak emakumeari: *vous n'aurez jamais d'enfants*. Iragarpen mediku horrek zentzurik gabe utziko du Garaziren bizitza:

Ilundu egin zen Garaziren zerua; eta, ondorioz, nirea ere bai, eta uste baino azkarkiago (...)

Askotan, ilunabarrean etxetik jaitsi, eta Aturri ertzetik pasean ibiltzerakoan, umeak jostari topatzen genituen, ama gazteen eskutik edo inude janzkerako emakumeen besoetan.

Eta lehenengo aldiz erreparatu nuen (...): Garazi begira gelditzen zitzaiera, eta leunki mintzatzen¹⁸⁶.

¹⁸⁵ *Ibidem*, 36. or.

¹⁸⁶ Txillardegik: *Putzu*, op. cit., 334. or.

Hil egingo da handik hamar urtera, tristurak jota, arima zaurituta, haurrak eduki dituen emakumearen zoriontasun batea ezagutu gabe. XIX. mendeko gizarte tradizional batean bizi da Garazi, baina, Elsaren gizarte modernoan, ez dira gauzak askorik aldatu.

Emakume kontzientzia gabeak

Elsa, poliki-poliki, emakume izaeraz jabetzen ari dela ematen du, bestelako emakume subjektibitate bat garatzen ari dela, alegia. Ez du bere burua aise ikusten gizonen artean, eta ezta ere, gizonen eredia buru-belarri onartzen dutelako, batere nortasun propiorik ez daukaten emakumeen artean. Konturatu da emakume batzuek gizonen begietara ederra delako gorrotatzen dutenaz. Beste batzuek, aitzitik, estereotipo inosatuaren ontasuna zalantzan jarri gabe, gizonen begietara ederra delako miresten dute.

Edertasunagatik gorrotatzen dutenen artean dago bere koinata Esther, adibidez:

Elsa, alderantziz, ez zuten batere gogoko: ez Van Genk-ek, ez andereak. Esther-ena gauza nabarmena zen: emakume itsusiek ez dute sekula barkatzen emakume ederren edertasuna: Elsa irain garratza ziztzaion, begirada leun hura ezpata zorrotz; eta bere bekaizkeria ezin zuen izkutatu: Esther-ek Elsa gorrotatu zuen.

Beste aldean dago Lily, luxuz eta nasaikeriaz lepo bizi den goi mailako gizartean ongi txertatutako emakumea, Vanhamme arkitektoak etxean antolatu duen jai batera gonbidatu duenean, Elsaren edertasunaz jabetzeko duen asmo haragikoi instrumental hutsa legitimatu baitu emakume horrek:

—Eta nor ekarri behar duzu pizina horretara? Tristea litzaizuke, nik uste, hor bakar-bakarrik zuk igeri egin beharra. Ez didazu ukatuko, Antoine! Gainera, eta hau banekien lehendik, ongi aukeratzen duzu beti (...).

Eta begi-keinu gaizto bat Vanhamme-ri eginez, Elsa begiratu zuen nabarmenki (...).

—Uste dut edozein zozokeria egin daitekeela beragatik —ekin zuen Lily Vander Linden-ek— (...)¹⁸⁷.

Emakume horiek ez bezalakoa da Elsa, ordea, jarrera berbera antzematen du ederra delako gorrotatzen duen emakumearengan eta ederra delako miresten duen emakumearengan: bi-biak gaitzesten ditu. Bestelako emakumeak nahiko lituzke ondoan, munduan.

Gizonen nazka

Arestian esan dugunez, inguruabar maskulinizatu horretan, Elsa Scheelenek ez du Leturiak edo Peruk baino nazka gutxiago sentitzen. Bizitzak, denboraren unitate handienak, higuina ematen dio¹⁸⁸. Egunak, denboraren unitate txikiak, orobat: higuina ematen dio igandeak¹⁸⁹, eta, halaber, igandeen ostean datorren astelehenak¹⁹⁰.

Nazka hori ordea, ez da Leturiak edo Peruk senti zezaketen berbera kualitatez, aitzitik, Leturiak eta Peruk parteka-

¹⁸⁷ Txillardegik: *Elsa Scheelen, op. cit.*, 116-117. or.

¹⁸⁸ *Ibidem*, 59. or.

¹⁸⁹ *Ibidem*, 140. or.

¹⁹⁰ *Ibidem*, 144. or. Camusen pertsonaia batek antzeko gorrotoarekin irekitzen du igande bat, esnatu orduko: «Igandea dela pentsatu dut eta aspergarri gertatu zait: ez dut maite iganderik» (Camus, *Arratza*, Kriseilu, Donostia, 1987, 24. or.). Gauean, berriz, goizeko gogoeta berarekin ixten du igandea: «Igandea galdu bat zela pentsatu dut (...) bihar lanera joan beharra nuela eta kontua ezer ez dela aldatu» (*Ibidem*, 27. or.).

tzen duten gizonen gizarteak inposatu dion guztiarekin nazkatuta bizi da Elsa. Nazka berezia da berea, nazka femeni-
noa:

Ez zuen ez«maite» eta ez horrelako hitzik batere gizaseme baten ezpainenatik entzun nahi. Behazuzko garnataz jantzitako hamu pozoitsua zitzaizkion¹⁹¹.

Ezkonduta egon denean, senarrak erakutsi dion axolagabekeriaz nazkatuta bizi izan da protagonista¹⁹². Gero, senarrak maitasun harreman paraleloa daramala antzeman duenean, genero maskulinoak sortarazi dio nazka, oro har, hots, gizon batekin ohe bakarra partekatu beharrak¹⁹³. Gizona artasun animalia bilakatu zaio:

Gizonetan arra ikusiko zuen aurrenik: arra jelean, susara, gori, abereak baino okerrago. Hau ikusiko zuen beti lehenki, eta hitzetan ez zuen deusik ere sine-tsiko¹⁹⁴.

Asmo gaiztorik ez dakarren arren, berekin maitemindu den langile-apaiza ez da izango salbuespena: hark ere nazka emango dio¹⁹⁵. Ezin du Pierreren begirada jasan, ezin ditu Pierre inozoaren azalpenak entzun, asaldatu gabe. Maite ez dutenen eskuak, desira hutsez antzematen dituen esku sukartsuak baino nazkagarriagoak zaizkio maite duen gizon horren eskuak:

¹⁹¹ Txillardegi: *Elsa Scheelen*, op. cit., 231. or.

¹⁹² *Ibidem*, 33. or.

¹⁹³ *Ibidem*, 19. or.

¹⁹⁴ *Ibidem*, 124. or.

¹⁹⁵ *Ibidem*, 183. or.

Eskua luzatu egiten da ikaragarri nirea bilduz; eta maite ez nauten gizonak baino gehixeago estutzen dit bere ahur bero horretan¹⁹⁶.

Kontraesanak ere baditu Elsak, dena den, nazka horren iturburua ez baitu kanpoan kokatzen beti: barnean, bere baitan, bere buruarekin sentitzen du goragalea¹⁹⁷. Oso modu esanguratsuan, bere senarrak ezkontzatik kanpo sexu harreman deslaiak dituela aitortu dionean, bere burua zamatu du erruaz, mailarik eman ez balu bezala, senarraren jokabide arrakastatsua bere porrota baino gorenagoa balitzaio bezala.

Autogorrotoaren sentipena, noski, ez da sortzen gizon heroikoen kasuan. Haiak kanpoan dauzkate arerioak, gizar-tean, munduan, unibertsoan. Pentsaezina da autogorrotoa Peru Leartzakoarengan, pentsaezina Leturiarengan bizitza estetikoarengatik borrokan ari den bitartean —emaztearengana itzuli denean, eremu etikoan murgildu baita, denentzat baliagarria den esparru batean¹⁹⁸, porrota onartu baitu burutu nahi zuen proiektu indibidualaren aurrean—.

Gorroto konkretua

Denboraz, ordea, desagertu egingo zaio erruaren itzala, gizonengana sentitzen duen nazka gorroto gordin bilakatuko da:

Nire bakardadean ohartu, eta lagundu nahi naute-la... Ipuinak! Gauza bakar bat nahi dute nigandik! Denak gorroto ditut... «Denak gorroto ditut, bai, gizon guzti-guztiak!»¹⁹⁹.

¹⁹⁶ *Ibidem*, 237. or.

¹⁹⁷ *Ibidem*, 76. or.

¹⁹⁸ Kierkegaard, S.: *Temor y Temblor*, *op. cit.*, 45 or.

¹⁹⁹ *Ibidem*, 136. or.

Pozoitsuak zaizkio gizonak, sugedorriak. Jolas-objektutzat hartu baino lehen, Pierre langile-apaizari aitortzen dizkio sentipen ernaldu berri horiek, harekin maitasun konturik nahi ez duenez, lagun harremana izan dezatela eskatzen dionean:

—(...) Argi eta garbi aitortuko dizut: pozoia iruditzen zaizkit gizonen hitz leunak²⁰⁰.

Dena den, Elsaren gorrotoa Peru Leartzakoarena baino konkretuagoa da. Elsak ez du gizartea gorrotatzen: harreman ona dauka familiarekin, ederki moldatzen da lanean, ongi adosten da emakume desiragarritzat hartu nahi ez duen unibertso maskulinoarekin, bera baino gazteagoa den Lacoste jaunarekin, adibidez²⁰¹ ... Ez darabil inoiz Peruren ukazio unibertsala:

Baña, mendekatu egin bearra zegoen neri egindako burla (...). Gizadia gorroto nuen; etsai zitzaizkidan danak, eta etsaitzat artu bear nituen²⁰².

Era berean, sentituko duen mendeku-beharra bera askoz konkretuagoa izango da: gizon ahul eta inozo baten tamainakoa izango da hartuko duen mendekua, ez oso heroikoa, alegia.

Beldurra

Gizonen gizarteak dauzkan botere marrak ongi ezagutzen baititu Elsak. Badaki gizona dela nagusi eta haren alde makurtzen dela generoen arteko balantza. Beldur da Elsa:

²⁰⁰ *Ibidem*, 230. or.

²⁰¹ *Ibidem*, 185-186. or.

²⁰² Txillardegik: *Peru Leartza'ko*, *op. cit.*, 120. or.

(...) Gizon guztiekiko beldur zen Elsa; eta hauek be-roago eta atseginago eta bihozkorrago, eta Elsa bel-durrago, uzkurrago eta atzerago (...) Ez zen gizonik batekin ere fio²⁰³.

Beste emakumeren batekin nahiko luke bere beldurra partekatu Elsak. Baina ez du emakume lagunik, bere aman izan ezik, eta hura, zaharra delarik, hiriko bizitzatik urrun bizi delarik, ezin du laguntzat hartu. Gizarte maskulino burgesean, genero-elkartasun femeninorik ez da ageri: nobela guztian zehar ez du Elsak emakume bakar batekin seriozki hitz egi-ten; bai, ordea, maiz, desiratzen dutelako beldurra sortzen dioten gizonekin.

Esango nuke, aitzitik, Txillardegiren nobelagintzan ager-tzen diren gizon heroiko guztietan ez dela behin ere beldu-rrik sumatzen, beldurra izateko arrazoiak nabarmenak diren arren, intentsitate ezberdinetako gerretan nahastuta dabiltzanez: arriskuz beteriko bidean dabilza Leturia, Peru eta haizeaz bestaldetik itzuli den arima, hirurak nortasuna-ren borroka larrian; intentsitate handiko gerrarekin nahas-tuta dabil *Putzu*; intentsitate txikiko gerrarekin nahastuta dabilza Antton Ezkizunekoa eta Antton Labartzakoa.

Zoriona edo maitasuna

Elsak zoriontsu izan nahiko luke, giza abere ororen irrika den heinean. Horretan ez dago errenuntzia ahalmenik. Era-baki sendo batzuk ere hartu ditu zoriona erdiestearren, etxez aldatu da, lanez aldatu du, espainola ikasten hasi da, bi-daiatzeko asmoz, bizimodua bestela antolatzen saiatu da. Baina ez du jakin, ez du asmatu zorionari oinarriak jartzen.

²⁰³ Txillardegi: *Elsa Scheelen, op. cit., 230 . or.*

Gizarteak zoriontsu izateko modua ere inposatzen baitio: harreman etsigarri batetik datorren arren, maitemindu egin nahi du, maitatuko duen gizona aurkitu nahi du. Areago, Elsak gizon bat, gizarte bizitzan lekua egingo dion eskarri bat aurkitu behar du, ezinbestez. Gizonik ez duen emakumea zoritxarrarekin lotzen da gizarte burgesean. Elsak berak adierazten du estereotipo hori Pierre-ri itzultzen dizkion erantzun zakar batzuen bidez:

—Zoritxarreko zat jotzen nauzu, ezta? (...).

—Gizon bat falta zait, ezta? (...).

—Gizon bat behar dut, ezta? (...).

—Maitagune-giroa falta dut, beraz (...) ²⁰⁴.

Ezkonduta zegoenean, senarrarekin zoriontsua izan zenik ezin ukatuko du. Ezkontza krisian erori, eta banatu ostean ere, modu iheskorrean, gizon maitatu baten ondoan bizi izan ditu unerik atseginenak, Vanden Broeck ezagutu eta Losdrech-eko aintziretan bi egun zoragarri igaro dituztenean. Eredu hori nahiko luke atxiki, ideal hori nahiko luke bizitzan gauzatu.

Betirako maitasun horren ezina iragartzen du jadanik, halere:

Zoriona laburra dela ongi zekien Elsa-k. «Joanak joan»... Bi egun zoragarri haiek betirako joanak antzematen zituen, zoritxarraren mortu zabal lehorrean laister mugarri bakarti bihurturik, sekula itzuliko ez ziren ordu argitsuen lekuko isil eta ilun, bi ²⁰⁵erota zahar gisa oroimenean bertan ia ezabaturik .

²⁰⁴ *Ibidem*, 205. or.

²⁰⁵ *Ibidem*, 102. or.

Bazekien Elsak maitasun horren iragankortasunaz, eta, besteetan ez bezala, ezkondu bititza laua zeramanean ez bezala, hain azkar zihozen minutuak gelditzen saiatu zen Loosdrecht-en²⁰⁶. Denboraren azkartasunak adierazten du, bi egun ezti horietan sortzaile izan dela, senarraren ondoan iruzurrik luzeena ezagutu ostean, bititza autentikoa bititzea zer den ikusi du. Baina ez du hautsi maitasunaren esparru hertsia, maitasun zoriontsua eta maitasun zorigaitzekoa besterik ez ditu bereizi, ez du bilatu zorionik beste esparru batzuetan, beste proiektu batzuen bidez²⁰⁷.

Betirako maitasuna

Hain zuzen, betirako maitasuna ukatuz, Txillardegiren hurrengo nobeletan —garai historiko zaharrago batean garratzen den *Putzuren* salbuespenarekin— gizon heroikoek istant labur batean ezagutuko dute emakume maitatua. Ohi denez, biologiaren istant gorenean, betirako maitasun-aitortzak egin dituzten arren, ez dute betirako maitasuna jarriko goiburutzat, hein batean, guztiak proiektu sendoak dauzkate burutzeke, etorkizun. *Putzu* bera, proiektu sendoak porrot egin dionean ezkondu da Garazirekin.

Oso adierazgarria da, zentzu horretan, haizeaz bestaldetik, itsasoaz bestaldetik itzuli den gizonak Soustonsen ezagutu zuen emakume profetiko gogorraren eredu, ez baitu sinesten betirako maitasunean. Emakume horrek, gau bate-

²⁰⁶ *Ibidem*, 98-99. or.

²⁰⁷ Berriro ere, Kierkegaardek ongi jasotzen du estereotipoa: «emakumea, bere buruaz ihes egiteko angustiaz, beste gizaki batengan babesten da, gizonarengan, alegia» (*El concepto de la angustia, op. cit.*, 66. or.

ko maitasuna aintzatetsiz, gau bateko sexu harreman lotugabea hitzartuz, zoriona, unearen gozamina besterik ez dela erakusten dio protagonistari:

—Mementoaren gozaketari deritzo zoriona... Mementoa ukatzea: horra gainbeheraren iturburua²⁰⁸.

Instantearen zorabio existentzialak definitzen du giza maitasuna bera.

Emakume hau ez da Elsa. Gizonek sortarazten dioten nazka guztiarekin ere, gizonengan sentitzen duen gorroto guztiarekin ere, Elsa ez da iritsi maitasunari buruzko eredu libre hau garatzera.

Besterik da Txillardegiren protagonista maskulinoen kasuan: Soustonseko emakumearen maitasun-eredua errepikatuko da.

Antton Ezkizunekoak mendialdean, ikastaro klandestino batean ezagutu du *Amaia* edo Axun, eta harekin bizi izan du, lau egun eta gau laburrez, bitzta gutzirako markatuko duen maitasuna²⁰⁹. Antton Labartzakoak ere, Arcachonen, gau bakar batez lehertuko du bihotza, eta gorputza atseginez zigortuko, *Jeannette* edo Alaznerekin, baina gau horrek bitzta gutzia balioko du²¹⁰.

Proiektu sendo eta zentzuemaile bati engaiatuta bizi diren Txillardegiren protagonista maskulinoek bere horretan gozatuko dute zorionak instantea ukitzen dueneko tangentea, itsasoaz bestaldetik itzuli den gizonak Soustonseko emakume profetikoari onartu zion harreman lotugabea errepikatuz:

²⁰⁸ Txillardegi: *Haizeaz bestaldetik*, op. cit., 193. or.

²⁰⁹ Txillardegi: *Exkixu*, op. cit., 214-217. or.

²¹⁰ Txillardegi: *Labartzari agur*, op. cit., 65-71. or.

—Bego. Gure artean ez da biharamonik izango.
Eta aldameneko txabola oktagonarian zenuen ge-
lara eraman ninduzun orduan (...).

Eta zure ohean enea izan zinen behin eta berriz (...)²¹¹.

Elsak, ordea, ez du nahikoa izan Vanden Broeckerekin Loos-
drecht-eko aintziretan eman dituen bi egun zoragarri ho-
riekin, betikotasuna, bizona osoa nahi zuen segurtatu gizon
harekin. Horregatik, nora esan gabe desagertu zaionean, se-
narrarekin jasan duen porrotarekin parekatu du esperien-
tzia, bigarren aldiz zapuztu zaio maitasuna. Gizonen gizarte
judeokristauan, heziketa jakin batek betirako maitasunaren
eredua hobetsi duelako, alegia, emakumearen fideltasunean
oinarritzen den betirako familiaren mitoan sinestarazi dio-
lako —digulako—, agian.

Gaizki aukeratu

Porrota jasan du bigarren aldiz, Elsak, baina ez du ikasi zo-
rionaren eta betirako maitasunaren arteko adostasuna
hausten. Heziketa zamatsua du gainean, ezin du desatxiki
hain ongi arrazionalizatu duen izaera afektibo hondoragarri
horretatik

Bi aldiz maitatu dut nik bihotzez; eta bietan izan naiz
iraindua, mespretxatua, ahaztua²¹².

Bi aldiz erori da, beraz, amildegirik sakonenera. Sinetsi egin
du bere maitasun platonikoaren sugarrari beste horrenbes-
teko sugarraz erantzuten zitzaiola ispiluaren beste aldean,
baina ispilua besterik ez zen, berak elikatzen zuen isla haus-
korra.

²¹¹ Txillardegí: *Haizeaz bestaldetik*, op. cit., 193. or.

²¹² *Ibidem*, 125. or.

Sisiforen mugimendua ari da errepikatzen behin eta ber-
rriz. Badaki, bere bizkarrean daramala katera lotzen duen
harria, aitortzen duenez, sobera maitatzean, betirako maitatzean baitatza bere zorigaitza²¹³ .

Bi aldiz egin du huts, gaizki aukeratu du, alegia, desbidea aukeratu du, bi aldiz:

Behin eta berriz, utzi nuen bideak salba bide nintzake, eta aukeratu nuenak, hain zuzen, kondena²¹⁴ ...

Azpirarragarria da, zentzu horretan, gizonaren erabakizunari ausardia eta indar sortzailea eskatzen dion gizarte burgesak zein bide meharretan barrena lotu duen Elsaren aukeraketa-ahalmena: senar edo, bederen, gizon-lagun onbera bat aurkitzen asmatzearekin laburbiltzen da bere hautuaren zuzentasuna.

Etsipena, heriotza-nahia

Gogoratuko dugunez, etxerako bidean kotxean zihozela, gertutik ezagutu du Elsak senarrak buruaz beste egiteko zeukan gogoa, kotxea zuhaitz baten aurka txikitzen saiatu baita. Ulergarria denez —bere bizitza ere arriskuan jarri du, nolabait esatearren, baimenik gabe—, erokeria galanta iruditua zaio Elsari. Senarrak saioan huts egin eta gero eman dizkion arrazoiak, berriz, txepelkeriak. Ezkondu-bizitzak ase egiten zuela ondorioztatu dugu, ez zuela ulertzen berarentzat asegarria zena etsigarria izan zitekeela senarrarentzat. Handik batera, senarrak daraman bizitza tolesduratsuz jakingo du, ordea, senarra ez zaiola fidela, alegia, beste emakume batzuekin dabilela, eta senarrak izan

²¹³ Txillardeggi: *Elsa Scheelen, op. cit.*, 104. or.

²¹⁴ *Ibidem*, 126. or.

duen neke existentzial berbera hasiko da jasaten, burua botatzeko gogoak hartuko du:

Munduari on deritzotenak ez beste dira heriotzaren beldur; eta Elsa etsia zen biziaz, barnetik hustuta, denaz arrunt gogaituta²¹⁵.

Gelak bereizi dituzte —ezkondu zireneko etxean bizitzen jarraitzea erabaki dutenez—, eta senarra neska gazte erdi biluzi batekin dantzan ikusi duen batean, heriotzaren beharra ezin biziagoa egin zaio:

Heriotza bera, berdin zitzaion. Berdin ez: desiragarria, desiratua, hirrikitua, bapatean²¹⁶.

Banatuko diren arren, bizitzen etxe banatan jarriko diren arren, Egunak aurrera joan ahala, bakardadea, heriotzaren ideia joango zaio gero eta gorpuztenago, gero eta hezur-mamitzenago:

Heriotzaren tema hori, urte askotan nire pentsamenterik baztertzten saiatu naiz. Zertarako, ordea? Zergatik ez neure buruaz beste egingo? Eta kitto! Nori damutuko litzaioke?²¹⁷

Heriotza desiratzeko kausalitatea ia biologikoa, ia fisikoa da, halere: ez dago bizitzaren zentzu absolutuarekin lotua, ez da transzendental. Baldintzagarri errealistagoak ditu: asperdura eta neke otzan-otzanak. Agortu egin da.

Ezagutu nahiko lukeen maitasuna erdietsi ezinik, gorputz ezin ederrago batean preso egonik, gizonen jostailu izango baita bizitza osoan zehar, etsipenera eta bakardadera daralma denboraren hari zirauntsuak heriotzan izan behar du

²¹⁵ *Ibidem*, 58-59. or.

²¹⁶ *Ibidem*, 75. or.

²¹⁷ *Ibidem*, 129. or.

akabera, halabeharrez. Hondatu den erloju bat balitz bezala dabil Elsa munduan:

Ohera joatea onena! Ez dut besterik! Lo! Noiz betirako loan abiatuko?²¹⁸

Eta, hain zuzen, azkenean, heriotza aurkituko du Elsak pilulen gaindosi bat hartu ostean:

Bi«Bellergal» hartu zituen. Handik ordubetera bi«Valium»; eta gero beste hiru. Ezin loak har... Beste hiru hartu zituen. Alferrik. Beste bi«Bellergal» eta bi«Valium» batera. Lokamuts haiek piskanaka baretu ziren Elsa-ren barruan; bere oroimen nahasia azkenean pausatu zen. Eta Elsa-k ez zituen hiruetako kanpai hotsak entzun²¹⁹ ...

Berriro ere, emakume honen azken instantea ez da aukeraketa baten ondorio izango, nahigabea baizik, istripua ia-ia. Ez dago buru-hilketarik. Are gutxiago Peruren hautuan —Leturarenaz ez baitakigu ezer, baina, bai burutu duena— ageri den erabakiortasunik:

Itsaso aldera begiratu nuen: beltza. Azkeneko aldiz... Baninjoan ni ere ilunpe beltz batera (...). «Kemen izan» esan nion ahapeka nere buruari. «Segundu bat duk, eta akabo. Eta geroztik ez duk nabaituko ez penarik, ez goragalerik, ez bitasunik, ez kezkarik, ez ezer. Jaio aurreko pake berbera inguratuko duk berriz (...). Eta jaiki egin nintzen, eta atzera joan, abiadura artzeko. Ariñago asi zitzaidan biotza lehertzera bailijoa²²⁰ .

218 *Ibidem*, 236. or.

219 *Ibidem*, 274. or.

220 Txillardegia, *Peru Leartza'ko*, op. cit., 150. or.

Emakume baten mendeku-jolasa

Nahigabetasun berberaz, nahita ezingo lukeen gertakaria eragingo du Elsak, hil baino lehenago: Pierre langile-apaizaren lepora botako du gertatu ez den hilketaren errua.

Gorrotu ditu gizonak Elsak, esan dugunez, eta mendekua hartu nahiko luke haietaz:

Mendekatu nahi bide zuen Elsa-k, izenik aipatzen ez bazuen ere: menderatu, pairarazi, norbait negarrez ikusi, maitasun-kontuetan borrero izan lehenengo aldiz!²²¹

Ez dago argi, ordea, bere kabuz mendekua hartzeko ahalmen nahikorik ote duen. Ahulegia dirudi, onegia, tolesdura makurrik gabea. Ez du ikasi gizonak hain ongi menderatzen duten gaizkiaren estrategia. Emakumeegia da, gizonaren ideologian.

Jolastu egingo du, hortaz, ahul eta inozo antzeman duen Pierrerekin, hain zuzen, beretzat batere arriskurik ez duenez:

Elsa aspertuta zegoen bere bizieraz; eta Pierre-ri buruz guztiz nagusi izanik, pittin bat jostatzeko gogo nabaitu zuen. Arriskurik ez zuen batere. Pierre ez zen Luc, ez Vanhamme, ez zen Vanden Broeck: Pierre haur bat zitzaion, haur errugabe bat; eta honen gaiztake-riak beraz, xinpleak eta errugabeak. Arriskurik ez; eta zergatik ez jostatuko pittin bat udaberriko epeltasun hartan?²²²

Pierreren ikasbide kristauan ere, ongiaren *desideratuma* nagusitu da beti, ez daki otsoen artean irauten, otsoentzat otso izaten.

²²¹ Txillardegi: *Elsa Scheelen, op. cit.*, 203. or.

²²² *Ibidem*, 196-197. or.

Idea egin eta handik egun batzuetara hasiko da gauza-tzen, ahula denak ahulagoa dena ongi aukeratu duenez:

Arrats hartan bere menpean nabaitu nahi zuen gizon bat (...) Atsegin gaizto bat dudarik gabe: Pierre erreguka eta guztiz liluratuta senditzea, desio bizian; eta orduantxe«ez» esan ²²³ ...

Pierrerekin jolastera asperdurak bultzatzen duela aitortzen digu Elsak, gaur egun, gure gizarte hipermodernoa garratu diren asperdura estaltzeko jolas makabro guztiak iragarri ²²⁴ :

Bere bizia oso aspergarria zen; eta hain atxematen zuen Pierre aingeru eta izuti, jostailu bat haur asperduak bezalaxe nahi zuela berak ere Pierre ondoan giro epel hartan ²²⁵ .

Noizean behin, ordea, zalantza sortzen zaio, jolas egin nahi hutsal berari helbururik ez dio aurkitzen:

Zergatik jolastu nahi zuen Pierre-rekin? Zeren-eta joko bat baizik ez zitzaion: bazekien Pierre-k maite zuena, nahi zuena bederen (...) Eta hau gizon baten gan nabaitzea ez zuen Elsa-k istimatzen. Zergatik kili-katu nahi zuen, beraz? Ez zekien ²²⁶ .

Jolas txikian zergatik egin ez daki, bizitzan, jolas handian, amets handian, zergatik egin ez dakien bezala, agian.

²²³ *Ibidem*, 203. or.

²²⁴ Errealitatean nahikoa tipifikatuta dagoen ohitura gaizto hau zineman erretratatu da ongi. Ikus, esaterako, Q. Tarantinoren *Death Proof*; edo *Elephant*, Columbine High School ospetsuan gertatutakoak narratzen dituena; edo, *Henry. Portrait of a Serial Killer*; edo, *Funny Games* austriarra. (ikus, Bater, J.; R. Dalmau: *Psicópatas en serie. Las 50 mentes más perturbadas del cine*, Raima Edicions, Bartzelona, 2008; Mongin, O.: *Violencia y cine contemporáneo*, Paidós, Bartzelona, 1997).

²²⁵ Txillardegik: *Elsa Scheelen*, *op. cit.*, 203. or.

²²⁶ *Ibidem*.

Baina, jolas egiten du, bizitzan amets bezala. Eta, azkenean, burutzapena ematen dio prestatu duen intentsitate txikiko mendekuari, Pierre ahula hartzen du mendean, elkarrizketa umiliagarri baten bidez:

—Elsa, burua galduko nuke zuregatik; eta, hain zuzen... .

—Zoritzarrekotzat jotzen nauzu, ezta? —zakarrean.

—Hori uste dut, Elsa. Zure biziera hutsa iruditzen zait.

—Gizon bat falta zait, ezta?

—Zure biziera ez da betea, ezin izan daiteke... .

—Gizon bat behar dut, ezta? Ezagutu dugunok behar-rago omen. Ez da hala?

—Arren, Elsa. Ez alde horretatik har nire esanak! —Eta barre egin zuen harrigarriro.

—Elsa! Entzun arren!

—Ez nekien nik zuek apaizok honen bero eta ausarta zinetenik... . eta gu emakume ezkonduetik gainera!

—Elsa!... Utz nazazu dena azaltzera!

—Berandu da. Orain badakit nolakoa zaren: beste eskuzabal bat, emakume leunen bila ari!

—Elsa! Aski da! Oker zaude arront, goitik behera! Maitte zaitut!

Eta eskua heldu zion.

—Ken esku hori —Elsa-ak zakarki baztertu zuen—²²⁷ .

Zein izan da, ordea, mendekua tamaina? Gizarteaz mendekatu da ala, gizarteaz mendekatu ezinean, gizon ahul konkretu batez mendekatu da?

Txillardegik beti pertsonaia alegoriko edo sinbolikoak darabiltzala aintzat hartuz gero²²⁸, Pierreren atzetik gizon

²²⁷ *Ibidem*, 205. or.

²²⁸ Txillardegi, in, Agirre, J.: *Hitzaz hitz. Txillardegirekin solasean*, op. cit., 54-55. or.; *Euskal Herria helburu*, op. cit, 144-145. or.

guztiak egon daitezkeela pentsa genezakeen, nonbait. Baina, orduan ere, oso hutsala da Elsaren mendekua: arbuiaitu egi-ten du, erdeinatu, besterik gabe.

Elsaren mendeku postumoa

Elsaren mendeku-objektu izan den Pierre langile-apaizak, ordea, uste baino zigor handiagoa jasoko du, azkenean. Jolas moduan hasi denak ondorio dramatikoak izango ditu Pierrarentzat. Elsa pilula gaindosiz hilko bada ere, arestian aztertu dugunez, polizia Pierreri egotziko dio hilketa, lekuko asko baitago azken hilabeteetan bera izan dela Elsaren inguruan ibili den pertsona bakarra: jendaurrean liskarren baten lekukotasuna ere utzi dute.

Zentzu horretan nobela biribildu egiten da. Ezin da esan, Ibon Sarasolak egin zuenez, *Elsa Scheelen* bi nobelak osatzen dutela, are gutxiago, Pierreren protagonismoak Elsa bazterraziko duela²²⁹. Ezin da esan, Sarasolaren argudio maisutua behin eta berriro errepikatuz, Pierre azaldu ostean, Elsa Pierreren ekintzen eragile pasiboa denik²³⁰. Aitzitik, Pierre biktima hutsa izango da nobelan agertu orduko. Pierrre agertzearekin hasi da garatzen Elsaren ezkutuko mendekua.

Hein batean, Pierre eta bere zalantzak —klase borrokari, nazio borrokari... Txillardegiren beste kezka politiko batzuei zabalpena emateko ez ezik—, artefaktu bat bilakatzen dira Elsarentzat, tresna, emakumeak burutu behar duen mendekuaren objektu nahigabea.

229 Sarasola, I.: «Elsa Scheelen», in *Txillardegi eta Saizarbitoriaren nobelagintza*, www.idazleak.org, 4-5. or.

230 Cid, C.: «Euskal literaturaren hiru emakumezko pertsonaia: Elsa Scheelen, Gisèle eta Antxonon aman», EGAN, Donostia, 1996-1, 37. or.

Hainbeste kritikatu den nobelaren bitasuna eta, ondorioz, gorputzgabetasuna —bitasun hori, *per se*, lejitimoa izango ez balitz bezala—, batasun bilakatzen da, Elsaren irudia indartu egiten da errekurtsio literario nahiko interesgarri.

Beti ere, zuzena bada gure interpretazioa.

Txillardegi, euskara eta marxismoa

Alaitz Aizpuru

Euskarak eta orohar hizkuntza gutxituek Txillardegiren go-goetan garrantzia eta presentzia eskerga izan dutela garbi dago. Aukera aurkeztu zitzaion guztietan hizkuntzen berez-kotasuna, berezitasuna eta beharrezkotasuna azpimarratu zituen. Eta ez zuen paradarik galdu euskararik gabe euskaldunonak eta Euskal Herriarenak egin duela behin eta berriz gogorarazteko. Euskararik gabeko Euskal Herririk ezin zuen imajinatu ahal. Euskararik ez dakien euskalduna kontradizio huts baino ez zitzaion. Eta euskalduna ez den aber-tzalea, abertzale baino norteño, euzkozale edota euzkotarⁱ. Txillardegiren lanean euskarak leku zentrala be-tetzen ez duenik ezin esan beraz.

Hau honela, Txillardegik marxismoarekin izan zituen ez-tabaidak eta ezin ulertuak azaltzeko ere, beste behin, euska-raren afera aterako zaigu bidera.

I.- Garai hartako giroaz zertzelada batzuk

Marxismoari buruzko lehen elkarrizketa eta eztabaidak, 1958an lantegiko PCko lankide batekin izan zituela konta-tzen du Txillardegik. Ordu hartan, gaiaz ez zekiela ezer han-dirik aitortzen du, baina dagoeneko ez zuela gehiegi sinesten gizakion arazoak oro ekonomi mailako aldaketa batekin konponduko zirenik.

1961ean herbesterako bidea hartu beharra izan, eta Pa-risen zelarik, frankismoaz libro bere lankideen artean, beste

ⁱ Abertzale izateak euskara ikastea eskatzen du; Jesukristo bost ajola zaion pertsonak, nola merezi dezake «kristau» izena? (Txillardegi eta Martin Ugaldereen arteko gutunak, 1965eko azaroa). Ikus baita ere «Euzkotarrak utikan» artikulua, Huntaz eta Hartaz, Elkar, Donostia, 1983, 69-81 orr

behin ere, eta hara joanak ziren beste FLPko buru eta anarkista andana batzuen artean, sozialismoaz, komunismoaz eta anarkismoaz ikasteko aukera izan omen zuen.

1962ko maiatzean lapurdin eginiko ETaren Lehen Biltzar Nagusira joan zenekoa *Euskal Herria Helburu* liburuko parte batean dator:

«Biltzarre Nagusirako Parisetik ni Euskal Herrira«jaistean», bi talde topatu nituen, elkarrekiko etsaiturik.

Batean hastapenetako Ekin-eko buruak zeuden, Benito del Valle eta Agirrerren inguruan. Bestean, berriz, Donostiako Paco Iturrioz eta Dabid López Dorronsoro.

Bi hauen ustez, bi bizkaitarrok«eskuindarrak» ziren;«elizkoiak»,«atzerakoiak», ni dakita zer. Eta itzulerara, bizkaitarren ustez, bi donostiarrak«felipeak» ziren,«españolistak», eta ez dakit nik zer besterik. Bilera hasterakoan, hitz batez, zatiketa giroa zegoen».ⁱⁱ

Bere desterruko lehen urte haietan Hegoaldean lortzea ezinezko zen autoreen lanak beren osotasunean ezagutzeko aukera izan zuen gure gizonak. Autore marxista ortodoxoek aspertutaⁱⁱⁱ, frantziako askatasunean lerro ofizialekoak ez ziren eta ondoren ere bizitza guztirako irakasletzat izango zituen bi autoreen lanekin egin zuen topo: Russell eta Sartre.

Russellen bitartez Euskal Herrian artean modan ziren jora marxista-leninista zurrinak informazio falta hutsa zirela ulertu zuen (Euskal Herriko«gainditu ezinezko

ⁱⁱ Txillardegui, *Euskal Herria Helburu*, Txalaparta, Tafalla, 1994, 212-213 orr.

ⁱⁱⁱ Euskal Herria Helburu liburuan dio, garai hartan, militante abertzaleek, derrigor, autore marxista ortodoxoak irakurri behar izaten zituztela.

anakronismorako joera hau!)). Eta marxismoaren mesianismo mitologikoak gurean zuen indarrak.

«Orain dela hogeita hamar bat urte euskaldun apaiz-ohiak trumilka marxismoara lerratzea, guztiz normala da. Marxismo ideologikoa eta kristautasun dogmatikoa, eske- ma berberaren bi aurpegi baizik ez dira. Batetik bestera pasatzeko ez dira zimenduak berak astindu behar. Agnostizismora pasatzeko bai. Ikerbide zientifikoetara igarotzeko ere bai.

Hori guztia, hala ere, eskandalagarri gertatzen da oraindik gure artean. Gure herria fededun porrokatua delako.»^{iv}

Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981 liburuan gai bera hartzen du:

«Baina seminariotik aldegin zuten apezgaiak politika saila hartu zuten borroka-lekutzat; eta psikologian ongi ezagutzen den mekanismo bategatik; «ezkerrera» jo zuten. Eta Jesus-en ordez Marx jarri zuten (oso adierazgarria da 1975-an «Marx eta Jesus Europan» deritzon liburu bat agertzea).

Langileen eta sindikalisten eskutik ez-baina seminarioa utzi berria zuten apez «défroqué» horien bidez, 1917 baino lehenagoko *marxismo ideologikoa* zabaldu zen; benetako eskolastika berri bihurtu arte»^v

Russell-ekin batera Parisen Sartre berri bat ezagutu zuen, ordura arteko autore existentzialista osatuko zue-na. «Intellectuel engagé»aren antikolonialismoari buruzko

^{iv} Txillardeggi, 1994, ibid., 278 orr

^v Txillardeggi, *Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981*, Elkar, Donostia, 1984, 64 orr.

idazlanek eta marxismoaren berritu beharraz zihardutenek ordura arteko bere ideiak are eta ziurtasun handiagoz defendatzera bultzatu zuten.

Garai hartan adar kulturalaren erantzulea zen Txillardegi. ETAREN sorreratik ETAREN ideologian eragin nabaria izana eta etorriko ziren urteetan ETAREN barruan tirabira eta borroka gogorak ezagutuko zituen alderdi marxista-leninistako felipeen aurka.

«Dorronsoro –Iturrioz-en multzoak, ordurako ESBAkoekin oso lotuta, aldatu egin nahi zuten ETA; alderdi marxista-leninista bat bihurtu arte. Eskatu ere egin zuten ESBAkoek, nire bitartez, ETAREN barruan«organizarse como tendencia de izquierda»; guk onartu ez genuena. Eta eskabideak ofizialki lortu ez zuena, infiltrazioz eta«entrismo»z eskuratzea erabaki zuten.

Eta ETA«aldatzen» hasi zen... Noski!»^{vi}

Hastapeneko ETAKideen deserriratzea tarteko sozialismo iraultzaileak denbora gutxian indar handia hartu zuen erakundearen barruan eta ETAKo zuzendaritza berria Txillardegiaren hitzak hona ekarriz ETAKo«aparatoaz» jabetu eta«nueva línea»ren profeta eta agintari bihurtuta,«lotsarik gabe ETA siglas baliatuz«social-imperialismo» betean ziharduten argi eta garbi.

Egoeraren larria eta Euskal Herriko gazteriaren »marxista» ikusita geldirik ez gelditzea erabaki eta 1965ean eta 1966an lau txosten luze bidali zituzten erakundera. Buruzagitzatik erantzunik ez jasotzean ordea eta beraien ezinaz jabetuta;

^{vi}Txillardegi, 1994, ibid., 213 orr.

«ETatik at zerbait saiatu behar genuela iruditu zitzaigun. Bruselako Neerstalle kaleko nire etxean elkartu ginen horretarako, ETAko «proskrito» batzuk eta Federiko Krutwig; [...] eta aldizkari abertzale bat argitaratzea erabaki genuen.

Eta izena eta izana finkatu genituen berehala. Izena, *Branka* Krutwigek proposatu zuen. Eta izana, ezkertiar abertzaletasunaren defentsa, sasi-marxismoaren eta sozial-imperialismoaren aurka.

Krutwigek abertzaletasunaren defentsa egingo zuen maizismoaren aldetik. [...] Nik ezkerkeria sasi-klasisten kontra, hizkuntzaren balioa zuzenetsiko nuen (*Hizkuntza eta Pentsakera* liburua ere, garai hartakoa, helburu berean idatzi nuen) [...]. Eta Benito del Valle, ekonomiaren arloan, komunismo ofizialaren burokraziaren alderdi txarrak salatuko zituen, Autogestioaren beharra azpimarratuz.»^{vii}

1966ko apirilean kaleratu zen Branka I «segurtasun arrazoiengatik» Buenos Airesen^{viii}. Aldizkariak bi fase ezagutuko zituen, lehenengo fasean, 1967ko urtarrila arte (lehen 4 zenbakiak) Federiko Krutwigek ere aldizkarian parte hartu zuen. Branka 5etik aurrera Krutwig ETAn sartu zen eta beste kideak irten, Txillardegi barne. Eta hurrengo aleetan idazle berri batzuen izenak agertu ziren (Agirre, Azurmendi,

^{vii} Txillardegi, 1994, *ibid.*, 213 orr

^{viii} Bitxikeri moduan merezi du hemen Txillardegik *Euskal Herria Helburu* liburuan (258. orr) kontatzen duen Branka I zenbakiaren hasiera «bustia» gogora ekartzea: «Gure lana abiatuta ikustean, «lasai» xamar gelditu ginen Bruselako «heterodoxoak»; eta zerbait lortuko genuela sinesten hasi.

Baina handik zortzi edo hamar urtetara, bestetan ere kondatu izan dudanez, hau jakin genuen: ETaren zuzendaritzak berak, gu laguntzekotan pardel osoa muga pasako zигun aitzakian... edizio oso hura hartu, eta... itsasora bota zuela... Talde «abertzale sozialista»ren oinarri ideologikoak jarri nahi zituen errenbista hor nonbait, Kantauri Itsasoko zokoren batean, txipiroien eta txangurroen bazka bihurtu zitzaigun, aloka eta salma artean... Hastapen distiratsua gurea!».

Davant, Apalategi, Abeberri...). 1971an bukatuko zen Brankaren bidea 14. alearekin.

Ezin esan urte goxoak izan zirenik hauek Txillardegirentzat. Errepresioaren erruz herbestera kondenatua eta bartzuen»Europako Cuba» hartan sozialismo zientifikoaren kritiko, traidoretzat, antimarxistatzat, burgestzat, reaccionario-tzat, elizkoitzat eta abar hartua, garairik gogorrenak bizitze tokatu zitzaion.

«Sekulako barne-krisi batek astindu ninduela izkutatu beharrik ez dago Eta, neure arreta ahalesten bederen besteratzekotan, nobela bat idazte bururatu zitzaidan.[...] eta horrela jaio zen *Elsa Scheelen* nobela.»^{ix}

«Kreditu politiko guztia erabat galduta» eta etsipen osoan, Edgar Morin-en Autocritique-z gogoratuz Txillardegik ere bere bakardadean bere buruarekin mintzo zelarik«Exclu! Exclu! errepikatzen zion.

«Burgosko epaiketa heldu zelarik.«ETA-ren Buelgo Politikoa, sozial-inperialisten eskuetan.Abertzaletasuna, euskara,«superatuta» zeuden...

Gauzak horrela, benetako bonba bat bota zuen 1971ko hasieran Sartrek, Burgosko epaiketari buruz Gisèle Halimik abokatuarentzako Hitzaurre ospetsua prestatu zuenean.

Bapatean, eta social-imperialismo espagnolista euskal ezker abertzaleaz betirako nagusiturik agertzen bide zitzaigunean, ikuspegi ezkertiar eta abertzalearen alde egin zuen postura ausarki filosofo famatuak.

Kolonialismo eta inperialismo mota guztien kontrako bere borroka nekagaitzean bere gailurrean zegoenean, eta

^{ix}Txillardegia, 1994, ibid., 263orr

gure arteko«felipe»,«progre» eta«ezkerkoi» guztiak zapuztuz, borrokaren izari nazionala azipmarratu zuen paristarak.[...]

Oso ahulduta zegoen ezker abertzaleak, zinez esan dezakegu hau, arnasa hartu zuena Sartreri esker»^{x xi}

2.- Estrukturalismoa eta marxismoa

Estrukturalismoari heldu aurretik Txillardegiren pentsamenduan beti presente egon den oinarri oinarrizko ideia bati egin behar zaio lekua. Behin hau onartuta, ulergarri baita gizon honek bere ibilbide guztian zehar doktrina bukatu eta itxiei izan zien mesfidantza.

Txillardegik gizakia animalia bat gehiago dela onartzen du, konstatazio horrek berekin dakartzan ondorio guztiekin. Antropokeria ororen gaitzesle sutsua, unibertso erraldoiaren handitasunean giza bizitzaren hauskortasuna, igarokortasuna eta txikitasuna bere idatzietan gai errekurrentea izango da.

^xTxillardegi, 1994, ibid, 283-284 orr.

^{xi} Markos Zapiainek euskaratutako Sartreren aipatu hitzaurre ezagunaren hainbat pasarte esanguratsu:«Prentsari sinetsi behar bazaio, Burgosko prozesuak eskandalua eragin du soilik Francoren erregimenaren basakeria absurdua erakutsi duelako. Ez dut uste hori egia denik: benetan ote du basakeria faxistak frogatua izan dadin halako beharra? 1936az geroztik, ez al dira espetxeratzeak, torturak eta exekuzioak ia edonon gertatu, iberiar penintsularen lurrean? Epaiketak Espainiako eta Espainiaz kanpoko jendearen kontzientzia astindu du, ezjakinei euskal nazioaren berri men dielako; argiro nabaritu da naziotasun hori, berezia izan arren, ez dela inolaz ere bakarra, eta nazioa handiek beren buruari eman dizkioten mugen barruen koloniak dauzkatala.[...]Baina akusatuen alde egin beharra zegoen, eta ez al zuen ETak esaten: ez gaude soilik frankismoaren aurka, ezer baino lehen Espainiaren aurka gara borrokatzen? Horixe baitzen irentsi beharreko pilula astuna. Zelan onartu Pirinioez bestaldean euskal nazioa badela,«geure» euskaldunei bertan integratzeko eskubidea aitortu gabe? Eta orduan Bretainia? Eta Okzitania? Eta Alsazia? Frantziaren historia alderantziz berridatzi behar ote da[...].?

Katolizismo ofizial eta indartsuenaren garaian, 1957an EGAN aldizkarian agerturiko, *Orangutanen ugartea* ipuin iraultzailea idatzi zuen.^{xii}

«Orangutanen ugartea» delakoan, geroztik oso modan egon den kezka da kondairaren ardatza: alegia, gizonaren aberetasuna (edo alimaletasuna, zehazkiago hitz egiteko-tan) gauza nabarmena dela, izkutatu ezina, gainditu ere ezinezko baldintza; eta gure gizatasuna, eta honi dagozkion giza bertuteak, axal mehe-mehea baizik ez direla.

Hots, gizona orangutanaren anaia bizkia eta hurbila baldin bada (eta ideia hau beste askotan ere agertu da nire artikulu eta liburuetan), gure hilezkotarsunaren esperantzak, erokeria bihurtzen dira, eta orobat giza-leinuaren gailentasun famatu hori. Eta, beste muturrean, ekonomi sistema aldatuz gero, gizona aingeru laiko eta gizarte-saindu prestu omen dela (edo izango omen dela) bide, lurgaineko zerua hortxe heldu dela-ta, errotik zaharrakatzen eta funditzen da; eta mundu zoriontsu eta zuzenaren mitoak ere errausten. Hau esatea, ordea, are pentsatzea ere, oso arriskugarria izan da gure artean (oraindik ere arriskugarria ez bada...)^{xiii}»

Beste animalia bat baino ez bagara, gizakiaren nagusitasuna, arrazoimenaren gailentasuna, progresoaren sinesmena, zientziaren ahalguztutasuna, behin ere iristen ez den etorkizun berri baten ametsa, giza salbazioa eta betiereko zoriontasuna behin eta berriz aldarrikatzen duten sistema oro

^{xii} Markoz Zapiainek bere *Txillardegi eta zimino*a liburuan ipuin honetaz diharduelarik gogorazten duena interegarria dela deritzot garai hartan ideia hauek suposatzen zuten berritasunaz konturatzeko: «kontuan hartu, *Planet of the Apes* filma (Ziminoan planeta) 1967koa dela, eta 1963koa Pierre Bouille-ren *La planète des singes* nobela.

^{xiii} Txillardegi, Kosmodromo, Haranburu editorea, Donostia, 1984, 8 orr.

(dela ekonomikoak, dela erlijiozkoa,...) bertan behera gelditzen direla aitortu behar. Gure ametsen hutsala larru bixitan!

«Gizona abere bat da... baina ez du hori aitortu nahi. [...] Mitoak beti besterik sines arazi nahi izan dio gizonari. Besteak beste, iraultzaren mitoak ere bai. Eta erlijioak, filosofiak eta ideologiak eta, sarri, zientziak ere, gizonak bere buruari besterik frogatzeko ahaleginak ziren. Beraz, gizona, abererik ez dela sinetsi nahi lukeen abere bat da»^{xiv}

Horra gure tragedia!

Ezer baino lehen hori present edukitzea komeni Txillardegiren pentsamendua ulertzeko.

Estrukturalismoari hel diezaiozun orain.

Emilio Lopez Adan-ek, bere «Txillardegiren pentsakera politikoa» artikuluan interesgarrian (Jakin 1999, 114. zenb.) Txillardegik estrukturalismoa «taktikoki» tesi nazional-kulturalak indartzeko erabili zuela ulertarazten du. Garaian frantzian bogan zebiltzan eztabaidez blaituta, marxismoaren kontrako borrokan ezin hobeto zetorkiolako estrukturalismoaren tamainako «doktrina zientifiko» bat berak hizkuntzaren leku zentralari buruz etxean zabaldu nahi zituena tesiak plazaratzeko. Eta estrukturalismoa ez bezala, gaztaroan barneratutako existentzialismoa izango zela bizitza guztirako bere pentsamendua markatuko zuena.

Txillardegiren bizitzan existentzialismoak izan duen zantzua eztabaia ez zina dudatan jarri gabe, ni neu, (garai hura testuetatik baino ezagutu ez duen hau), ez naiz ausartzen balizko «taktikotasun» hori zenbaterainokoa izan zen neurritzen. Txillardegiren testuetatik abiatuta iritzi funtsatu bate-

^{xiv} Lazkano Mendizabal (Joxe Azurmendi), *Gizona abere hutsa da*, JAKIN, Ed. Franciscana Aranzazu, 1975, 13-14 orr.

ra iristeko informazioa falta zaidala uste baitut. Dударik ez alabaina, momentuan lehortean euria baino hobeto etorri zitzaizkiola linguistika berriaren «berri onak» eta estrukturalismoak orohar berekin zekarzkien beste hainbat ideia, arma eraginkortzat erabili zituela bere lanean. Hala eta guztiz ere, estrukturalismoan, hizkuntzaren aferaz haratago eta garaian behar zuen eraginkortasunaz at, egoki baino egokiago zetorkinon soinekoa aurkitu zuela esango nuke. Bere aurreko hainbat ideia berresten zizkion teoria bat suertatu zitzaizola eta ur haietan Txillardegi eroso zebilen arraina zela. Puntu aipagarritzat, bere erlatibismo existentzialistak estrukturalismoan ordura arteko argudio erlatibistak sendotzeko arrazoi berriak aurkitu zituela da.

Urte haietako bere idatzi ugaritan dator estrukturalismoa, hor ditugu esaterako, *Hizkuntza eta Pentsakera* liburua, Branka-ko bere artikuluak, eta garaiko beste hainbat aldizkarietan agerturiko hainbat idatzi; «Levy Strauss'ek Unamunoren gana» (1965), «Sinistu ezinean iges egin behar» (1967), «Estrukturalismoaz zenbait hitz» (1968), «Levi Strauss gailen» (1973), «Euskotarrak utikan!», etab.

Esan bezala ez zituen hizkuntzari buruzko ideiak bakarrik goraiatzeko, gizatasunari buruzko beste hainbat ideiarekin ere protagonismoa eman zien. Bogan zegoen historiaren eta gizartearen filosofia marxistaren aurka. Ikus ditzagun batzuk:

2.1 - Linguistika berria. Hizkuntza eta pentsakera

Txillardegirantzat mintzaira da «gizakuntzaren katean pausurik inportanteena eta erabakiorra»^{xv}. Eta estrukturalismoak ere gauza bera esango du; hizkuntza da giza

^{xv} Txillardegi, 1984, ibid, 11 orr.

fenomenurik bereziena eta gizatarrena. Gizakiok giza-multzuetan bizi gara eta elkarrekin bizitzeko mintzatu beharra daukagu. Mendeetan elkarturik bizi izanaren ondorio, giza multzo baten kultur desberdintasunaren ardatza hizkuntza bihurtzen da.

Brusselen egon zen garaian (1965-1970) lanetik garaiz ateratzen zen egunetan maiz «Gare Centrala» ondoko liburutegira joaten zen Txillardegi, bertan denetarik irakurtzeko, baina bereziki hizkuntzalaritzan sakontzeko asmoz.

Koldo Mitxelenak 1968ko bere «Linguistika berriaren berri onak» idatzian hala dio «Txillardegi da, nik dakidanez, linguistika «berriaz» gure izkuntzan mintzatu den idazle bakarra».

Bestalde, esan dugu jada, Txillardegiren aztergai nagusienetarik bat Brankaren 14 aleetan barrena «hizkuntzaren funtsezkotasuna (estrukturalismoaren bidez) azaltzea zela.

Hizkuntza «gain egituratzat», pentsamentuaren «ropaje», folkloreaken parte, eta hizkuntzei buruzko ardurak kapitalisten kontu ziren urteetan, linguistika berria zabaldu nahi du euskaldunen artean.

Saussure-ren «Cours de Linguistique Générale» argitara eman arte hizkuntzaren azterketa atomista zen nagusi eta ez estrukturalista. Hitzen arteko lotura eta hizkuntza batek beregan duen oreka ez ziren kontuan hartzen. Hitzak bana-bana aztertzen ziren, ideia bat = hitz bat eta hitzak hizkuntza batetik bestera trukagarri. Hizkuntza bat ala beste bat bezaz zer axola?

«Hizkuntzari buruzko atomismoa gaur Newton eta Galileo ´ren aurreko «fisika» haien parekoa da: alegia, ez-jakinen artean onartzen da eta ez beste inon»^{xvi}

^{xvi} Igara (Txillardegi), «Estrukturalismoaz zenbait hitz», Jakin, 1968, 29 zenb., 16 orr

«[...]Ez dugu euskaltzaleaok, ordea, bildurrez ibili beharrik. Gaurko hizkuntzalaritza osoa gure alde mintzo da.»^{xvii}

Sausserek linguistikaren bideetatik abiatutako estrukturalismoaren «berri onek» euskaltzalerik baikorrenaren ametsik onenak gainditzten zituzten. Argi eta garbi esanez hizkuntza herri baten iraupenean eta nortasunean ezinbesteko ezaugarria zela. Honatx garaiko linguistikaren ideia nagusienetariko bat:

Hizkuntza bakoitzak mundua bere esperientziaren arabera tajutzen, ordenatzen du, bakoitzak munduaren, errealitatearen alderdi desberdinak bereizi eta nabarmenduz. Hizkuntza batek azpimarratzen duena beste hark ez du aintzat hartzen eta hark erreparatzen duena beste honek ahaztu egiten du. Hizkuntza bakoitzak logika desberdin batekin interpretatu du bere ingurua eta hortik giza talde bakoitzaren eta hizkuntza bakoitzaren izaera berezi eta errepikaezina. Mundua begiratzeko modu berezi bat da hizkuntza. Herri oso baten sorkaria eta lokarria. Hizkuntza batetik bestera pasatzean pentsaera batetik bestera pasatzen gara.

«Hizkuntza bat ez da «hitz zerrenda» luze bat; antolamolde, mundu ikuskera, gauzen banaketa, denaren tajuera berezi bat baizik. Ez da saski-naski bat, «estruktura» bat baizik. Alegia: hein handi batean bederen, bere buruaz ari dan kosmo txiki bat.»^{xviii}

Ordura arteko hizkuntzalaritza «onartua» ren hitzetan, gizaki orok logika berdin batekin funtzionatzen zuen. Giza logikaz eta ez logika kultural partikular batez. Alegia, hiz-

^{xvii} Txillardeggi, Euskararen aldeko borrokan, "Hizkuntza eta Pentsakera", Elkar, Donostia, 2004, 69. orr

^{xviii} Txillardeggi, 2004, ibid, 68 orr.

kuntza guztiak errealitate«berdin» batez ari ziren eta aldatzen zen bakarra«etiketak», hitzak, soinuak ziren, ez mundua ikusteko era. Beraz, hizkuntzak ez zuen beste munduko garrantzirik, hitz lerrokada bat baino ez zen eta. Zer axola du«etxe» edo«casa» esan? (bestalde, kolonizatzaile orok alde batetik hau defendatu arren, bazekiten ongi herri bati bere hizkuntza kentzeak zekartzan abantailak! Eta hau azpimarratzen du Txillardegik:«ez dago hizkuntz politika deliberaturik ez duen gobernurik»).

«Hizkuntza bat, beraz,«hitz-lerrokada» bat omen da: hauxe uste dute oraindik ere euskaldun batzuk eta«euzko-zale» guziek. Beren ustez, beraz, hiztegi on bat gertatu, eta kitto: problemarik ez. Gure hizkuntza salbatua dagoke...Horren bidez zabaldu zan gure artean ideia zentzugabe hura: abertzaleok agintea lortu, hiztegia eskuan gauzei izena aldatu (kaleetako plakak bezalaxe), eta kitto: euzkotarrak euskaldun, herri osoa euskeraz jator hasiko omen da, eta hizkuntzaren hauzia betirako konpondurik. Erreza, alajaiñetan!»^{xix}

Linguistika berriak «hitz-zerrenden» ideia hori ezeztatu egingo du mintzaira bakoitzaren originaltasuna eta bakoitzaren estruktura azpimarratuz.

Hizkuntza bakoitzari izaera jakin bat dagokio orduan eta hala giza talde bakoitzari. Hizkuntza propio hori izango da kultur batasuna emango diona giza talde horri. Alegia, gure kasura etorriz, euskarak egin du Euskal Herria, euskarak egin du euskalduna eta alderantziz, euskaldunek euskara. Nola egin uko forma eman digun horri, aldi berean geure buruari uko egin gabe? Nola utzi bide bazte-

^{xix}Txillardegik, 2004, ibid, 69 orr.

rrean garena izateko aukera, bidea eta modua eman diguna
geu garena ere hantxe utzi gabe?

«Herri batek bere hizkuntza ahaztu, eta beste bat har-
tzen duelarik, beste herri arrotz bat billakatzen dala, beste
izakera bat nagusitzen zaiola, gauza jakina da aspaldidanik.
Eta aldakuntza hau, arrotz bihurtze hau, ez dala edozein al-
detara gertatzen. Bere nazio-hizkuntza trukatu-berri duen
herri-arrotzia, hizkuntza berri hori erantsi dion herriaren
menpeko jartzen baita, hain zuzen, kulturaz eta politikaz; eta
ez besterenik»^{xx}

Txillardegiren tesia garbia da: hizkuntza da herri baten
arima. Eta guztiok gara herri bateko kide. Herritartasunik,
errorik gabeko liberatzaile«abstrakto» eta aurrerazaleetan
ez du sekulan sinetsiko.

2.2- Hizkuntza gizakiaren zerbitzuko

Aipatu ditugun ideia hauen aurrean hainbatek Txillardegiri
hizkuntzaren metafisikan eta dogmakerian jardutea lepora-
tu zioten. Esanguratsuenetariko bat Manuel Ereñoren«El
solipsismo linguístico en el ensayo«Hizkuntza eta Pentsa-
kera» de Txillardegi» (Arágoa, 1967)^{xxi}

Baina Txillardegik hizkuntza beti gizakien zerbitzurako
tresnatzat ulertu du. Hizkuntza ez da, berebaitan helburu
oso bat, herriaren zerbitzaria da. Hizkuntza gizakiengan
bizi eta bilakatzen da, ez da gizakiarengandik harago da-
goen ezer. Pertsonak elkarrekin ulertu ahal izateko
bidea da.

^{xx}Txillardegi, *Euskararen aldeko borrokan*, «Hizkuntza eta pentsaera», Elkar, Donostia, 2004, 65 orr

^{xxi}Ikus, Joxe Azurmendiren *Humboldt, Hizkuntza eta Pentsamendua*, liburuan, Txillardegi eta Ereñori dagokien atala.

«Hitz batez: hizkuntza pertsonarengan bizi dala ez badugu gogoan ongi hartzen, sasi-teorien menpera eror gintezke. Eta alde horretatik ez dira harritzekoak estrukturalista batzuen kontra egiten diren kritikitak»^{xxii}

Artikulu berean piska bat aurrerago ideia berari eusten dio.

«Zeren-eta, zalantzarik ez da: hizkuntza gizonaren zerbitzuko da, eta ez alderantziz gizona hizkuntzarena»^{xxiii}.

Txillardegiren lanean, han eta hemen irakurri ahal dira «herriaren zerbitzura», «euskaldunen zerbitzurako egin behar dela lan», «euskara batua eta euskal kultura euskaldunen zerbitzutan egin behar dela», eta tankerako esanak. Hona hemen, euskara batuaren presa eta garrantzia. Euskara doitu behar da euskaldunek beren behar «berri» guztiak ere ase ditzaten. Herriarren interesen aurka doan euskara xuri eta atemporal bat baino nahiago du euskara hiltzen uztea.

Hizkuntza giza tresna bat da, eta tresna den aldetik osoago ala eskasago izan liteke, egokiago ala traketsago giza jardun desberdinetarako. Hizkuntzak osatu, egokitu egin behar dira hortaz garaiko beharretara. Hizkuntza bat gaitu eta eguneratu gabe iraunarazi nahi izatea «kriminala» dela deritzo, pertsonen zerbitzuko ez izatekotan bere betekizuna bukatu baita. Hala dio «Euzkotarrak utikan!» idatzian:

«Hizkuntza pertsonengan bizi da. Mendi-gaillurretan bizi direnek ere, kultura iristeko eskubide osoa dute; eta euskerara eragozgarri baldin bazaie jakintza lortzeko, hil bedi euskera. Hobe esateko: hil dezagun. Pertsonaren loratzea

^{xxii} Txillardegi, 2004, ibid, «Hizkuntza gizonaren zerbitzuko», 119.orr

^{xxiii} Txillardegi, 2004, ibid, 121.orr

debekatzen duen euskera ahul eta ez-ikasi horri, mendi gailurretan beretan eustea ez dugu zillegi. Berriz diot: hizkuntza bat hitzunen ezpainenetan baizik ez da bizi; edo... hitzunen lepora! Hizkuntzak ez du- eta ezin izan dezake-hitzunek berek baiño eskubide bat ere gehiago, ezta horiek ez duten eskubiderik batere. Hizkuntza pertsonaren zerbitzari baita, eta ez jabe, zokoetako euskera ez dut inola ere nahi nik. «Jalgi hadi plazara» zion gure Etxepare´k; eta nik hau errepikatzen:» ... ala hil hadi! [...]Euskera gaitu, osatu, gaurkotu, zorroztu, eta aberastu egin behar dugu [...]Euskera benetan laister euskaldunen zerbitzuko jar; ala euskera gihaurk hil. Horra hor aukera»^{xxiv}

«Baina etnia baten hizkuntza hil ezker, etnia hiltzen da. Abertzale batek, beraz, ez du irteera bakar bat baizik: etniaren hizkuntza gaitu eta gaurkotu, eta etniaren bizitza salbatu»^{xxv}

Zentzu honetan merezi du Joxe Azurmendik esana hona ekartzea «Txillardegiren baitan hizkuntzaren esentzialismorik edo metafisikaririk susmatu dutenek, momento horretarako eduki zitzaketan arrazoi edo interes polemistak aparte, gauza bat oso nabarmena ahazten zuten: alegia Txillardegiren pentsamendua zenbateraino zegoen oso-osorik existentzialismoak blaituta.»^{xxvi}

Txillardegirengan, zerbait absolutua izatera pasatzen denean, izan produkzioa, baita abertzaletasuna eta hizkuntza bera ere, alienazio bat bilakatzen da. Zerbait absolutizatzea gizakia bera ukatzea baita.

^{xxiv} Txillardegiren, *Huntaz eta Hartaz*, Elkar, Donostia, 1983, 76. orr

^{xxv} Txillardegiren, 2004, ibid, 122 orr

^{xxvi} Azurmendiren, Joxe, «Txillardegiren Saioa: hastapenen bila», *Jakin* 1999, 114. zenb.

«Nazioa ez da absolutu bat, baiñan erresuma ere ez. Norberaren hizkuntza ez da absolutu bat, baiña besteena ere ez.»^{xxvii}

2.3.- Diakronia eta sinkronia

«Hain zuzen ere, XIX. mendea diakroniaren mendea izan zen bezalaxe, XX.-a sinkroniaren mendea da.[...]Hau delata, teoriaren hezurtzat diakronia duten mogimenduak oihuka hasi dira estrukturalisten kontra. Marxistek bereziki (gehienek bederen) ahalegin handiak egiten dituzte aspaldisko honetan gazteria estrukturalismoaren «lilura» horietatik urrunarazteko. Estrukturalismoak ukatu egiten omen du gauzen eboluzioa, geldizale omen da; eta hori dela bide, «statu quo»ren aldekoa omen; alegia, eskuindarra, atzerakoa eta erreakzionarioa.[...]Egia ote da hori? Ez nik uste»^{xxviii}

Ordura arteko fenomenuen azterketa diakronikoari (hizkuntza edo gertaera baten garapenaren azalpena) azterketa sinkronikoa (hizkuntza edo gertaera baten une jakin bateko egoeraren azalpena) gehitu zion estrukturalismoak. Aurreko metodoa bertan behera utzi gabe, estrukturalismoak hizkuntza azken modu honetan ikertuko du.

Saussure arte hizkuntzalaritza eboluzio zalea zen, kezka nagusizat eboluzio horren legeak aurkitzea eta finkatze zuen. Eta eboluzio horren arabera hizkuntzak ordenatzea «aurreratuenetik» «atzeratuenera».

Estrukturalismoak ez du uste hizkuntza guztiei ibilbide bera egitea dagokienik hau da, eboluzio bakarra dagoenik. Ez ditu hizkuntzak beren garapen mailaren arabera konpa-

^{xxvii} Txillardeggi, «Marxismoa modan egon zan», Jakin 1967, 26. zenb., 19 orr

^{xxviii} Larresoro (Txillardeggi), Hizkuntza eta Pentsaera, Edit. Mensajero, Bilbao, 1972, 6 orr

ratuko, ez baitu onartzen hizkuntza batzuk (eta beraz, zibilizazioa batzuk) besteak baino «aurreratuagoak» edota «atzeratuagoak» daudenik. Ez du gizatasun bakar baten teoria defendatuko.

Hizkuntza baikotza originala, berezia eta bakarra denez ezin esan batzuk besteak baino hobeak direnik. Hizkuntzak deberdinak diren bezalaxe, hala kulturak ere, guztiak desberdin, guztiak pareko.

Arazakeriarentzat ez da lekurik gelditzen.

2.4- Gizakiaren bi pentsaerak

«Erljioa alienazio hutsa omen da, eta bildurraren frutua. Sozialismoarekin batera arrazointasuna dator, eta huni erlijioen akabera dagokio: erlijioa burges zanpatzearekin batera «itzaltzen» da. Egia ote da hau, berriz ere? Albistariek ez diote hau, eta kristau liburuak gure artean baino aisago saltzen bide dira U.R.S.S.-en»^{xxix}

Txillardegirentzat «gizonaren beharrik sakonena absolutu bat siñistea da; eta era berean gizonaren ezbeharrik eraman-eziñezkoena, absoluturik ez siñistea. [...] Ethnologiariek hau ikasi dute mundua aztertuz. Gizona absoluturik gabe bizi ditekeala pentsatzea da-izan alienazio nagusia (absolutu-egarririk gabe batez ere). Gizonaren absolutu-egarria faltsutzat, axalekotzat, edo alienaziotzat salatzea, denik eta faltsukeria faltsuena da»^{xxx}

Estrukturalismoan gizakiaren alderdi izpiritualaren berrestea aurkitzen du.

^{xxix}Txillardegi, Jakin 1967, ibid, 17 orr

^{xxx}Txillardegi, «Sinistu ezinean iges egin behar», Jakin 1967, 27/28 zenb. 16 orr

«Zertan datza pentsaera-astindua? Huntantxe: gizonak bi eratarata pentsatzen du. [...] Gizonak zientziaren arabera pentsa dezake, eta pentsaera arkaikoaren arabera pentsa dezake»^{xxx1} Gizakiaren bi pentsaerak «arkaikoa» eta «positiboa» deritzana, biak gizatalde guztietan present daude etnologia berriaren esanetan. Hizkuntzalaritza estrukturalistaren ekarpenak erreboluziotzat bazituen Txillardegik, etnologia estrukturalistaren ekarpenak ez ditu gutxiagotarako.

«Gure Euskal Herrian positibistak ditugu nagusi. Hauxe da, hain zuzen ere, gure herriaren beherakadaren beste frogakari bat. Gure herriak egia-mailla bakar bat ikusten baitu, ez besterik: «lehenengo mundua», zentzuari dagokiona, estadistiketan neurtzen dana, mundutar kondairan prezatzen dana. Eta mundu hortan ez dago ezer «bi ta bi lau» hori baizik.

Txillardegik bere lan guztian zehar azpimarratzen du gizakiaren alderdi izpiritualaren garrantzia, gizakiak baditu funtsezko arazo batzuk eta giza bizitza arazo horien erantzunen bilaketa bat baino ez da. Inongo doktrina absolutistek, ez dute behar hau asetuko, baina ala eta guztiz ere gizakiak absolutuen beharra du.

«Ba da, nere ustez, nabarmen, bigarren mailla hori, «bigarren mundu» hori: egiazko Arteak, Olerkiak, Erlijioak, eta abar osatzen dutena. «Errealista» horiek farre egiten diete, jakiña, esanez:«hemen sosa, eta utz alde bat ipui horiek»^{xxxii}. Horra hor gure herriaren minbiziaren kaka»

^{xxx1} Txillardegik, *Gertakarien lekuko*, «Levy- Straussék Unamunorengana», Haranburu editorea, 1985.

^{xxxii} Txillardegik, 1983, ibid, 85-86 orr

Estrukturalismoak gizakiaren alderdi honi garrantzia emango dio. Hizkuntza bakoitzaren logika izkutua, origina, bakarra, olerkiarekin alderatuz.«Hizkuntza olerkia da, ez zientzia.[...] olerki fosilla»^{xxxiii}

Hizkuntzek ere, mitoen gisa, argitu, azaldu, zentzuz jantzi nahi dute mundua, desordenua dagoen lekuan ordena jarri eta galderei erantzun bat erman. Baina zeregin hori ez dago arrazoi modernoaren mailan, ez da objetiboki egiten, inkontzientearen mailan eta subjektibotasunez oratua baizik.

Nola jokatzeko du herri batek hizkuntza bat eratzean?«Huna hemen erantzuna: olerkariak egiten duen modura, bihotzaren arabera, antzak billatuz eta agerraraziz, oroitzapenak alkartuz, gizonaren«pentsaera arkaiko» deritzanaren bidez. Ez adimendu hotzaren eta«pentsaera positibiti»aren bidez, sinbologiaren mailan baino.

«Ez dut huntaz esan nahi, noski, gizonaren alde jokatzeko, ekonomia ikutu behar ez danik, ez: hori astakeria litzake. Gisa da, zuzena da, beharrezkoa ere da ekonomia gizonen onetan zuzentzeko eta zapalbideei uko egiteko borrokatzea: sozialismoaren bidez gaiago baita gizona bere egia eta baita bere egiazko sakontasuna nabaitzeko.

Baiña gizonaren diñatasuna billatzea eta sasi-jainko berrian siñistea bi gauza dira. Produzioaren seta, absolutu billakatzen danean (eta billakaturik dago askoren kasuan) trufa bat da. Gizonaren problema askoz ere sakonagoa iruditzen zait Ekonomiaren eta Produzioarena baiña. Arren![...] Marxismoak, horrela, egiaren parte handi bat duke Kondairari baldin bagagozkio, hau da masa

^{xxxiii} Txillardeggi, 2004, ibid, 71 orr

gizonari; baiña denbora berean pertsonaren funtsezko arazoari buruz, hau da: bizierak sentidurik ote duenentz jakin nahiarri buruz, alienazio hutsa da.»^{xxxiv}

Bukatzeko

Txillardegik marxismoari buruzko iritzi desberdinak eman ditu bere ibilbidean zehar. Batzuetan gogorragoa izanik bere kritiketan besteetan baino.

«Dena arbuaitu behar ote da, hortaz, marxismoan? Anti-marxismo amorratu batera erori behar ahal dugu? Ez inñolaz ere»^{xxxv}.

Marxismoak nazio arazoa behar adina aintzat ez hartzea izan zen ezin ulerturaren faktore nagusienetariko bat, nahiz eta bakarra ez.

Injustiziaren aurkako errebolta beharrezko zitzaion eta Kapitalismoaren kritikan marxismoak eman zuen argia ezinbesteko. Baina Euskal Herriaren nazio arazoa bigarren mailakotzat hartzea («herririk ez dago, klaseak daude») eta giza natura bakar, abstrakto baten ideia gailendu nahi izatea onartezin. Giza alienaziorik bada, alienaziorik sakonena giza izariaren funtsezkoena, hau da, hizkuntza propioaz desjabetzea baita. Giza natura bakar, abstrakto baten ideiarene faltsuak eta arriskuak beldurra ematen zion, giza askatasunaren eta desberdintasunaren etsairik txarrenetzat baitzeukan. Zapalkuntzarako biderik motzenetzat.

Azkenik, marxismoaren historiaren zentzu bakartasunean, giza historian behin eta berriz agertzen diren mito, utopia eta mesianismo arriskutsu eta jazarkorren beste

^{xxxiv} Txillardegi, 1983, ibid. 104, 105 orr

^{xxxv} Txillardegi, Jakin 1967, ibid, 4 orr

bertsio bat baino ez zuen identifikatzen. Ez baitzuen inolaz ere sinesten gizadi guztiaren bide edo bilakabidea bat eta bera zenik.

«Munduaren kondaira, marxistek besterik esanagatik ere, ez da klase-burruka hutsaren kondaira hutsa. Klaseak ba daude, bai; baiña kulturak ere ba daude, sexoa ere da dago, biologia ere ba dago, geografia ere ba dago, pertsonen heriotza eta bizi nahia ba daude, eta etniak ere bai. Hauek guztiak batera biltzerik ez dago. Mundua hori baino zailla-^{xxxvi}goa da, ulertu ezina gaur gaurkoz».

«Estrukturalismoa oso beltza da, egia bezin beltza behar-bada: prometeokeria guztietatik oso urrun gaude. Estrukturalismoa oso ukakorra da, eta hauxe da sasi-intelektualek onartu nahi ez dutea.«Bide bat bagenuen, eta dana ankar gora berriz», esateko gogoia dute batzuk. Erosoago da, noski, kondairan sentidu bat ikustea. Baiña Levi Straussen hitzez esateko, kondairak ez du sentidurik *geure mitoen* arabera tajutzen ez dugunuen.[...] Estrukturalismoak kosmo-larridurara eraman gaitu berriz»^{xxxvii}

Alegia Jose Luis Alvarez Enparantza zenaren gairik kuttunenatariko batera.

BIBLIOGRAFIA

- Azurmendi, Joxe, «Txillardegiren Saioa: hastapenen bila», Jakin 1999, 114 zenb.
- Lopez Adan, Emilio, «Txillardegiren pentsakera politiko», Jakin 1999, 114 zenb.

^{xxxvi} Txillardegi, Jakin 1967, ibid, 18, 19 orr

^{xxxvii} Igara (Txillardegi), Jakin 1968, ibid.

- Igara (Txillardegi),«Sinistu ezinean iges egin behar», Jakin 1967, 27/28 zenb.
- Txillardegi,«Marxismoa modan egon zan», Jakin 1967, 26. zenb.
- Txillardegi,«Estrukturalismoaz zenbait hitz», Jakin 1968, 29 zenb.
- Larresoro (Txillardegi), *Hizkuntza eta Pentsaera*, Edit. Mensajero, Bilbao, 1972
- Txillardegi, *Huntaz eta Hartaz*, Elkar, Donostia, 1983
- Txillardegi, *Euskal Kulturaren zapalketa 1956-1981*, Elkar, Donostia, 1984
- Txillardegi, *Kosmodromo*, Haranburu editorea, Donostia, 1984
- Txillardegi, *Gertakarien lekuko*, Haranburu editorea, 1985
- Txillardegi, *Euskal Herria Helburu*, Txalaparta, Tafalla, 1994
- Txillardegi, *Euskararen aldeko borrokan*, Elkar, Donostia, 2004

Txillardegi eta Euskara Batua

Gotzon Aurrekoetxea
UPV/EHU

I. Sarrera

«Euskera gaitu, osatu, batu, gaurkotu, zorroztu eta aberastu egin behar dugu»(*Huntaz eta Hartaz*, 76) esaldiak laburbiltzen du Txillardegik euskararako izan zuen helburua. Eta helburu hori betetzeko biritza osoan egindako burruka luzea eta aberatsa izan da. Gaztaroko sasoieta bizi izan zuen egoerak euskara gaitu beharra zuen, kulturarako eta zientziarako gaitu beharra. Gaitze horren puntu gorenetakoa bat euskara batzea izan zen, estandarerako eredu bat sortzea, edonon egonik eta edonorentzat idazteko koinea ezinbestekoa delako mundu hiritartu honetan. Eta irauntzeko ez bada ere beharbeharrezkoa da eredu estandar bat izatea, eredu hori gabeko hizkuntza erremediorik gabe galduko delako.

Txillardegik aztertutako arlo guztietatik¹ bat hartzen dugu hemen langai: euskara batuari dagozkion lanak. Bere ibilbide luzean beti gogoan izan zuen gaia izateaz gain, garrantzi mailan ere goreneko postuetan aurkitzen da.

2. Txillardegi euskara batuaren bultzatzaile eta zizelkatzaile

Duela urte batzuk Koldo Mitxelena Kulturuneak gonbidaturik «Txillardegi eta euskara batuaren kondairaz» izenburua zuen hitzaldia eman nuen². Han esandakoak laburbildu

¹ Txillardegiren ekarriaren tamainaz hausnartzeko ikus <http://txillardegi.wordpress.com/>

² J.L.Alvarez Enparanza, Txillardegiri buruzko jardunaldiak – 2004ko urriaren 4,5 eta 6an Koldo Mitxelena Kulturunean.

ondoren zerbait gehiago erantsiko dut hemen; berak amestu bai, baina amaitu gabe utzitako puntuak zein diren zehaztu asmoz.

Jose Luis kritikatu eta marginatu izatetik omendua izatera heldu zela nioen hartako hasieran. Harrez gero kolore eta formato desberdinetako hainbat eta hainbat omenaldi jaso izan ditu bizi zela eta heriotzaren ondoren. Gutxi izango dira hain euskal esparru desberdinetako omenaldiak berak beste jaso dituenik. Eta hori bere ukaezinezko balioa eta gure poza besterik ez da. Isilik gelditu diren bakarrak bere bizitza guztian gorrotatu zituen arerioak izan dira: ez euskara, ezta Euskal Herria maite ez dutenak.

Euskara batura egindako ekarria aztertu nahi dut hemen, eta batez ere berak ikusi gabe gelditu diren arloak

3. Txillardegi euskara batuaren eragile

Gorago aipatu hitzaldi hartan nioen Txillardegi dugula «euskararen normatibitate edo arautzeaz gehien arduratu den edo gehien idatzi duen hizkuntzalaria: euskara batuaren beharra inork baino ozenago eta lau haizetara aldarrikatu du; euskara batuaren eragile, teorizatzaile, txostenegile, gidatzaile, hedatzaile eta defendatzaile handienetakoa dela esaten badugu (eta gauza asko esaten dugu) ez dugula huts handiegirik egiten esan daiteke». Hitzok egun ere neure egiten ditut.

Hori dela eta batzuk «Euskara batuaren aitzindari»tzat jo dute, nik euskara batuaren aitatatz hartzeko proposamenaren egin nuen KM-ko hitzaldian eta «guraso»tzat egiten dut hemen.

Zein dira lan horiek? Bada eshaustiboa izateko helbururik gabe, hauek dira aipagarrienetakoak:

a) 1956ko Euskaltzaindiari egiten dion «Karta idigia» da lehen erreferentzia inprimatua gai honetaz (*Euskera* I, 1965, 245-250); orain *EHH*, 148).

b) «Batasunaren Bidea», 1958ko abenduan egiten dio Euskaltzaindiari bigarren txostena Euskalzaileen Biltzarrean (*Euskera* IV, 1959: 150-170; *Euskal Herritik Erdal Herrietara*, 171-193; *Euskararen Aldeko Borrokan*, 25-45). Txostenean proposatzen dituen gauza asko gauzatu egin dira, horretarako urte andana bat behar izan bada ere. Egia esan, orduko Euskaltzaindia ez zegoen berrikuntzak egiteko sasoian; horren adierazgarri Mitxelenaren testu hau: «Nire ustez, alegia, gutxi gora bera bat gatoz. Eztut uste, ordea, gaur batasunik egin ditekeanik» (*Euskera* IV, 1959: 171).

c) Txillardegiren bi ekintza erabakiorrenak baina, dimisio gutuna eta *Baionako Euskal Idazkaritzako* lana dira:

c1. Bere euskaltzain-urgazletasunaren dimisio gutuna (1963ko iraileko *Enbatan* argitaratu zen; gero *Tierra Vasca-Eusko Lurra*-n urri eta azaroan; orain *EHH*, 161-167 eta *Euskararen Aldeko Borrokan*, 47-53, ere irakur daiteke). Dimisioa ez zen onartu.

c2. Baionako batzarrak. Euskara batuaren beharra indartzeko lanari ekin zion: *Euskal Idazkaritza Elkarte*a sortu zuten. Elkartearen lanek ere berebiziko garrantzia izan zuten euskara batuaren sorreran. Elkarte honen proposamena (Baiona, 1964) da euskara batuaren hazia. 1958ko «Batasunerako bidea» txostenari orpoz orpo jarraitzen dio (Txillardegik idatzi zituen biak, berak hala aitortzen duenez -*EHH* 169). Txostena ia bere osotasunean onartu zuen Euskaltzaindiak.

d) Arantzazuko biltzarra. Txillardegik bere ezin-joana gutun baten bidez adieazi zuen.

e) «Herri bat hizkuntza bat» leloan guztiz sinetsirik euskara batuaren aldeko borroka une latzenetan ere jarraitu zuen.

f) Euskara baturako urratsak zein izan behar diren azaltzen du «Euskara batuaz: hurrengo urratsetara behar» izenburua duen idazki laburrean (*Hitz* 8, 41). Eta ondoren urrats horiek zehaztu ere egin zituen.

4. Txillardegi euskara batuaren garatze lanetan

Euskara Batuaren garatzea askoren lanaren ondorio da, zailtzarrik gabe. Baina esan dezakegu Txillardegiren lana beste guztien gainera nabari dela: bai morfologian, fonologian, azentua... aitzindari izango dira bere lanak. Bakar batzuk baino ez ditut aipatuko:

4.1. Euskal Gramatika langai

- *Sustrai bila* (Donostia, 1970, eta aldaketa batzuk eginik 1977an *Oinarri bila*) garai hartan Gau-eskoletan eta Euskaltegietan euskara irakasten jardun genuenok zenbat aldiz jo behar izaten genuen liburu honetara!

- *Euskara batua zertan den* (Donostia, 1974) liburuan ordua arteko euskara batuaren ibilbidean zehar hartutako erabakiak biltzen ditu.

- *Euskal gramatika* (1978) euskara batuko lehen gramatika osoa.

- *Euskal Aditz Batua* (1979). Txillardegiren meritua Euskaltzaindiak onartutako adizkiak modu pedagogiko batean argitaratzea izan zen.

4.2. Hiztegi gintza izan ez arren gehien landu zuenetako arloa, *Hizkuntzalaritza Hiztegia* (Elkar, 1982) taldeko zuzendari lanak egin zituen Ana M. Toledorekin batera. Horrez gain artikulugile ere izan zen: «Euskararen ezaugarri nagusiak», «Linguistika eta Matematika», «Mintzamena gizonetik at»

artikulu luzeen egile eta beste pila bat artikulu txiki baka-
rrean zein J.L. Iturrioz-ekin, M. J. Azurmendirekin, J. R. Zu-
biaurrekin eta beste batzuekin batera.

4.3. Euskara batuaren fonologia izan zen bere arduretako
bat

- «Fonetika baturuntz (zenbait proposamendu)» (Berga-
rako jardunaldiak, 1978-IX-4/8) lana da arlo honetako le-
hen ekarpena.

- *Euskal Fonologia* (1980) liburuaren hitzaurrean oso gar-
bi azaltzen da bere pentsamendua arlo honi dagokionez: ba-
tetik «... ahozko euskara inoiz baino okerrago dago gaur;
erdal interferentziak azkartu eta ugaldutara, euskal sena
ahuldu eta suntsitu baita euskaldunik gehienengan», eta
hori konpontzeko «Euskara Batua (...) maila idatzian finka-
turik gelditu ondoren, *maila mintzatuan* ere behar da finkatu
(...)» defendatu zuen. Ez zen hori euskara batuaren sorrera
aurreikusten zen egoera, euskara batua idatzirako proposa-
tzen zenean

Ozen esaten zuen «Euskara Batuzko testu bat hartu, eta
hura gaztelania balitz bezala ahoskatzea, *gaizki ahoskatzea*
da; gaztelaniazko fonologiaren arauera irakurtzea besterik
ez baita. *Euskal Ortoepia* behar dugu, beraz» (*Euskal Fono-
logia*, 8). Liburuan lekua hartzen du «Fonologia Baturantz»
deitu zuen atalak.

- «Euskalkien fonetika eta euskara batua»³ da arlo hone-
tako bigarren ekarria.

- Handik urte batzuetara argitaratzen du «Ahozker a-
baturantz»⁴ artikulua. Ahozker arautzeaz honela dio: «Ahos-

³ in *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak* (Deustuko Unibertsitatea, 1981, 129-137).

⁴ *ELE* 10 (1992), 47-72.

kerari buruzko proposamenak egiteko unea da. Aurreko guztiaren osagarri (euskarri hobe) gure Batuak ahozko ka-tearen kodaketa zehatza behar du. Behar gorria, batzuek diotenaren aurka» (49. or.).

- «Fonologiaren normalkuntzaz zenbait berri»⁵ lanean modu didaktikoz, Europako hizkuntz txikietan arlo honeta-ko normalizaziorako hartu diren erabakien errepasoa egi-ten du, erakutsiz euskaraz ere urratsak eman behar direla.

- «Batua eta euskal fonologiaz»⁶ artikuluan Euskaltzain-diaren azken ildoen aurka gardenki mintzatzen da (2004: 7):

Mitxelena hil ondoren Euskaltzaindiak hartu duen bidea Hiztegi batua deritzon liburuan ikus daitekeenez (Euskal-tzaindia 2000), Europako joera nagusitik aldendu da.

Eta

Baina gauza guztiz nabarmena da Euskaltzaindiaren Hiz-tegi Batuan. Behin eta berriz, eta euskalki kontserbadoreen eta Auspoa sailaren lekukotza guztiaren gainera, eta 1968an Mitxelenak prestatutako hiztegiaren kontra ere ez gutxitan, gaurko **gazelaniaren hitzak hartu direla** batere erreparorik gabe, morrontza osoan. Hor ditugu, beste askoren artean, **kanbiatu** (Euskaltzaindia 2000: 623) (**ganbiatu** erabiltzen delarik); **kardu** (ibid: 570), **gardu** baztertuz; **Pazko** (ibid: 513), eta ez **Bazko**; **Kalbario** (ibid: 622), eta ez bertsolariak erabiltzen duten **Galbario**; **konbertitu** (ibid: 631), eta ez Txirritak eta bestek erabiltzen duten **gomertitu**; **komeni** (ibid: 631), eta ez **gomeni**; **konparazio** (ibid: 632), **goma(ra)zio**-ren gainera.

⁵ ELE 11-12 (1993), 163-188.

⁶ *Euskalingua* 5 (2004), 4-10.

Eta, azkenik,

Joera **euskañol** berbera nagusitzen ari da beste hamai-ka xehetasunetan: Zergatik **boluntario** (Euskaltzaindia 2000: 527), **bolondres**-en kontra? Zergatik **konpromi-
so** (ibid: 633), **konpromezu** baztertuz?

Egia esan, ez dira artikuluan zehar kritikatzeko dituen puntu bakarrak. Euskararen irakaskuntzan ari diren askorentzat irakurri gabe ezinutzizko pasarteak agertzen dira bertan.

4.4. Prosodia ere landu zuen, hain zuzen ere ahoskatzea arautzeko ezinbesteko arloa baita. Txillardegiren lana azentua ikertzera mugatu zen arlo honetan.

- Batetik *EuskalAzentuaz* bere tesi lana burutu zuen 1983 eta handik urte batera argitaratu liburu gisa. Horrez gain hainbat proposamen egin ditu arlo honetan:

- Lehena «Proposamen bat azentuari buruz»⁷ txostena aurkeztu zuen Euskaltzaindiak antolatu Euskal Azentu eta Ebakeraz II. Jardunaldietan.

- Bigarrena ia izenburu berarekin «Azentuari buruzko proposamen bat»⁸ handik urte batera.

- Hirugarrena urte berean «Euskal azentuaz»⁹.

- Laugarrena ere urte berean: *Euskara batua: Iruñeko proposamena azentuari buruz* [Udako Euskal Unibertsitatea, 1987].

- «Batua eta Euskal fonologiaz» (2004: 7) artikuluan euskal ahoskeraren atzerakada aipatzen du ortografiari buruz mintzatean:

⁷ *Euskera* 31 (1986-2), 341-348.

⁸ *Ele* 2 (1987), 5-20.

⁹ *Isilik* 9 (abe. 1987), 8-12.

30 bat urte honetan, euskaldun jende askok Batua *idazten* ikasi du. **Aurrera** egin dugu zalantzarik gabe. Baina izkribuak *irakurtzen* hasterakoan, euskal ahoskera jatorrak (**euskal ahoskerak** aski, egia esan) guztiz **atzera** egin dugula esan behar da.

5. Ametsak errealitate bihurtuz

Txillardegiren euskara batuaren aldeko gainbegirada hone-tatik ondorioztatzen den lehen baieztapena zera da: euskara batuari buruzko Txillardegik amets eta asmo asko eta asko gauzatuta ikusi zituela.

Harentzako, ziurtasun osoz esan dezakezu, oso pozgarria izan behar zuela euskara batua (ia) gauzatuta ikustea. «la» diogu, berak landu eta burrukatutako alor bat ez due-lako burututa edo beteta ikusi: prosodiarena. Hori dela gel-ditu zaion arantza bakarra esan daiteke.

Gainerakoentzako ere bi irakaspen eder eskaintzen diz-kigu historia honek: batetik euskara batua ia egina ikusteak poztasun handia eragin behar digu, batez ere jada adinez hornituta gaudenoi eta euskara batuaren ibilbidean zehar lan egin behar izan dugunoi. Eta bigarrenik, etengabeko lan kementsuak ondorio ederrak ematen dituela.

Beste behin, eskerrak eman behar dizkiogu Jose Luisi emandako irakaspen ederragatik. Eta, gainera, baieztata de-zakegun irakaspen hori ez dela alferrik galdu. Izan ere, prosodiari buruzko lanek aurrera diraute. Haren ingur-uan hizkuntzalaritzaren arlo honetan hasi ziren ikertzai-leen fruituak hori ditugu: hor daude J. I. Hualderen eta I. Gaminderen lanak eta batuari buruzko proposamenak azentuari dagokionez; eta hor daude intonazioari buruz G. Elordieta eta I. Gaminderen ikerketak. Azken 20-30

urteotan, etenik eta atsedetik gabe, dihardute prosodiaren arloan ikertzen.

Azkenaldion, bada, ikerketa-proiektu sendo bat ezarri du abian «Eudia» ikerketa-taldeak, zeinetan molde batera edo bestera biltzen diren aipatutako hiru ikertzaileak. Proiektu honek euskararen bariazio prosodikoa ikertuz gain, eredu indartsu eta aurrera begirako abantaila handienak dituztenak finkatuko ditu lehen urrats bezala, ereduaren etiketatze prosodikoa eginez. Eta eredu horiek irakasteko tresna didaktikoak sortuko ditu, bigarren urrats batean.

Euskararen aldaeretan zehar bizi diren eredu prosodikoak ikertzeko euskararen eremu osoa hartzen duten 100 herritan egin dira inkestak, galdesorta zehatz bati jarraikiz. Herri bakoitzean, gainera, bi belaunalditako jendeari egin zaio inkesta: jende helduari eta jende gazteari.

Epe laburrean euskara estandarerako eredu prosodikoa garatuta eta eredu hori erakusteko tresna didaktikoak eskura izango ditugula itxaron behar dugu. Hala, Txillardegiren euskara batuari buruzko ametsa osoki betetzeko azken urratsa emango da.

KULTURĀ JĀRDUNĀK



12

YAKIN

(PRO MANUSCRIPTO)

12^a gna. A R A N T Z A Z U'n - Pazkoaldikoa - 1960

Aldian izan zaitugunari,
Kalbarioan il zaituzten orri,
Pazko-goizez piztua zatzaizkigunari,
Betieran bizirik zaitugun orri.



ELKARRIZETA

"TXILLARDEGI"-rekin solasean.

YAKIN'en jaiotza orduetatik irakurle zaituztegunok ezaguna duzute, noski, Txillardegia idazle gaztea. Gure belaunaldiko dugun idazle oni galdera-sail bat aurkeztu diogu. Ona emen berak esan dizkigunak.

- Zer derizkiozu YAKIN errebistari?
- Orrelako bat bear-bearrekoa dugula uste dut. Begi onez ikusten dut zuen aldizkaria, batez ere darabilzkien asmo ederrengatik. Bere ontan irautu nai badu, kultura derriorezkoa du euskerak. Onengatik zuen asmoak ezin obeak ditugu. Ba-liteke zuen lan ori oraindik EGIN gabea, umotu gabea izatea; baiña egin duzuten baiña geiagotara iristeko gauza zeratela uste dut.

- "Iritzi billa"-ri erantzun dioten zenbaitek, leenen ala etako joera-edo aldatu egin dugula esaten dute. Zuk ere berdina pentsatzen al duzu?

- Bai, noski. Aldatu egin da YAKIN zenbait gauzatan. Euskera batez ere.

- Onerako?

- Bai uste dut. Leenengo lan batzuetan erabili zenuten izkera ura, zerbait gozatu duzute ala deritzat, agian nai ainbat ez bada ere.

- Oraingo euskera ulergarriago gaitela ere esaten digute batzuek. Zuk zer diozu?

- Baietz. Ez dut osorik irakurri oi. Baiña ala esango nuke.

Euskaltzale geranok ez gera konturatzen; baiña egia tristea da: Euskeraz ondotox dakinak ez dituztela gure izkribuak ulertzen. Leen, berriz, Axular'ek, Mendoburu'k edo Kardaberaz'ek idazten zutenean, edozeinek uler zezakean geiena.

Alde batetik erri-euskera auldu eta eskatu egin dalako: dudarik ez. Baiña bestetik ere asmatu egiten dugulako, ikasi bearrean.

Oraindik euskaldun jatorrak itzegiten duten izkuntzatik urruti gabilta oso. Eskolarik ez dugula-ta esateak alde bat azaltzen du, noski; geiena segurki. Baiña ez da kakoa alere. Euskaldun

jatorrak ez du irakurtzen; baiña bai entzuten. Alabaiña, gure libururik geienak euskaldun jatorrai goratik irakurri (neureak ere bai, zoritxarrez) eta, nik aginduta, askotan ez dira konprenitzen.

Konzeptua zaila edo berria danean ez ulertzea normala da: koska ez datza izkuntzan, idean baizik. Baiña gu geienok, gauza ximple eta erre-xak idazten ditugunean ere, gutxi ententitzeko moduan azaltzen ditugu. Eta au, zalantzarik ez, akatx aundi bat dugu. Orrek adierazten du euskeraz ez dakigula. Frantsesak ententituko ez balute, frantsera dala esango al genuke ba? Gure eritasun kaltegarri onetan ez dago ez eskolarik eta ez ezer olakorik aipatu bear. Geronek daukagu kulpa. Naturaltasunik eza besterik ez da.

Eta naturaltasun ortatik asi bear. Bestela konturatu orduko ondotxo ibilliko da gure sasi-euskera ori euskaltzaleen apaletan aaztuta. Baiña gure aetatik aldegiña, aldendua; ots, ILLA.

- Zein izan da YAKIN'en akatsik okerrena? Zein da gaur-egun?

- Gure literatura guzian aurkitzen diranak. Euskerari buruz, askoren berrizalekeria; mamiari buruz, agian, alako oztasun-itxura bat. Bietan aurrera zoazte eskierki.

- Bizi diranetatik zein idazle emango zeniguke eredutzat, batez ere euskerari begiratuta?

- Ez da errexu, alajaiñetan! Iru oar-edo egi-tea barka zaidazu.

a) Euskerari buruz, au da, izkuntzari batez ere begiratuta, ez dut inor ikusten gaur bizi dani-
k ere du jartzeko. Agin lapurteraz idazten duen bat edo beste. Baiña ba-dugu bat, egia esan, eta berakin ezin diteke INOR alderatu: Axular. Ez da bizi, baiña bizirik egon bearko luke guziongana.

b) Mamiari buruz: oraindik asieran gaudela. Oso gutxi dala gure elertia. Eta, batez ere, itzulitako literatura euskeraz egonarren, etzaidala iruditzen euskal literatura.

d) Alere ASI egin gera. Eta dugun onena aipatuko dizut.

Antzerkian ba-ditugu bi, onak: Monzon eta Lartzabal. Nere ustez oso egokia da alde guzietatik egin dutena. Euskera onena bi auek dute, nere

ustez, gaurko idazleen artean.

· Nobelagintzan, bi aipatuko nituzke: Etxaide eta Erkiaga. Oraingo ez dut uste beste bion maillan daudenik. Loidi ere ondo asi zan "Amabost egun Urgain'en" ematean; baiña nobela bat ez da aski nobelari egiazko bat izateko. Jean Etxepare, Donapaleutarra, ondo asi da, eta itxaropen da.

Saioan urrats eder bat eman dugu Iñurritza! ren bidez. Unamuno'ri buruzko bere saioa euskeraz eta seriotan egin dan leenengoa da, eta nere zor-ionak eman nai dizkiot orain. Tamala da itzegi-ten duen euskera ez erabiltzea liburuetan.

Olerkian, bat dugu gailen: Orixe.

- Ta YAKIN'en gai berdintsuak erabili dituz-tenetatik?

- Egia esan, ez naiz gauza galdera au ondo erantzuteko.

- Errebista zeure eskuetan bazeneuka, zein jo-kaera ezarriko zenioke? Nola nai zenuke, zeure gogo utzari begira, YAKIN?

- Ontaz luze xamar mintza nakizuke. Euskal literatura bat sortzera zuzenduko nituzke nik indar guziak. Begira gure inguruko izkuntzetara: oiek literatura bat sortu dute, sortu eta osatu. Bikaintasun eta gailentasuna dituen literatura bat. Begira zazu gurera: Zer daukagu? Gizaldiak eta gizaldiak joan zaizkigu ia ezer egin gabe; eta esnatu geranean izkuntzari begira lilluratu-ta, ao-zabalk gelditu gera.

Egia esan, euskal elertia egiteko dago orain-dik. Leenen ZERBAIT esan bear dugu eta gero eus-keraz esaten saiatu. Izkuntza bidea da, ez elbu-rua. Jomuga ortara bultzatuko nuke YAKIN:aldizka-ria KEZKA BATEN ONDOREA izan dedilla, eta ez bes-te aldera. Estrifia, barne-leia ori bear duzute: Gaiñerakoa orren ondotik etorriko da. Ez dezaio-gun, arren, gure lanari teillatutik ekin. Ezer esan BEAR ez duenak, ez du idatzi bear. BEARRAK eragin bear gaitu, ez euskera utxak.

Unamuno, Mann, Camus, Mauriac, eta abar eredu-tzat; baiña ez beren obrak kopiatuz, jokabidea baizik. Egiazkotasuna, zintasuna: Orra bida ba-karra. Bizitasuna bear du gure elertiak. Eta gaurko kezkek eta katramillak gure liburuetan ixuritzen ez badira, Ez gera asi ere egin. Ez di-

ra gaiak alere bortxaz, ez: SENTITU egin bear dira NORTU, barnea astinduta. Eta gero, eta ezinbestean bezela, norberaren burua ezin eskuraturik bezela, "erdi-bearrak" estututa eta eraginda, idatzi. Lizardi'k esate baterako, auxe sentitzen zuen. Eta au bere barnean nabaitu ez duen idazleak ez du ezer onik egingo. Ezegin dudarik.

Orrengatik oso artifiziala deritzat aspaldifontan idatzitako geienari. Euskera utsa egiten jardun gera (eta ez zienziari dagokion moduan geienetan...) eta ez dugu bear aña aurreratu. Narzisismo aul eta inojo batean dardaratu gera. Arren: Leenen mamia, eta BIDENABAR euskera. Ez alderantziz.

- Ta izkuntzaren aldetik zer eskatuko zenieke YAKINlarieri?

- Naturaltasuna, eta euskera zaarrari bertagotik jarraitzea. Ontaz itzeginiik naiz. Orainarte euskaldunok erabilli ditugun kontzeptuak emateko ez dago ezer asmatu bearrik. Are gutxiago gramatika-arazoetan. Oietan IKASI egin bear da. Euskeraz idatzi nai dugu: Bai ala ez? Baiezkoan baigatez, daukaguna jakin bear. Ez bakoitzak euskera BERE kolkotik atera. Garbiagorik ur garbia.

Kontzeptu berrientzat, ordea, ez dugu etxean tresnarik. Sartaldeko kulturaz inutuak geranez, beste izkuntzak damaigutena jaso bear. Euskeraz asma baditeke itz egokiren bat, aurrera eta pozik. Baiña bestela, erderetara; eta pozik ere.

Euskera, gaiñera, larri dabil. Iltzeko zorian. Eta leenengo erremedioa auxe da: dagoanari eutsi. Gero egingo ditugu txertoak. Oraingoz salba dezagun eria, eta ez uxa bildutrez ondoratzen zaigun euskalduna.

- Beraz, labur-labur YAKIN'i eskatuko zenioke-na...

- Kezka sortzeko; ta kezka ori, euskeraz azaltzeko gooa. Baiña KEZKA aurrenik.

- Zer iruditzen zaizu euskerarentzat bearrekoena: Goi-goiko kultura edo "bulgarizaziozkoa" esan oi duguna?

- Premia aundiagoa du bigarrenak, dauden euskaldunak zerbait izan dezaten.

Leenengo mailakoa ere bearrezkoa da. Baiña,

berriz ere, ASTINTZEN GAITUZTEN ARAZOAK azaltzen ez baditugu, sasikeritan ari gera. "El Diario Vasco"-k Santamaria'ren artikulua zoragarri bat ekarri du otsailaren 28'an: "Buñuelos y soplillos". Euskal-idazle guztiak ondo aztertu bearko lukete. Berakin nator zearo.

- Zergatik leenbizi ori?

- Pausuka ibiltzen ez dana, ez dabil.

- Ez aal dugu, euskerari prestijiorik emateko, jakintsuengana jo bear, erriaren aurrean itxura onik izan dezan?

- Goitik ez bada, euskera ez da salbatuko. Bai, ortaz.

- Zure gustoko dan aldizkariren bat...

- "El Ciervo" esate baterako. Bizia da, zirt-zart idatzia; baiña zinezkoa. Artikulu laburrak; baiña beti giartsu. Lan laburrak eskatuko nizkizueke. Nai bada, burutazio bat bakarra izan dedilla, baiña barnetik jaioa. Eredu on bat iruditzen zait zueitzako.

- Gaurko euskal-literaturaren joera, matxinada-aurrekoarena baiño egokiagoa dugu, ala ez?

- Erabat artuta, bai. Nere ustez gure literatura aurrera dijoa, eta azkar gaitiera. Alere gure aurrekoak maiseatzea ez dago ondo: Gure belauna aurrerago iritxiko dala uste dut. Baiña berak ideki zuten alik ondoen ia asi gabe zegoan bidea. Eta danai, berakin bat ez etorrita ere, nere goratzarre au egin nai diet. Gure aurreko euskaltzaleak gabe, gaur ez litzake ezer izango.

- YAKIN'lariontzat bai al duzu beste zerbait esateko?


- IRAUN DEZAZUTELA. Irautea garaipenaren erdia da. Ekin ortaz, eta iraun.

oo oo oo oo

Auek dira Txillardegi gazteak esan dizkigunak. Ziur nago beste askok barnean ezin adieraziz geneukan zerbait ori argitaratu diguna. Eta eskatzen digun barne kezkatia su dezagunean, eusko bizi-arazoaren askabidean gerakela.

Beraz, sor dezagun kezka, ta gainerakoa ba-dator-
kiguke.

Intxausti'tar Joseba, ofm.
- Arantzazu'koa -





ISSN 1130244-5



9 771130 244008



49